Aipatu probek denbora-epea zuten, eta jardueraren araberako puntuazio bat eman zitzaien parte-hartzaileei.

Puntu-zenbaketa Sielvako zubian egin zen, arbelaz baliatuta.

Lehiaketa bazen ere, ez zen ez irabazlerik ez galtzailerik egon. Ezta saririk ere

Salazar ibaiaren urloan egin zen jarduera, Irunberri igarotzean. Udal-igerilekuen eta kanpinaren ondoan dago urlo hori. Ez da beharrezkoa autobusez joatea.

**Jardueraren ordutegia**

Jardueraren hasiera: 10:00 Parte-hartzaileak Irunberriko udal-igerilekuetako aparkalekura iritsi ziren.

Zerrenda irakurritakoan, begiraleek beren burua aurkeztu eta jarduerari ekin zioten. Jarraian, taldea bitan banatu zen (batek Irati ibaia jaitsi zuen goizean, eta besteak ureko gymkana egin zuen; arratsaldean, jarduera aldatu zuten).

Jaitsiera baltsan:

| | |
|---|---|
| 10:30/15:30 | Aldageletan aldatutakoan, baltsan jaitsi zirenak ontziratzeko eremura hurbildu ziren autobusez. |
| 10:35/15:35 | Jaitsieraren aurkezpena. Teknikari eta segurtasunari buruzko oinarrizko ezagutzak. |
| 10:45/15:45 | Jaitsieraren hasiera. |
| 12:45/17:45 | Jaitsieraren amaiera eta autobusez basera itzultzea. |
| 13:30/18:30 | Aldatu ondoren, amaitutzat eman zen jarduera. |

Eguerdian bi ordu libre izan zituzten jateko, atseden hartzeko... Sielvako zubiaren ondoko zelaian bildu ziren denak.

Ureko gymkana:

| | |
|---|---|
| 10:45/15:45 | Gymkanaren taldeak egin eta horri buruzko nondik norakoak azaldu zitzaizkien. Plano bana eman zitzaion talde bakoitzari, egin beharreko 4 probekin. |
| 12:30/17:30 | Azken probari ekin zioten talde guztiek batera. |
| 13:30/16:30 | Puntuak zenbatu ondoren, amaitutzat eman zen jarduera. |

Eguerdian bi ordu libre izan zituzten jateko, atseden hartzeko... Sielvako zubiaren ondoko zelaian bildu ziren denak.

Jardunaldiaren amaiera

19:30ean itzultzeko autobusa atera zen igerilekuetako aparkalekutik.

**Partaidetza**

Lehen larunbatean espero ziren gazteen erdia baino ez zen etorri.

Gainerako bi egunetan bete egin zen jarduera.

| | |
|---|---|
| Abuztuak 6 | 19 gazte (15 emakumezko eta 4 gizonezko. Denak Iruñekoak). |
| Abuztuak 13 | 39 gazte (25 emakumezko eta 14 gizonezko. Denak Iruñekoak, Tuterako 3 izan ezik). |
| Abuztuak 20 | 40 gazte (29 emakumezko eta 11 gizonezko. Denak Iruñekoak, Lizarrako 2 izan ezik). |
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 98 gazte: 69 emakumezko (%70,4) eta 29 gizonezko (%29,6). |
| JATORRIA: | Denak Iruñekoak (%95), Tuterako 3 eta Lizarrako 2 izan ezik. |

**Balioespena eta ondorioak**

Jardueraren diseinuak erdietsi egin du gazteria Nafarroako eskualde interesgarri batera eta natura-inguruneko aisia-jardueretara hurbiltzeko xedea, taldeko gainditze-lan neurritsu baten bidez.

Inkesten arabera, parte hartu duten gazteak harrituta geratu dira ekimenarekin, eta argi utzi dute jarduerok arrakasta izan zutela parte-hartzaile gehienentzat.

Kanpaina horretan aurreko 8 kanpainetan baino ur gutxiago egon da Irati ibaian. Nagore zingiran egindako obrengatik izan da hori. Obra horiek urte hartako neguan amaitu eginen dira; hurrengo kanpainetan, beraz, ohiko emariak izanen ditugu berriro.

Datak aukeratzea beti da zaila udan, oporrak eta herriko jaiak direla eta. Hala ere, parte-hartzea erabatekoa izan da, lehenengo larunbatean salbu (abian jartzea).

Askotan legez, neskak dira jarduera mota hauetan gehien parte hartu dutenak (%70). Aipatzekoa da, bestalde, parte-hartzaileen %95 Iruñekoak zirela, 2 Lizarrakoak eta beste 3 Tuterakoak.

Autobusez egindako lekualdaketak ere nabarmendu dira galdetegian. Parte-hartzaile

(gutxi) batzuk bazterturik sentitu dira, eguneko plana ondo ezagutzen ez baitzuten.

Oro har, uste dugu jarduerak ondo baino hobeto betetzen duela adin guztientzako eduki hezigarri eta jostagarria.

Natturakook poz-pozik gaude proiektu honetako jarduera-multzoarekiko parte-hartzaileek izandako erantzunarekin.

Gogobetetasun-galdetegia

Gazte gehienek galdetegia bete dute.

Galdetegiak aztertuta, konturatu gara lortutako emaitza oso ona dela, parte-hartzaileen gogokoa.

**Aurrekontua**

5.662,80 €, BEZa barne

## LARUNBATAK JOLASEAN – ESKALADA ETA PIRAGUISMOA LEZAUNEN (ESCUR, SL)

**Datak:** abuztuak 13, 20 eta 27.

**Sarrera**

Honako agiri-txosten honen xedea da Gazte-txartela erabiltzen duten gazteei zuzendutako "Larunbatak jolasean" jardueren esparruan erdietsitako helburuak, egindako ekintzak eta ekintza horiei buruzko ebaluazioa gogoraraztea

2016ko abuztuko 3 larunbatetan egin ziren jarduerok (abuztuaren 13, 20 eta 27an, hain zuzen ere).

**Norentzat**

Jarduera-programa hori Nafarroako eskualde ezberdinetako gazteei zuzenduta zegoen. Hala bada, Nafarroako gazteei proposamen erakargarri eta interesgarri bat helarazi zitzaien, hainbat balio lantzeko asmoz, besteak beste: elkarlana, ahalegina, natura- eta kultura-balioekiko interesa, talde-lana, norbere burua hobetzea eta aisia-jarduera osasuntsu eta osasungarriekin gozatzea.

Proposamena Gazte-txartela zuten erabiltzaileei helarazi zitzaien, zehazki, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei.

Hiru jarduera uztartuko zituen ibilaldia egitea bururatu zitzaigun. Lehenik eta behin, ingurumenarekin lotutako jarduera bat eginen zen; biztanleriaren zati horrentzat erakargarria izan zedin, kirolarekin lotu genuen, eskaladarekin kasu honetan. Azkenik, piraguismoan hastea otu zitzaigun, kayakak erabilita jolas ugari eginez. Azken jarduera horren bitartez, Irantzuko eskualdeko natura- eta kultura-ondarea ezagutzearekin nahasi ziren jolasa eta kirola.

**Proiektuaren kudeaketa**

Escur, SL enpresak kudeatu du proiektua.

**Helburuak**

Gazte-txartelaren eskakizunari jarraikiz, programa honen helburu nagusia da gazteei jarduera erakargarriak eta interesgarriak eskaintzea, hainbat balio lantzeko asmoz, besteak beste: elkarlana, ahalegina, natura- eta kultura-balioekiko interesa, talde-lana, norbere burua hobetzea eta aisia-jarduera osasuntsu eta osasungarriekin gozatzea.

Gazteei ingurune naturalaren ezaguera ardatz duen jarduera batean parte hartzeko aukera luzatzea du helburu ekimenak; interpretatutako ibilbideen, eskaladaren eta piraguaren bidez, parte-hartzaileek esperientzia ludikoa izanen dute, non Nafarroako erdialdeko haran ederrak eskura jartzen dizkigun elementu desberdinak ezagutzea, ulertzea eta interpretatzea nagusi izanen baitira.

**Garatutako programa**

Egun osoko ibilaldia izan zen eta, hasteko, Nafarroako eremu ezberdinetatik jaso ziren gazteak. Autobusa izan zuten egun osoan zehar eta, horri esker, proposatutako jarduerak egin ahal izan ziren: interpretatutako mendi-ibilia + eskalada, izaera guztiz hezigarriarekin, eta beste kirol-jarduera bat, ureko gymkanaren antzeko egituraduna edo piraguismoaren hastapenak. Ubagua ibaia izan zen jardueraren ardatz nagusia; jarduerak goizean txandakatuko ziren, taldeka, eta arratsaldean bazkaltzeko geldialdiaz baliatuko zen esperientziak partekatzeko eta taldeak trukatzeko. Jarduera Lezaunen hasi zen 10:00etan, eta Riezun eman zen bukatutzat 19:00etan.

**Jarduerak**

Interpretatutako ibilaldi gidatua Erbiozko sakanean zehar, Ubagua ibaiko ur-bilketako arroetako bat; helburua zen eremuaren biodibertsitate aberatsa ezagutzera ematea, bai eta lurzoruaren eta erliebearen ñabardurak ere, Nafarroako erdialdeko baso mediterraneoen askotariko paisaia oparoen ezaugarri.

Eskaladari ekiteko jarduera sakan bete-betean. Duela 65 milioi urte baino gehiago eratutako kareharrizko lurzoruen egiturak ezagutzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek, bertan burutu baitzen jarduera hastapen gisa. Ondoren, Ubagua ibaiaren iturrira jarraitu zuen ibilbide gidatuak, ibaiaren hasieraraino, alegia, eta bertan egin genuen arratsaldeko azken jarduera piraguarekin.

Piragua erabiltzen hasteko, urak baliabide bezala duen garrantzia azpimarratu zen, bereziki alderdi ludikoari zegokionez, betiere eskualdeko erabilera ezberdinak ahaztu gabe (gatzagak, arrain-haztegiak, ureztatzea, elektrizitatea...). Ibilbidearen zati horretan gymkana egitea edo kayakean hastea bururatu zitzaigun, askotariko probak tartean zirela.

Programa

| | |
|---|---|
| 09.00h | Irteera Iruñetik |
| 10.00h | Hitzordua Lezaungo autobus-geltokian |
| 10.00h-13.30h | Goizeko jarduera |
| 14.00h | Bazkaltzeko geldialdia. Bainatzeko eremua Riezun |
| 15.00h-18.00h | Arratsaldeko jarduera |
| 19.00h | Irteera Riezuko zubitik |
| 20.00h | Iruñera iristea |

**Partaidetza**

Parte-hartzea espero zena baino txikiagoa izan zen, gazteen esanetan jarduerok non egiten ziren jabetzea kostatu omen zitzaielako haietako askori.

| | |
|---|---|
| Abuztuak 13: | 30 gazte, 18 emakumezko eta 12 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| Abuztuak 20: | Bertan behera gelditu zen 9 gaztek baino ez zutelako izena eman, eta hurrengo asteburuan egin zuten bat. |
| Abuztuak 27: | 28 gazte: 13 emakumezko eta 15 gizonezko. 25 Iruñekoak eta 3 Tafallakoak. |
| Parte-hartzaileak, guztira: | 58 gazte: 31 emakumezko (%53,4) eta 27 gizonezko (%46,6). |
| Jatorria: | Denak Iruñekoak (%95), Tafallako 3 izan ezik (%5). |

**Ebaluazioa**

Begirale-taldea aurreko egunetan bildu zen programazioa eta lortu beharreko helburuak ezartzeko, bai eta beharrezko material guztia eskuratzeko ere; hala, ez zen ezer zoriaren edo inprobisazioaren mende utzi.

Parte-hartzaileek, beren iritzietan, aditzera eman dute ekimen ona iruditu zaiela Gazteriaren partetik, eta halako jarduera gehiago egitearen aldeko interesa ere agertu dute.

Parte-hartzaile gehienak Iruñekoak ziren, Tafallatik etorri ziren 3 salbu. Ez zen Lizarrako inor bertaratu, beharbada Lizarra eta jarduera egin zen tokia oso gertu zeudelako elkarrengandik eta, ondorioz, dagoeneko ezagutuko zutelako.

Tamalez, eguraldia ez zen oso egokia izan, tenperaturak oso altuak izan ziren eta. Horregatik, ordutegi-aldaketa txiki bat egin zen abuztuaren 27an, bero-kolperik egon ez zedin. Jarduerak, beraz, talde osoarekin egin ziren; goizean interpretatutako ibilbidea eta eskalada egin zituzten denek, eta arratsaldean, berriz, piraguismoa, freskoago egoteko, tenperatura altuak gorabehera.

Begiraleek ontzat hartu zuten esperientzia, gazteak poz-pozik joan baitziren, urtean zehar halako jarduera gehiago egiteko gogoz.

**Aurrekontua**

5.662,80 €, BEZa barne

## ARUNBATAK JOLASEAN – SURFA ZARAUTZEN (MOOR SURF ESKOLA)

**Datak:** irailak 3, 10, 17 eta 24

**Helburua**

200 gazteei surf "bataio" bat izateko aukera ematea Zarautzen.

**Egutegia**

Jarduera iraileko 4 asteburuetan garatu zen

**Partaidetza**

| | |
|---|---|
| Irailak 3: | 49 gazte: 34 emakumezko eta 15 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| Irailak 10: | 50 gazte: 28 emakumezko eta 22 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| Irailak 17: | 47 gazte: 30 emakumezko eta 17 gizonezko. Denak Iruñekoak, Tuterako 2 eta Tafallako 4 izan ezik. |
| Irailak 24: | 43 gazte: 28 emakumezko eta 15 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 189 gazte: 120 emakumezko (%63,5) eta 69 gizonezko (%36,5). |
| JATORRIA: | Denak Iruñekoak (%97), Tuterako 2 eta Tafallako 4 izan ezik. |

La Burundesa enpresak eman zuen joan-etorriko autobus-zerbitzua (15 euro pertsonako). 09:30ean irten ziren eta 20:00etan itzuli.

Moor Surf Eskolak eman zituen surf-klaseak; ordu eta erdikoak izan ziren eskolak, eta bi talde egin ziren egunero, 11:00etan eta 13:00etan, hurrenez hurren.

**Aurrekontua**

4.114 €, BEZa barne

## UDAKO JARDUERETARAKO AUTOBUSAL (LA BURUNDESA)

**Aurrekontua**

6.235 €, BEZa barne

## FLAMENCO ON FIRE

**Datak:** abuztuaren 24tik 28ra

Abuztuaren 24tik 28ra, Flamenco On Fire izanen da berriz Iruñean, hiria artista garrantzitsuen eta flamenkoa gogoko duten pertsonen topaketa bilakatzeko asmoz; abangoardia eta beste musika batzuekiko hibridazioak eta nahasketak aintzat hartzen ditu programak, flamenkorik puruena zabartu gabe, betiere. Baluarteko auditorium nagusian, Gayarre Antzokian eta Zentral Aretoan izanen dira lau ikuskizun handiak. Tres Reyes hotelak, bere aldetik, 'tablao' bat izanen du, non gaueko ziklo bat garatuko baita, lehen mailako dantzako bost emanaldi, kontzertu eta ikuskizunekin. Arte flamenkoari buruzko jardunaldiak ere itzuli dira, ikasgai magistral, lantegi, konferentzia eta dokumentalez beteta. Jaialdiaren hirugarren ediziorako 'Flamenkoa balkoietan' zikloa estreinatuko da; artea eta bikaintasuna izanen dira nagusi programan, eta emanaldiak izanen dira hiriko gune ezberdinetan jaialdiaren egun bakoitzean.

Urtero bezala, Flamenco On Fire ekitaldiak Sabicas maisuari eskaini dio jaialdia; aurten, gainera, omenaldia eginen zaio Granadako gitarra-jotzaile ospetsu Juan Habichuelari,

'Habichuela el Viejo' delakoaren oinordeari. Arteari, musikari eta flamenkoari egindako ekarpen izugarria azpimarratu nahi da horren bidez.

**Aurrekontua**

7.260 €, BEZa barne

## ACTÚA JAIALDIA 2016

**Datak:** Ekainak 10 eta 11

Duela 30 urte baino gehiago Europako hiriburuetan egiten direnen bezalako kultura-jaialdia da Actúa. Beren lanak sustatzeko oraindik ere halako plataformak behar dituzten artisten hiri-kultura kalera ateratzea da jaialdiaren xede nagusia.

Actúa, hortaz, Nafarroako genero guztietako artista berrientzako lorbidea da. Artistek motibazioari eusteko eta beren sortze-lanak mugitzeko behar duten bultzada, hain zuzen ere.

Dibertsitatearen, entretenimenduaren eta familiarentzako ekitaldien bila dabilen jendearentzako aisia-programa da Actúa.

Actúa doakoa da.

Ekainaren 10ean eta 11n, Iruñeko Sarasate pasealekuan, 40 artistek beren trebetasunak erakutsiko dituzte 10.000 ikuslerentzako edukiera duten aldibereko 3 eszenatokitan.

**Sustapen-kanpaina:**

Gazte-txartelaren sustapena, eszenatokian horma-irudiak eta roller bereizgarriak erakutsiz.

500 sustapen-iragarki baino gehiago, enpresa babesleak aipatzeko.

**Aurrekontua**

3.630 €, BEZa barne

## TRES SESENTA JAIALDIA 2016

**Datak:** Ekainak 10 eta 11

2012an abian jarri zenetik, TRES SESENTA JAIALDIA hasierako helburu asko betez joan da, eta berriak ere erantsi ditu apurka-apurka.

TRES SESENTA JAIALDIARI BURUZKO ZENBAIT DATU ETA GERTAERA GOGOANGARRI

Gazte-txartelak deskontuen eskaintzaren berri eman beharko die titularrei ohiko komunikabideen bitartez: buletina/newsletter-a, posta elektronikoa, sare sozialak...

Tres Sesenta Jaialdiak honako hauek ditu berekin:

- Gazte-txartelaren (Gobernua, Gazte-txartela eta erakundeak) logotipoak jaialdiaren euskarri grafiko eta komunikabide guztietan eranstea (aurki bidaliko dugu komunikatzeko plangintza)
- Barrutian gune bat lagatzea Gazte-txartelaren
- publizitate-euskarriak jartzeko (zehazteke)
- Deskontu berezia abonamendu eta sarreretan (hurrengo puntuan zehazten da)
- Tres Sesenta – NKGI deskontuak
- Azken urteotan bezalatsu, kontzertuak izanen diren bi egunetarako abonamenduen irteera-sustapen berezia atera du Tres Sesenta Jaialdiak. Joan den martxoaren 30ean (osteguna) amaitu zen aipatu eskaintza.
- Harrezkero, NKGIk aukera du Gazte-txartelaren titularrei deskontu erakargarri bat eskaintzeko, egoki deritzonean. Abonamendu eta sarrera kopuru jakin baterako balio dute deskontuok: 100 abonamendu (bi egunetarako) eta 200 sarrera (100 egun bakoitzerako).

### Sarreren prezioa

| | |
|---|---|
| ABONAMENDUA, IRTEERA-SUSTAPENAREKIN EROSITA (martxoaren 30era arte) | 27,90€ |
| ABONAMENDUA, ALDEZ AURRETIK EROSITA | 32,90€ |
| ABONAMENDUA, LEIHATILAN EROSITA | 38€ |
| ABOABONAMENDUUANUA, "GAZTE-TXARTELAREN TITULARRENTZAT" (apirilaren 4tik aurrera) | 25 €, gehienez ere 100 unitatera arte. |
| Deskontu berezia gazte-txartelarekin abonamendua erosteko | 7,90€ |
| SARRERA, EGUNEKOA, ALDEZ AURRETIK EROSITA | 22,20€ |
| SARRERA, LEHIATILAN EROSITA | 26€ |
| SARRERA, "GAZTE-TXARTELAREN TITULARRENTZAT" | 19 €, gehienez ere 200 unitatera arte. 100 egun bakoitzeko |
| Deskontua gazte-txartelarekin sarrera erosteko | 3,20€ |

**Aurrekontua**

7.260 €, BEZa barne

## SAN FERMINEKO 40 PRINCIPALES KONTZERTUA

**Datak:** uztailak 5

Babesa: "40 San Fermix 2016", Iruñeko Cadena SER kateak antolatuta.

**Sustapen-kanpaina:** 20 minutuko 100 iragarki Iruñeko Los 40 Principales katean.

**Marka irratiko sustapen-kanpainan:** 100 iragarki M-80 Radio katean, 100 iragarki Cadena DIAL katean eta 50 iragarki Cadena SER katean

**Marka prentsan eta eszenatokian:** logoa eszenatokiaren olanan (4x2 m), 4 aipamen zuzenean kontzertuan zehar eta publizitate estatikoa VIP eremuan.

**Aurrekontua:**

3.630 €, BEZa barne

## SAN FERMINEKO MARATOIA

**Datak:** ekainak 17

BRANDOK, SL eta NUONET GESTION, SL enpresek "EDP San Fermín Marathon" izeneko ekitaldia antolatu dute 2016ko ekainean; 42,1 km-ko proba bat, 21 km-ko beste proba bat eta 10 km-ko beste bat izanen dira bertan. Ekitaldia antolatzeko beharrezkoak diren hitzarmen, aseguru eta baimen guztiak edukiko dituzte, bai eta baliabide pertsonalak eta bestelako bitartekoak ere.

Administrazio-erakunde publikoek eskatuta, eta zerga-etekinak lortze aldera, bi enpresa antolatzaileek erabaki dute NUONET enpresak sinatuko dituela kontratuak erakunde babesleekin

NUONET enpresak kolaboratzaile-kategoria eman dio GAZTE-TXARTELAri lehen azalpen-puntuan adierazitako lasterketarako; azken honek kontratuan zehazten denari jarraikiz beteko du bere zatia.

**Babesaren zenbatekoa eta ordainketa:**

NUONET enpresak 6000 euro jasoko ditu (BEZ gabe) kontratu hau indarrean dagoen bitartean, honako agiri honetan islatzen diren kontzeptu guztiak direla eta

Adostutako zenbatekoa honela ordainduko da:

Zenbateko osoa maiatzean faktura jasotakoan.

Gazte-txartelaren betebeharrak

NUONET enpresari babesaren zenbatekoa ordaintzea.

**Erakunde antolatzailearen betebeharrak:**

GAZTE-TXARTELAREN logotipoa komunikazio-euskarri orotan egonen da (webgunea, iragarkiak, horma-irudiak, irratiko iragarkiak, etab.)

Erakunde antolatzaileak webgune bat jarriko du abian, boluntarioek proban izena eman ahal izan dezaten.

Erakunde antolatzaileak berariazko kanpaina eginen du dn.es-en, boluntarioak lortzeko.

Boluntarioek proban eramaten duten txaleko islatzaileek GAZTE-TXARTELAREN logotipoa izanen dute inprimaturik, boluntariotzaren babesle den aldetik.

380 boluntariorentzako kita.

**Aurrekontua:**

7.255,64 €, BEZa barne

## BERTSOLARISMO

**Datak:** azaroak 5 eta 6

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, Nafarroako Bertsozale Elkartearekin lankidetzan,

Nafarroako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako bertsolari gazteen topaketa antolatu du lehenbiziko aldiz. Antolatzen diren jarduera osagarriei esker (lehiaketak, topaketak, askariak...), eskualde bakoitzeko ikasleek elkar ezagutu ohi dute, beren erkidegoaren barruan, betiere. Kasu honetan, lurralde euskaldunean bertsolaritza-eskola ugari daudenez gero, aukera izan dugu Iparraldeko gazteekin topaketa bat antolatzeko.

Nafarroako Gobernuak gazteria-politikaren arloan burutu nahi dituen estrategien baitan kokatzen da aipatu bilera, esaterako, arte- eta kultura-topaguneak sortzea.

noticias de Navarra

INICIO | VECINOS | CULTURA Y OCIO | POLÍTICA | OPINIÓN | SOCIEDAD | OSASUNA

**Encuentro de bertsolaris en Santesteban. Siete artistas harán mini residencias en Huarte**

Los seleccionados unirán múltiples lenguajes escénicos en el centro de arte contemporáneo

Sábado, 5 de Noviembre de 2016 - Actualizado a las 08:09h

Tuitear | Me gusta | Compartir

PAMPLONA - Josune Gorostegui, Estibiu Arroyo, Ghislaine Verano, Roberto Romero, Beatriz Bermúdez, Carmen Larraz y Garazi Peio han sido las personas seleccionadas para llevar a cabo una mini residencia como grupo de trabajo en prácticas escénicas en el Centro Huarte. Las residencias, que se han iniciado el 2 de noviembre, forman parte de la programación del Festival de Danza Contemporánea de Navarra (DNA).

Desde el Centro Huarte se destaca la buena acogida y el alto nivel de las solicitudes presentadas. Procedentes de distintas localidades navarras, las personas seleccionadas vienen de diferentes ámbitos artísticos relacionados con las prácticas escénicas, como son la danza, el documental y el teatro. Las y los artistas podrán trabajar de manera individual, colectiva, o simplemente compartiendo espacio. Durante la residencia cada participante hará un seguimiento al resto para que el intercambio de opiniones facilite el proceso de creación. También podrán sugerir prácticas colectivas para el grupo. Las personas seleccionadas percibirán 700 euros para el desarrollo de su residencia. Al finalizar el mes de trabajo se harán muestras abiertas al público. - D.N.

*las claves*

Un total de 26 jóvenes de Navarra e Iparralde participarán en la cita, que se celebra entre hoy y mañana

PAMPLONA - Un total de 26 de jóvenes bertsolaris de Navarra y Lapurdi-Baja Navarra-Zuberoa participarán en el primer Encuentro de jóvenes bertsolaris de Navarra organizado por el Instituto Navarro de Deporte y Juventud en colaboración con Nafarroako Bertsozale Elkartea

El encuentro se celebrará entre hoy y mañana en el albergue Belbieretxea de Santesteban, propiedad del Instituto Navarro de Deporte y Juventud. En él se darán cita 15 jóvenes de Navarra y 11 de Iparralde de diversas bertso-eskola, con edades comprendidas entre 14 y los 17 años.

Este encuentro se enmarca en el ámbito de las estrategias que el Gobierno de Navarra tiene previsto llevar a cabo en materia de política de Juventud para la creación de puntos de encuentro artísticos y culturales entre jóvenes.

A lo largo del fin de semana los participantes realizarán también diversas actividades relacionadas con el bertsolarismo y la improvisación oral: un taller de hip-hop, una actuación con los bertsolaris Julio Soto y Sustrai Colina, juegos y talleres... El encuentro finalizará con una actuación en la que participarán todos estos jóvenes bertsolaris. - D.N.

Azaroaren 5ean eta 6an gauzatu da ekimena, Doneztebeko Belbieretxea aterpean, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren jabetza dena.

Lurralde ezberdinetako gazteen arteko harremanak bultzatzeko eta bertsolaritzaren eta euskararen erabileraren bitartez esperientziak partekatzeko helburuz, topaketak arrakasta handia izan du. Ikasleak hasiera-hasieratik jarri dira harremanetan; areago, ilusioz beterik parte hartu dute proposatutako jarduera guztietan, euskaraz hitz egin dute elkarrekin zein irakasleekin eta ezin hobeto pasatu dute inprobisatzen.

### Parte-hartzaileak

Hasiera batean 26 parte-hartzaile baziren ere, azkenean Barañaingo 4 ikasle eta Lapurdiko beste 3 ezin izan ziren etorri; hortaz, 19 parte-hartzaile izan dira guztira (11 Nafarroakoak eta 8 Iparraldekoak). Denak 14 eta 17 urte bitarteko gazteak.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: 19 gazte: 10 emakumezko (%52,6) eta 9 gizonezko (%47,4).

Irakasleei dagokienez, guztiak dira

Bertsozale Elkarteko langile adituak, irakasleak eta bertsolariak. Orotara, sei irakaslek antolatu eta gainbegiratu dute topaketa; lau Nafarroakoak ziren (Estitxu Arozena, Xabier Terreros, Iker Gorosterrazu eta Aitor Irastortza) eta Iparraldekoak beste biak (Aimar Karrika eta Odei Barroso).

**Balioespena**

Erkidego desberdinetako gazteen lehen topaketa hau gogobetegarria eta emankorra izan da oso. Hori uste dute ikasleek beraiek; izan ere, taldearen parte sentitu dira lehen unetik, sormenezko giro ludiko ezin hobean. Nafarroako Bertsozale Elkarteak, bestalde, oso ontzat eman du ekitaldia, dinamika bera eta gazteen parte-hartze aktiboa direla eta. Jarduera guztiek bete dute bertsolaritza eta ahozko adierazpena sustatzeko xedea, eta bereziki ona izan da euskara soilik erabili izana topaketa osoan zehar erlazionatzeko (oso ohikoa ez bada ere gazteen artean).

Harrera hobea izan dutenen jardueren artean aipatzekoak dira bertsolaritza/rap lantegia eta Julio Soto eta Sustrai Colina bertsolarien emanaldia. Halaber, harremanetan hasi dira elkarrekin; horrek berebiziko garrantzia du etorkizuneko jarduerak egiteko (lehiaketak, topaketak, kanpamentuak...) eta bertsolaritza-eskolen sarea sendotzeko.

Elkartetik eskerrak eman nahi diogu Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari sustatutako ekimenagatik, aukera eman baitigu esperientzia hori aurrera eramateko; espero dugu elkarrekin lan egiten jarraitu ahal izatea topaketa urtez urte egin ahal izateko.

**Aurrekontua**

3.950 €, BEZa barne

## GAZTE-TXARTELAREN BIDAIA-ASEGURUA (MODALITATE KLASIKOA)

Gazte-txartelaren jabe diren gazteentzako bidaia-asegurua kontratatzen da modalitate klasikoan (2.500 gazte).

Urtebete dago indarrean, 2016ko irailaren 1etik aurrera, eta urtero luza daiteke.

**Asegurudunak:** Nafarroako gazte-txartelaren (modalitate klasikoa) jabe diren gazteak, 14 eta 30 urte bitartekoak, biak barne.

**Aseguruaren helburua:** Laguntza-estaldura bidaian asegurudun txartelaren jabea hiltzen bada, istripua badu edo gaixotasuna izanez gero bidaian dagoenean.

**Estaldurak erabiltzeko esparrua:** Espainian eta munduan zehar balio du bermeak, asegurudunaren ohiko etxetik 30 kilometroko ingurutik at.

**Bermeen eragina eta iraupena:** Aseguru honen bermeek asegurudunen joan-etorrietan eta egonaldian izanen dute eragina, estalduren geografia-esparruaren barruan. Ez dira ondoz ondoko 90 egun baino gehiagoko egonaldiak sartzen.

**Estalitako prestazioak:** Pertsonen arriskua (titularrak egindako bidaian heriotza, istripua edo gaixotasuna izanez gero):

**Estaldurak emateko sistema:** Telefonoz eskatu beharko da laguntza; asegurudunaren izena, poliza kolektiboaren zenbakia, non dagoen eta bertako telefono-zenbakia adierazi beharko dira hots egiterakoan, baita arazoa azaldu ere.

Honako telefono hauetara deitu daiteke:

– Espainiatik, telefono-zenbaki honetara: 902.***.***
– Atzerritik, telefono-zenbaki honetara: +34 91.***.**.**

**Aseguruaren prezioa:** Kontratu honen prestazioak Erakunde hartzaileak igorritako asegurudun txartelari lotuta egonen dira, modu bereiziezinean, poliza indarrean dagoen

bitartean; titularreko 0,3625 €-ko prima ezarriko da, eta unean-unean legearen arabera aplikagarri diren zerga

eta errekarguak aplikatuko dira.

**Txartel kop.:** 2.500 gazte-txartel.

Hori guztia dela eta, honako hau da aseguruari aplika dakiokeen prima, URTERO LUZA DAITEKEENA:

| | |
|---|---|
| Prima garbia | 96,25 € |
| Zergak | 55,73 € |
| AKP | 0,00 € |
| Prima, guztira | 961,98 € |

Gordailuko gutxieneko prima garbitzat hartu eginen da prima hau; beraz, hurrengo atalean ezarritakoari jarraikiz erregularizatu ahal izanen da.

**Primen erregularizazioa:** Aseguruaren indarraldia amaitzean, horrek iraun bitartean izan den ASEGURUDUN TXARTELEN TITULARREN kopurua jakinarazi beharko dio Erakunde hartzaileak ASEGURATZAILEARI, bermatutako aldia erregularizatze aldera.

ASEGURATZAILEAK PRIMA erregularizatuko du, kasuan-kasuan, Erakunde hartzaileak aseguruaren hasieran aitortutako TITULAR kopuruaren eta aseguruaren indarraldia amaitzean aitortutako TITULAR kopuruaren arteko aldearen erdiari urteko PRIMA garbia aplikatuz. Erregularizazioko PRIMA garbiari eta berritzeko PRIMA garbiari unean-unean legeari jarraikiz aplikatzekoak diren zergak eta errekarguak aplikatuko zaizkie.

**Klausula gehigarria:** Erakunde hartzaileak bere gain hartzen du Asegurudunei aipatu Baldintzetan xedatutako hitzarmenak biltzen dituen aseguru-ziurtagiriak emateko ardura.

**Datuak babesteko klausula:** Datuak babesteari buruzko indarreko araudia betez, onartzen duzu ematen dizkiguzun datuak, baita osasun-arlokoak ere, CAJA DE SEGUROS REUNIDOS, Compañía de Seguros y Reaseguros, SAk (CASER) kudeatutako fitxategi automatizatu batean tratatu daitezen, egindako proiektuari jarraikiz. Baimena ematen duzu, halaber, dagokion poliza sinatuko ez balitz ere, gure produktuei eta aseguru-zerbitzuei buruzko informazioa helarazteko erabil daitezen datuok.

Eskatzaileak emandako informazioaren arabera gauzatu da honako proiektu hau; arriskuaren benetako ezaugarriekiko alderik egonen balitz, polizaren kontratazioa bertan behera geratuko litzateke edo, bestela, poliza kontratatzeko onarpen-baldintza berriak zehaztu beharko lirateke.

Interesduna jakinaren gainean egoteko da proiektu hau; ez da, hortaz, aseguru-proposamentzat hartuko Aseguru Kontratuen 50/80 Legeko 1. atalaren 6. artikuluak ezarritakoaren arabera.

**Aurrekontua**

923,41 € BEZa barne

## BAZTAN ABENTURA PARK (BKZ, SL)

**Datak:** urriak 30 eta abenduak 18

Gazte-txartelaren jabe diren 14 eta 17 urte bitarteko 64 gazterentzako multiabentura-jarduerak Baztanen. Urriaren 30ean eta abenduaren 18an (larunbatak) egin zen jarduera, eta ekintza hauek izan zituen barnean:

- Zanka uharkaren inguruko arroilak jaistea; bertan, izan ere, ur-parke naturala sortu da, ur-txirristekin, 2-4-7 metroko jauziekin eta 8-10-12-16 metroko rappelekin, 200 metroko arroila jaisteko jauzi, txirristekin eta abar.
- 200 metroko via ferrata handia, ikuspegi paregabeekin: Arroka igotzean datza kirol-modalitate hau, horman sartutako grapez eta segurtasun-soka batez lagunduta, erabat seguru joateko.
- Tirolina handien zirkuitua (Canoping), 300 eta 460 metro bitarteko luzerakoak eta 120 metroko altueran, bista ikusgarriekin.
- Arborismoa arnesarekin.
- Elikadura-mantenua.
- Garraioa Lizarratik eta Iruñetik.
- Aseguruak.

**Partaidetza:**

Hasieran jarduera 64 gazteentzat kontratatu bazen ere, 28 gazte joan ziren azkenean.

| | |
|---|---|
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA | 28 gazte: 15 emakumezko (%53,6) eta 13 gizonezko (%46,4). |
| JATORRIA | 22 gazte Iruñekoak (%79) eta 6 Lizarrakoak (%21). |

**Aurrekontua:**

5.799,20 € BEZa barne

## OGI-LANTEGIA EDORTA SALVADOREN ESKUTIK (PAN BAKER)

**Datak:** urriak 29 eta abenduak 17

Ogi- eta pizza-lantegia Edorta Salvadoren eskutik (Pan Baker), Doneztebeko Belbieretxea gazteen aterpean, urriaren 29an eta abenduaren 17an (larunbatak), 14 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta, honako metodologia honi jarraituz:

Aurreko egunean prestatutako orea banatutakoan, ikasle bakoitzak bere orea lantzen hasi zen, baguette bat egiteko.

Baguetteak harrotu bitartean, osagai berriei ekin zieten ikasleek (irina, ore ama eta gatza), aldez aurretik pisatuta, ondoren ogia oratzen hasteko. Irina mota ezberdinei buruzko azalpena ere jaso zuten ikasleek: irinaren indarra, glutena zer den, zeliakiaren arazoak, intolerantziak...

Ore ama prestatzeko prozesua azaldu zieten hurrena ikasleei: zer den, zein zereal erabiltzen diren edo zein diren onenak, ezaugarriak, onurak, etab.

Lehen urratsean ikasleek prestatu zituzten baguetteak labean sartu ziren.

2. urratseko orea lantzen amaitu eta hozkailuan gorde zen, prest, ikasle bakoitzak bere etxean errepikatu ahal izan zezan prozesua.

**Partaidetza:**

| | |
|---|---|
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 28 gazte: 15 emakumezko (%53,6) eta 13 gizonezko (%46,4). |
| JATORRIA: | 22 gazte Iruñekoak (%79) eta 6 Lizarrakoak (%21). |

**Aurrekontua:**

2.500 € BEZa barne

## MULTIABENTURA IGANTZIKO IRRISARRI LAND PARKEAN

**Datak:**

urriak 22 eta 29; azaroak 12

Gazte-txartelaren jabe diren 18 eta 30 urte bitarteko 200 gazterentzako multiabentura-jarduerak Igantziko Irrisarri Land parkean. Urriaren 22 eta 29an eta abenduaren 5ean eta 12an (guztiak ere larunbatak) egin zen jarduera hau. Honako ekintza hauek egin ziren:

- Arborismoa arnesarekin.
- Canopy tirolinak, lau guztira
- 140 metroko tibetar zubia interpretazio-ibilbidean, egur-ikatzaren museo eta guzti
- Zentzumenen ibilbidea
- Discgolf
- Pendulua da jarduera honen plater nagusia, parkeko bi tirolina luzeenekin. Hara igotzera ausartzen ez direnentzat, beste ibilbide bat prestatu dugu Segway delakoarekin.

Bazkaria parte-hartzaileen kontura da; hala bada, ogitarteko bat ekar dezakete etxetik, edota parkeko tabernan bertan jan, ogitartekoak, plater konbinatuak, menuak eta abar eros baitaitezke.

Eskuarki, hau da jardueren prezioa:

| | |
|---|---|
| * Super emoziona + pendulua | 57 € pertsonako |
| * Abentura | 35 € pertsonako |

Gazteriaren Institutuarentzat pertsonako 30 €-tan ezarri dugu prezioa.

**Partaidetza**

| | |
|---|---|
| Urriak 22: | 55 gazte: 38 emakumezko eta 17 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| Urriak 29: | 55 gazte: 33 emakumezko eta 22 gizonezko. Denak Iruñekoak. |
| Azaroak 12: | 40 gazte: 29 emakumezko eta 11 gizonezko. Denak Iruñekoak, Lizarrako 5 izan ezik. |
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 150 gazte: 100 emakumezko (%66,7) eta 50 gizonezko (%33,3). |
| JATORRIA: | Denak Iruñekoak (%98), Tafallako 5 izan ezik (%2). |

**Aurrekontua:**

7.260 €, BEZa barne + 2.430 €, BEZa barne (onievas autobusak)

## BIDEO-JOKOEN ETA ENTRETENIMENDU DIGITALAREN I. "YOUWIN 16" AZOKA

**Datak:** azaroaren 18tik 20ra

Iristear da YouWin Iruñera! Los 40 katearen bideo-joko eta musika-bira iristear da Nafarroara. Baluarte Auditorioan izanen da lehen edizio hau, azaroaren 18tik 20ra, eta aisialdi digitalaren eta bideo-jokoen eremu tematiko ugari izanen ditu.

Aretoa hainbat gune tematikotan banatuko da, erabiltzaileek aukera izan dezaten interesgarritzat jotzen dituzten bideo-jokoez eta jarduerez gozatzeko:

BIDEO-JOKOAK / TXAPELKETAK / COSPLAY / HAURRENTZAKO EREMUA / 2.0 HEZKUNTZARI BURUZKO

HITZALDIAK / DJ SAIOAK / 40 PRINCIPALES KATEKO LOKUTOREAK / LEHIAKETAK

YOUTUBER-AK / MUSIKA-EMANALDIAK

**Honako hauek hartzen dira barnean:**

YOUWIN-EN BABES OROKORRA, publizitate estatiko eta guzti (babeslearen kontura).

MARKAREN AIPAMENAK, BABESLE den aldetik, gure irratietan (+600) ekitaldia sustatzeko.

ESTATUKO YOUWIN WEBGUNEA: BABESLEAREN webgunearekin lotura duen logotipoa edo marka.

IN SITU: Produktua erakusteko aukera BEREZKO ERAKUSTOKIAREKIN edo saltzeko aukera ekitaldian zehar. (Galdetu irratiari).

Lokutoreak eta bozgorailuak BABESLEA aipatzea EKITALDIAN.

**Sarreren prezioa**

| | | |
|---|---|---|
| Azaroak 18, ostirala: | Prezio arrunta: 7 € | **Gazte-txartelarekin: 5 €** |
| Azaroak19, larunbata: | Prezio arrunta: 8 € | **Gazte-txartelarekin: 6 €** |
| Azaroak 3, igandea | Prezio arrunta: 7 € | **Gazte-txartelarekin: 5 €** |
| **3 EGUNEKO ABONAMENDUA** | Prezio arrunta: 18 € | **Gazte-txartelarekin: 15 €** |

**Aurrekontua:**

6.043,95 €, BEZa barne

## SANTASPASCUAS JAIALDIA – AZALERATZEN ARI DIREN SOINUAK

**Data:** abenduaren 2tik 28ra

www.santaspascuas.com

Santaspascuas jaialdiak Iruñeari kultura ekitaldi berri bat oparitzea du xede: neguko ekitaldi berri bat, hiriaren erdigunean eginen dena, Gabonetarako proposamen berri bat.

Jaialdia finkatzeko, hazteko eta erreferentziazko jaialdi bilakatzeko itxaropenarekin sortu da. Bestelako jai-giro freskoago batekin, Eguberri sasoi honetan aisialdirako beste aukera batzuk eskaini nahi ditu jaialdiak.

Senitartekoekin elkartu, erosketak egin eta poteoan ibiltzekoa den garai honetan, zergatik ez da izanen bada rock-and-rollerako astirik?

Santaspascuas jaialdia bereizten duten ezaugarrietako bat da espazioen eta edukieraren kalitatearen alde egiten den apustua. Horretarako, bi agertoki izanen dira, bi proposamen mota desberdinetarako: Zentral Kafe Antzokia, jai-giro handiagokoak diren kontzertuak egiteko, eta Baluarteko Ganbera Aretoa, non musika proposamen pribatu eta bereziagoak eginen diren, eserita, musika beste modu batean sentiaraziko dizutenak.

Santaspascuas jaialdiak Espainiako pop-rockaren eszenako onena eta azaleratzen ari diren talde berriak uztartzen ditu, betiere aintzat hartuta kalitatearen aldeko apustua.

**Parte-hartzaileen zerrenda, prezioak, ordutegiak eta tokia**

| | | |
|---|---|---|
| Abenduak 2 | Zentral Kafe Antzokia, 20:15 | Santaspascuas jaialdiaren aurkezpen-festa |
| León Benavente / Hidrogenesse / Trepàt | Kafe Zentral Teatro 20:00H | Atom Rhumba/Bigott/Souvenir/ El Columpio Asesino/Dj Set |
| Abenduak 25 | Zentral Kafe Antzokia, 20:00 | Atom Rhumba / Bigott / Souvenir / El Columpio Asesino / Dj Set |
| Abenduak 26 | Baluarte (Ganbera Aretoa), 19:30 | Christina Rosenvige / Anari |
| Abenduak 28 | Baluarte (Ganbera Aretoa), 20:00 | Micah P. Hinson / Maika Makovski |

Abenduaren 2an eta 25ean Zentral Kafe Antzokian izanen diren kontzertuetarako sarreren prezioa 18 € da aldez aurretik erosita, eta 21 € leihatilan bertan erosiz gero. Abenduaren 26an eta 28an Baluarten izanen diren kontzertuetarako sarreren prezioa 16 € da aldez aurretik erosita, eta 19 € leihatilan bertan erosiz gero.

Aldez aurretik erosteko guneak:

www.baluarte.com, www.zentralpamplona.com

www.santaspascuas.com

30 sarrera zozkatuko dira Nafarroako Gazte-txartelaren titularren artean, bai eta %20ko 60 deskontu-kode ere abenduaren 2ko eta 25eko kontzertuetara joateko ZENTRAL aretoan

30 sarreren zozketaren datuak

30 SARREREN ZOZKETAREN BANAKETA: 18 emakumezko (%60) eta 12 gizonezko (%40).

**Aurrekontua:**

7.260 €, BEZa barne

## PAISAIA-ESPERIENTZIAK

**Datak:** abuztuaren 28tik irailaren 9ra




### "San Urbano es para mí..." film laburren lantegia eta lehiaketa

Kultura-programa diseinatu dugu, "San Urbano 2016. Cantos a la luna llena" izenekoa. Helburua da toki honekiko lotura sendotzea (edo, kasuan-kasuan, sortzea).

Ultzama Aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten ibarrei zuzenduta dago jarduera hau: Odieta, Lantz, Atetz, Ultzama, Anue eta Basaburua. Nafarroako Mendian, Iruñearen iparraldean, kokaturiko landa-eremua da hori. Ibar horietako biztanleria (3732 herritar) biztanle-gune txikietan biltzen da (61 herri).

Biodibertsitatea finkatzen laguntzen duten basoen, belardien eta laboreen mosaikoak eratzen du Nafarroako ibar lasaien bereizgarri den paisaia eder hori, turista askoren helmuga dena.

Gazteriari dagokionez, eta Mankomunitateak udal-erroldak kontsultatu ostean emandako azken datuen (2016) arabera, 18 eta 25 urte bitarteko 300 gazte bizi dira bertan.

### Deskribapena

Film laburren lantegia egitea San Urbanoko ermitari buruz: ondarea, natura, bizipenak... Ekitaldiari azken emateko, lehiaketa bat antolatuko da, non lantegian izan diren pertsonek nahiz kanpokoek parte hartu ahal izanen baitute. Emaitza herritar guztiei erakutsi eginen zaie.

Hartara, hiru fase bereiz daitezke:

- Film laburren lantegia. Oinarrizko ezagutzak irakatsiko zaizkie bertan gazteei, aukera izan dezaten beren sortze-lana egiteko.
- Film laburren lehiaketa. Bi kategoria egonen dira gutxienez: 14 eta 17 urte bitarteko gazteak eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteak
- Deliberamendua eta jendaurreko proiekzioa.

### Helburu orokorra

Lurraldeko gazteek tokiko ondarea bizi eta hedatu dezaten, belaunaldi-arteko izaera duen kultura-prozesu baten bitartez.

### Berariazko helburuak

Eskualdeko kultura-jarduera piztea, batez ere gazteriarekin zerikusia duena.

Beren sormena garatzen lagundu diezaiekeen jarduera eskaintzea lurraldeko gazteei.

Gure kultura-ondarearekiko lotura sendotzea, haren iraunkortasuna bermatze aldera, gazteei zuzendutako proposamenen bidez.

Hainbat belaunaldi jarduera batean sartzea, xede-publikoa gazteak izanik ere adin guztietako jendeak esku hartzen duelarik.

Lantegian izan diren pertsonek nahiz kanpokoek parte har dezakete lehiaketan.

Mugikorra erabiliko da grabaketak egiteko.

**Deliberamendua eta jendaurreko proiekzioa**

Aurkeztutako film laburren kopuruaren arabera, kategoria bakoitzeko 3 film labur onenak aukeratuko dira, bai eta jendaurrean proiektatu ere, honako helburu honetarako:

Epaimahaiaren erabakiaz gain,

herritarrek beraiek aukeratutako film laburrak saritzeko.

20-25 bat pertsonak hartuko omen dute parte proiektuan; beharrezkotzat joz gero, azpitaldeak ere egin litezke, une jakin batzuetan giro pribatuagoa sortu eta hausnarketarako gogoa piztearren. Adin ezberdinak aintzat hartuz eginen litzateke banaketa.

**Partaidetza-datuak:**

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: 12 gazte: 6 emakumezko (%50) eta 6 gizonezko (%50).

**Aurrekontua**

5.929 €, BEZa barne

## ZUBIRI-IRUÑEKO MARATOI ERDIA

**Datak:** urriak 22, larunbata

Zaldiko Kluba, Diario de Noticias eta M&M osatzen dugunok pozarren aurkezten dizuegu Nafarroako maila goreneko kirol-ekitaldi berri bat: ZUBIRI-IRUÑEKO lasterketaren 18. edizioa.

Jarraitutasuna du xede lasterketa berri honek, lehenbiziko aldiz Zubiri eta Iruñea uztartzen dituena. Ibilbideak Erdi Aroko bi zubi adierazgarri lotuko ditu, Zubiriko Amorruaren Zubia eta Iruñeko Madalenaren Zubia direlakoak, alegia, probaren nortasunaren zantzu. Parte-hartzaile orok gozatu dezan diseinatu da ibilbidea. Donejakue Bidearen alde piriniotarraren zati batetik igaroko da, Arga ibaiarekiko paraleloan. 21 kilometro luze izanen da ibilbidea, eta distantzia horrek, hain zuzen ere, ematen dio probari maratoi erdiaren kategoria. Lasterketa udazkenean izanen da. Sasoi horretan Nafarroan ohikoa den paisaia bukoliko ederra izanen dute lagun korrikalariek helmugaraino. Lurraren orografia leunak aukera emanen du jende askok lasterketan parte har dezan, nahiz eta distantzia bera erronka gogorra izan.

Kirola, natura, dinamismoa, tokiko enpresen ekintzailetza eta Nafarroak turismoaren eta gizartearen arloan eskain dezakeena sustatzen gogotsu diharduten hiru erakunderen ahaleginaren, elkarlanaren eta lan gogorraren emaitza da lasterketa.

Antolaketaren alorrean eskarmentua handia duten Zaldiko Kluba eta M&M enpresa izanen dira lasterketan, proba behar bezala antolatu eta garatzearen berme. Bestalde, Diario de Noticias egunkariak eta horren argitaletxe "Grupo Noticias" delakoak zeresan handia izanen dute ekitaldiaren sustapen eta hedapenean, komunikatzeko eta informazioa helarazteko duten indarraz baliatuta.

Antolatzaileek bereziki kontuan izanen dute gizartearen arloa, eta diru-sarreren zati bat DYA NAVARRA erakundeari emanen zaio.

**Ibilbidea**

Zubiri - Iruñea

IRTEERA: Zubiriko erdigunea, 11:00etan.

IRITSIERA: Iruñeko Udalaren plaza

TIPOLOGIA: Maratoi erdiko lasterketa (21 km)

**Adina:** 18 urtetik aurrera.

**Parte-hartzaile kopurua:** Aurreikuspena: 1.000/1.500

**Irabazia edo salmenta Nafarroako Gazte-txartelaren titularrentzat**

65 dortsalen zozketa.

65 dortsalen zozketaren datuak

DORTSALEN ZOZKETAREN BANAKETA: %11,4 emakumezkoak eta %88,6 gizonezkoak.

**Aurrekontua**

1.430 €, BEZa barne

## GAZTE-TXARTELAREN FLASHMOB + BIDEO-GRABAKETA

**Datak:** azaroaren 18tik 26ra

Diario de Navarra Domingo, 27 de noviembre de 2016 PAMPLONA Y LA CUENCA NAVARRA 37

La lluvia no amedrentó a los jóvenes y niños participantes en el baile, que se movieron al ritmo de la canción *Cheap Thrills*.

# 'Flashmob' de más de 140 personas para visibilizar a los jóvenes

**La iniciativa busca, además, promocionar las ventajas del Carné Joven y ya ha tenido lugar en Estella, Tudela y Tafalla**

**Algunos de los participantes aprendieron la coreografía a través de YouTube y se unieron al baile**

IZARA OLLO
Pamplona

Más de un centenar de jóvenes y niños se arremolinaban frente a la fachada del Teatro Gayarre alrededor de la una de la tarde de ayer. Comenzó a sonar la música, y todos se lanzaron a bailar en el *flashmob* organizado por el Instituto Navarro de Deporte y Juventud, que busca promocionar el Carné Joven y visibilizar a la juventud navarra.

Se habían inscrito previamente 140 personas, pero hubo adicionales que se aprendieron la coreografía de YouTube y se unieron para pasarlo en grande a pesar de la tenida lluvia que cayó en esos momentos. El mensaje que transmitía la canción *Cheap Thrills*, de la cantante australiana Sia, quedaba más que claro: no se necesita mucho dinero para pasarlo bien.

"Muchos jóvenes demandan que el ocio no es accesible a ellos", explicaba Adela González, subdirectora de Juventud. El Carné Joven quiere cambiarlo, y permite obtener descuentos jóvenes a la calle, con el fin de sacar "toda esa energía que llevan dentro", contaba González.

La capital navarra no es el único lugar en el que cientos de personas se han movido al ritmo de esta misma canción. Estella, Tafalla y Tudela también acogieron este evento en semanas pasadas. En total, unos 350 bailarines han llevado la alegría a distintos puntos de la Comunidad Foral.

La coreógrafa y profesora de la Escuela de Danza Ravel, Aida Martínez Fernández, se mostraba "satisfecha" con el resultado. "Mucha gente ha venido porque se había aprendido la coreografía por su cuenta y, al llegar aquí, se le ha asignado una parte de la canción en la que debería entrar", explicaba. Además de Martínez, también formaban parte del grupo de profesores y ayudantes de Pamplona: Amaia Muñoz, Aster González, Laura Alonso, Rafael Arenas, Fran Chamorro, Nekane Rodríguez y Maite Goñi.

**"Divertido y enriquecedor"**

Tras el baile, muchos de ellos compartían sus experiencias en torno a la danza. Es el caso de Uriel Salvador Ordóñez, de 18 años y bailarín en Ravel, y Dana González Charvi, que a sus 14 años lleva ya seis bailando. "Es muy divertido y enriquecedor bailar con gente extraña, que no pertenece a la misma escuela de danza", explicaba Salvador.

Para coordinar todo este despliegue, técnicos de juventud de otras localidades, así como profesores de escuelas de danza de toda Navarra, han trabajado durante meses mano a mano.

La encargada de producir el *flashmob* es la directora de Quiero Teatro, Belén Álvarez. "La experiencia es muy bonita y alegra ver la tensión de la gente que participa", contaba. "El lenguaje corporal da alegría. Eso es lo que hemos querido sacar a la calle.

A la derecha, de rosa, la coreógrafa del flashmob Aida Martínez Fernández.

Quiero Teatro erakundeak Gazte-txartelarentzat garatu duen proiektuaren baitan, flashmob bat antolatu da Nafarroako bost herritan, gazteria ikusgai egitea eta Gazte-txartela eta horrek eskaintzen dituen abantailak sustatzea helburu dituena.

Flashmob delakoa antolatutako ekintza da, taldekoa, toki publiko batean burutzen dena denbora-tarte labur batez. Kasu honetan, Siaren Cheap Thrills abestiarekin egiten da dantzan.

Parte-hartzaileek kamiseta bat jasoko dute opari, Gazte-txartelaren irudia eta horrek eskaintzen dituen abantailen mezua helarazten dituena.

### Herri parte-hartzaileak

Hasieran foru-komunitatearen geografian estrategikoki sakabanatutako 5 herri hautatu ziren, parte hartzen duten pertsonengandik ahalik eta gertuen egoteko. Lizarra, Tutera, Tafalla, Altsasu eta Iruña dira herriok.

Azaroaren 15ean bertan behera geratu zen Altsasuko flashmob ekintza, arazo bat egon baitzen kolaboratzailearekin; izan ere, ez zuen koreografia prestatu klaseetan eta, beraz, gazteek ere ez zuten espero bezala erantzun.

Azkenean, hortaz, honako toki hauetan egin zen grabaketa:

| Eguna | Herria | Lekua | Ordua |
|---|---|---|---|
| 2016/11/18, OSTIRALA | Lizarra | Pza. de la Estación | 9:00 |
| 2016/11/19, LARUNBATA | Tutera | C/ La carrera | 13:00 |
| 2016/11/20, IGANDEA | Tafalla | Pza. Navarra | 13:00 |
| 2017/11/26, LARUNBATA | Iruña | Carlos III, 1 | 13:00 |

### Tutoretza-bideoaren grabaketa

Gazteek koreografia ikas dezaten, tutoretza-bideo bat grabatu da. Egun, 2.687 ikustaldi ditu bideoak YouTube plataforman.

Koreografiaren esteka Gazte-txartelaren YouTube kanalean:
https://youtu.be/14m4Eh_oj9Y

### Segimendua eta kamisetak banatzea

Halaber, prozesuaren segimendu zehatza egin da, eskakizunak eta gorabeherak aintzat hartuz, koordinazio-taldea une oro bertan zegoelarik. Gazte-txartelaren kamisetak banatu dira lau herrietan, 400 baino gehiago guztira.

### Partaidetza-datuak

Herri ezberdinetan Flashmob ekintzak egindakoan, parte-hartzeari buruzko datu hauek lortu dira, orotara 387 lagunek parte hartu dutelarik:

| | Lizarra | | | Tutera | | | Tafalla | | | Iruña | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| <10 | 0 | 1 | 1 | 1 | 12 | 13 | 0 | 1 | 1 | 5 | 15 | 20 |
| 10 - 14 | 1 | 9 | 10 | 5 | 65 | 70 | 0 | 14 | 14 | 3 | 35 | 38 |
| 14 - 30 | 0 | 18 | 18 | 5 | 24 | 29 | 0 | 16 | 16 | 14 | 73 | 87 |
| >30 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 | 3 | 9 | 12 |
| BESTE BATZUK | 0 | 2 | 2 | 2 | 19 | 21 | 0 | 3 | 3 | 3 | 27 | 30 |
| | | | 31 | | | 135 | | | 34 | | | 187 |
| GUZTIRA | | | | | | | | | | | | 387 |

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: 387 gazte: 345 emakumezko (%89,1) eta 42 gizonezko (%10,9).

**Balioespena:**

Bete dugu ekintza honekin erdietsi nahi genuen gazteen parte-hartzearen helburua, 14 eta 30 urte bitarteko 150 pertsonak parte hartu baitute.

Aipatzekoa da bideoa grabatzeaz gain, taldean ikasteko eta ondo pasatzeko prozesua ere izan duela berekin ekintza honek. Dantza prestatzean banako zein taldeko alderdi ugari landu dituzte lagunek, hazteko garrantzitsuak direnak.

Gazteriaren etxeko begiraleen esku-hartzea ere oso positiboa izan da; Lizarran, adibidez, sutsuki animatu eta lagundu dituzte gazteak.

Lurraldetasuna garrantzizko beste alderdi bat izan da, Iruñea ez baita izan ekintzaren erdigune bakarra.

Herri bakoitzaren bideoak ikus daitezke hemen:

https://www.youtube.com/channel/UCwSM51V3k4qbqPBBlOPluxQ

Lizarra: https://youtu.be/11pTq3eOsRc

Tutera: https://youtu.be/9N6n2Piytvs

Tafalla: https://youtu.be/bqQDSCuxKZ8

Iruña: https://youtu.be/e1lEc_Hjx0Y

**Aurrekontua**

5.989 €, BEZa barne + 2.662 €, BEZa barne, bideoa grabatzea eta editatzea barne

## GURUTZE GORRIKO BOLUNTARIOAK

**Datak:** abendua

Lehen sorospenei eta DESA desfibriladore erdiautomatikoaren erabilerari buruzko 20 orduko hiru ikastaro eman ziren abenduan ASVONAko boluntarioak Mediterraneoko jokoetarako prestatzeko. Gazteek lehen sorospenen gaineko prestakuntzari buruz Gazteriaren II. Planean egindako eskakizunei erantzuteko sortu ziren ikastarook. Hauek izan ziren jorratutako gaiak:

- Sorospena: alderdi orokorrak.
- Autobabesa. Segurtasuna esku-hartzean.
- Hasierako ebaluazioa.
- Oinarrizko bizi-euskarria. Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB).
- DESA
- Odoljarioak eta shocka.
- Zauriak eta kontusioak.
- Erredurak eta termorregulazioaren gorabeherak.
- Hezur eta hezur-junturetako traumatismoak.
- Zaurituak mugitzea eta eramatea.

**Partaidetza**

| | |
|---|---|
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 43 gazte: 26 emakumezko (%60,5) eta 17 gizonezko (%39,5). |

**Aurrekontua**

4.200 €, BEZa barne

## SORMENEZKO IDAZKETA-LANTEGIA

**Datak:** Asteazkenero azaroaren 23tik 2017ko otsailaren 1era.

Doako ikastaroa Gazte-txartelaren titularrentzat.

Literatura-hizkuntza eta ikuspuntua

Sormenezko idazketa-lantegi trinkoa, izenburu honen pean: "Neu banaiz idazlea, zergatik dira hain arrotzak nire testuak?"

| | |
|---|---|
| *Modalitatea:* | Narratiba eta irakurketa. |
| *Data:* | azaroa, abendua, urtarrila eta otsaila. |
| *Ordutegia:* | 18:30etik 21:00etara. |
| *Saio kopurua:* | 8 saio, bakoitza bi ordukoa. |
| *Egutegia:* | Azaroak 23 eta 30 / Abenduak 14, 21 eta 28 / Urtarrila 11 eta 18 / Otsailak 1. |
| *Irakaslea:* | Roberto Valencia. |
| Partaide kopuru mugatua. | |

### Sarrera

Pertsona frankok idazten dute bakarrik daudenean, gazteak diren gorabehera. Idazketa adierazpidea da, baita ezagutzarako tresna indartsua ere. Alabaina, idazle gazte aunitzen gogoa, beren testuek halako kalitate bat erdiesteko, hutsean gelditzen da, idazteko tekniken berri ez dutelako. Literatura tradizioa da eta, tradizioa baita, bere baliabideez eta bere oinarriez hornitzen du bere burua. Ikastaro honen bitartez ezagutza horietariko batzuk ailegarazi nahi zaizkie ikasleei, modu argi, arin eta eskuragarrian ailegarazi ere.

**Helburuak:** Sormenezko gunea da honako hau; literatura-tradizioak eskaintzen dituen aukerarik interesgarrienetako batzuk azalduko dira lantegian. Fikzioen laborategia osatzen du lantegiak, non ikasle bakoitzaren sormen-aukerak aztertu eta lana bideratuko duen, irakasleak azaldutako teknikarekin bat.

### Deskribapena

Hizkuntza ez da beti idazlearen lagunik minena. Askotan, izan ere, zaila da norberaren asmoak paperean islatzea. Idazlearen lehengaiari buruz, hots, hizkuntzari buruz ez hausnartzeagatik gertatzen da hori, bai eta horren tresna nagusietako bat ez ezagutzeagatik: narrazioan ikuspuntua behar bezala erabiltzen ez jakiteagatik, alegia. Ikastaro honetan ikasiko da hizkuntza literarioa zer den eta nola funtzionatzen duen. Xehe-xehe azalduko da fikzio-idazlearentzat nagusienetarikoa den tresna: ikuspuntua. Hain zuzen ere, zer den eta zer tipologia dauden aztertuko da. Askotariko ariketa praktiko eginen dira, baliabide garrantzitsu hori barneratzeko. Bestalde, idazle ikastunek usuen erabiltzen dituzten literatura-mintzaira ezegokiak ikasiko dira, bai eta norbere idazkera finkatzeko konponbideak proposatu ere. Aldi berean, gainera, oraindik ere zehazteke dagoen literatura-lan klasiko bat irakurriko dugu, teorian ikasitako guztia sendotzearren.

**Gai-zerrenda**

1. Ahots narratiboa: zer den eta zenbat mota dauden. 2. Ikuspuntua. 3. Hitzezko sentikortasuna. 4. Hizkuntzaren tonu ezegokiak. 5. Literatura-lana irakurtzea (zehazteke).

**Ikasleak**

Sormenerako espazioa den aldetik, literaturan interesa duten gazte orori zuzendurik dago, baita diziplina horretan abiatu nahi dutenei ere. Azalduko diren teknikak erabili ahalko dituzte bai beren bizipenak idatzi nahi dituztenek bai fikzio hutsezko testuak idatzi gura dituztenek ere.

**Metodologia**

Eskoletan, ikasgai teoriko gutxi batzuk azalduko dira, kasu zehatzak aztertuko dira, kasu horiek ikasleekin eztabaidatuko dira eta, ondoren, ikasleek, irakaslearen tutoretzapean, ikasitakoa praktikan jarri beharko dute, nork bere testuak idatziz. Ikasgai bakoitzean, irakasleak testuak emanen ditu adibide gisa, azalpena argitzeko.

**Irakaslea**

Roberto Valencia (Iruña, 1972). Idazlea eta literatur kritikoa. 2010ean kontakizun-liburu bat argitaratu zuen, Sonría a cámara (Lengua de trapo, 2010). 2014an, berriz, Todos somos autores y público; hartan, gaztelaniazko sormenaren esparruko 17 sortzaile, pentsalari eta kritikari elkarrizketatu zituen. Literatur-kritika idazten du 2003az geroztik. Quimera aldizkariko liburu kritiken atala koordinatu du 2010ean eta 2011n. Iruñean, Auzolango topaguneko literatura-jardueren programa koordinatzen du 2009az geroztik. Literatura eta sormenezko idazketa eskolak eman ditu Auzolan liburu-dendan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Huarte Buldain Fundazioan. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak antolatutako Topaketak lehiaketako epaimahaian parte hartu du, literatura-arloan. Baita Nafarroako Gobernuak antolatutako Literatura Sormeneko Saria delakoan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutakoan ere. 22 Escarabajos. Antología hispánica del cuento Beatle antologian (Páginas de Espuma, 2009) parte hartu du, baita kontakizunen beste antologia batzuetan ere.

**Partaidetza**

| | |
|---|---|
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: | 13 gazte: 8 emakumezko (%61,5) eta 5 gizonezko (%38,5) |

**Aurrekontua**

850 €, BEZa barne

## ESCAPE ROOM ERRONKA

**Datak:** 2017ko urtarrilaren 9tik 21era.

Baluarteko Iruñea Beltzaren astearen testuinguruan, Iruñeko lehenbiziko escape room erronka antolatu du Gazte-txartelak.

Iruñeko aste beltzak berritasun ugari dakartza aurten. 2017ko urtarrilaren 17tik 21era bitartean izanen da, eta Gazte-txartela, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, Way Out Room eta Logical Escape Room elkarlanean aritu dira Iruñeko lehenengo escape room erronka antolatzeko: 'ESCAPE ROOM, ERRONKA'.

Parte hartu nahi dutenek 4 pertsonako taldeak eratu beharko dituzte, proposatzen diren bi erronketako edozeinetan lehiatzeko: 'TESLAREN ATARIA' edo 'OCTOPUS MISIOA' direlakoetan, hain zuzen ere; urtarrilaren 9tik 19ra bitarteko lanegunetan (biak barne) izanen da, eta bete gabe geratzen diren ordutegietan egin ahal izanen da erreserba.

Erronka bakoitzean puntuaziorik onena lortzen duten 2 taldeek (aintzat hartuko dira irteten emandako denbora eta zigorrak) finalean ikusiko dute elkar 'GALDEKETA' delakoan, urtarrilaren 21ean.

**Izena non eta nola eman.**

Oso erraza da izena ematea. Nahikoa da carnejoven.navarra.es webgunean sartzea, kasuan kasuko inprimakia betetzea, egin nahi duzuen erronka adierazita (bana taldeko), eta dagokion DESKONTU-KODEA jasotzea (6 eta 30 € bitartekoa). Hura jasotakoan, hautatutako escape room-aren webgunean sartu beharko du talde bakoitzak, erreserba gauzatzeko, eta dagokion laukian deskontu-kodea sartu.

**Izena emateko epea**

Abenduaren 15ean hasten da erronkan izena emateko epea.

Escape room fenomenoa

Estatuko hiri askok dute dagoeneko ondo pasatzeko jarduera berri hau; bertan, 60 minutu dituzte parte-hartzaileek itxitako gela batetik irteteko, logika eta behaketa erabiliz. Iruñean bi ditugu: Logical Escape Room, Alfonso el Batallador 9, beheko solairuan kokatutakoa, eta Way Out Room, Calderería 1, eskuineko solairuartean kokaturikoa. Erronkari ekiteko prest?

Iruñea Beltzaren hirugarren edizioak emaitza onak lortu ditu, eta parte-hartzaile kopuruak ere nabarmen egin du gora

## IRUÑEA BELTZA JAIALDIA

3.200 bat lagunek parte hartu dute antolatutako jarduera ezberdinetan, hau da, aurreko edizioan baino mila pertsonak gehiagok. Jaialdiak berebiziko garrantzia izan du beste behin ere hedabide eta sare sozialetan.

Baluarte Fundazioak eta Nafarroako Filmotekak Iruñea Beltza jaialdia antolatu dute, urtarrilaren 17tik 21era bitartean. Ondoz ondoko hirugarren urtez, jendeak oso ontzat eman du ekitaldia, 2016an baino mila pertsona gehiago izan direlarik. Zehazki, 3.200 lagunek baino gehiagok parte hartu dute Carlos Bassasek zuzendutako noir jaialdiaren baitan antolatutako jarduera desberdinetan. Jarduerok, bestalde, interes handia piztu dute gazteen artean. Zuzendari sortzailearen arabera, izan ere, "erreferentziazko

jaialdia" da Iruñea Beltza Estatuko noir topaketen esparruan. Haren hitzetan, "Gijón, Getafe, Bartzelona eta Valentziako anaia nagusien parean jartzen ari da apurka, bertara doazen estatuko egile ospetsuak zein jendearen helmenera jartzen dituen proposamenen barietatea eta originaltasuna direla eta".

Bost jardunalditan, Iruñea Beltzak literatura, zinema, gastronomia, antzerkia eta polizia-ikerketa bildu ditu genero beltzaren inguruan. Baluartez gain, hiriko beste bazter asko izan dira eszenatoki, besteak beste, Iruñeko planetarioa, Tres Reyes hotela, Elkar liburu-denda edota hiriko bi escape room aretoak. Noir jaialdiaren segimendu gogotsua egin dute prentsa jeneralistak eta espezializatuak, aste beltzean bertan nahiz aurreko egunetan; elkarrizketak egin dizkiete protagonistei, eta estaldura handia eskaini dute konferentzietan, mahai-inguruetan, krimenaren lekuaren birsorkuntzan eta lantegi ezberdinetan. Sare sozialei dagokienez, Twitter-eko 1,73 milioi kontutara ere iritsi da Iruñea Beltza, 4,73 milioi aztarnarekin, jaialdiaren lehen edizioan erdietsitakoen bikoitza, hain zuzen (2,55 milioi).

**Iruñea Beltzaren apustu nagusia**

'Krimena eszenara' da, Iruñea Beltzaren sortzailearen arabera, "jende gehien erakartzen dituen eta bereizten gaituen atala". 775 lagun bertaratu ziren Baluarteko Ganbera Aretora jaialdiaren atalik adierazgarriena ikustera.

Aurreko edizioan bezalaxe, programaren literatura-hitzordu arrakastatsuena Dolores Redondori egindako elkarrizketa izan zen, Iruñea Beltza jaialdiari amaiera bikaina eman ziona. Todo esto te daré liburuagatik Planeta saria jaso berri duen idazleak, Trilogía del Baztán entzutetsuaren egileak, 250 pertsona baino gehiago bildu zituen Iruñeko auditoriumean, zer esan behar zuen entzuteko. Guztira, mila lagun inguru gerturatuko ziren hitzaldiren batera, esaterako, Nadal 2016 saria jaso zuen idazle Víctor del Árbolen "El pasado como raíz para construir personajes. Diferencias entre memoria e Historia" delakora, edo Rosa Ribasek eleberri beltzaren pertsonaiak sortzeari buruz emandako mintzaldira. Mahai-inguruek ere interesa piztu zuten jendearengan, "Literatura, memoria histórica y género negro" izenekoak, adibidez; Juan Laborda, Ignacio del Valle, Félix Modroño eta Carlos Erice idazleek parte hartu zuten bertan, eta soziologo eta idazle Laurentiano Vélezek egin zuen moderatzaile-lana. "Gaitza" izeneko mahai-inguruan, bestalde, polizia eta idazle Rafa Melerok, psikiatria-doktore eta idazle María José Morenok, Reyes Calderón idazleak eta filosofian katedradun eta demonologian aditu Ricardo Piñerok hartu zuten parte. Euskarazko eleberri beltzeko idazleak ere bildu ziren, Aingeru Epaltza, Jon Alonso eta Eneko Aizpurua, besteak beste, generoaren osasun-egoeraz, argitaletxeez eta hizkuntza horretako merkatuaz mintzatzeko.

**Berritasunak ere arrakastatsu**

Gastronomiari, musikari eta antzerkiari loturiko nobedadeek ere arrakasta handia izan zuten.

Hijos de Mary Shelley konpainiaren "El hogar del monstruo" antzezlanak 100 pertsona inguru elkartu zituen Ganbera Aretoan Iruñeko noir astearen lehen egunean.

Zinema beltzari buruzko zatian, hiru emanaldi izan ziren Iruñea Beltzaren bigarren edizio honetan, eta 538 ikusle bertaratu ziren. Emandako hirugarren filmak, Vientos de La Habana delakoak, bildu zituen ikusle gehien, 288 lagun orotara. Kubako idazle

ospetsu Leonardo Paduraren unibertsoaren moldaketa da, Félix Viscarret iruindarrak zuzendutakoa.

Azkenik, aipatzekoa da hiru lantegien toki kopurua jaialdia hasi baino lehen amaitu zela. III. eleberri-lantegiaren 20 tokiak bete egin ziren, esaterako. Oraingo honetan, Carlos Zanón idazleak (2015eko Hammett saria) eman zuen lantegia, eta hiru egunez liburuak idaztearen eta literatura sortzearen arteko aldeak ikasi zituzten parte-hartzaileek. Polizia zientifikoari buruzko umeentzako lantegiaren 20 lekuak ere bete egin ziren, 2016an bezalatsu; ikerketen berariazko teknikak ezagutu eta erabiltzen ikasi nahi zuten 8 urtetik gorako umeentzat zen lantegia. Gauza bera gertatu zen Castellóko Delitu Teknologikoen Taldeko buru eta idazle Pere Cervantesek emandako ikerketa-lantegiarekin, gazteei zuzenduta, non ziberkrimen bat aztertu eta sare sozialetako erasoei aurre egiten ikasi baitzuten 14 parte-hartzaileek (12 urtetik gorakoak).

Datuak kontuan izanik, jaialdiaren zuzendariak dio Iruñea Beltza "finkatutako errealitatea" dela dagoeneko. "Berezko nortasun handiko jaialdia da, sasoiari hasiera ematen diona, gero eta egile gehiagok galdu nahi ez dutena", erantsi du. "Iruñea Beltza ez da beste jaialdi, topaketa edo aste batzuk bezalakoa. Berezko izaera nabaria du, publiko guztiak erakartzea xede duena, txikienak zein normalean irakurtzen ez duten baina, eleberri eta zinema beltza ez ezik, ikerketa kriminalaren inguruabarrak ere interesatzen zaizkien pertsonak. Hori dela eta, askotarikoa da gure publikoa. Harrotu egiten nau benetan Iruñea Beltzak irakurleak sortu izana; izan ere, irakurle bat sortzea, hau da, norbait liburuak irakurtzen eta maitatzen hastea, garaipenik handiena da. Eta gero gerokoak, hots, entretenitzea, heztea, jostatzea, hedatzea...", adierazi du Bassasek.

Iruñea Beltzaren hirugarren edizioak emaitza "onak" lortu ditu, "parte-hartzaile kopuruak nabarmen egin baitu gora" IRUÑEA, 24 (EUROPA PRESS) ECO Gizarte-jarduera txikia Zer da hau? 0 0 EUROPA PRESS. 2017/01/24 Baluarte Fundazioak eta Nafarroako Filmotekak Iruñea Beltza jaialdia antolatu dute, urtarrilaren 17tik 21era bitartean. Ondoz ondoko hirugarren urtez, "jendeak oso ontzat eman du" ekitaldia, 2016an baino mila pertsona gehiago izan direlarik, Baluarteren esanetan. Zehazki, 3.200 lagunek baino gehiagok parte hartu dute Carlos Bassasek zuzendutako noir jaialdiaren baitan antolatutako jarduera desberdinetan. Jarduerok, bestalde, interes handia piztu dute gazteen artean. Zuzendari sortzailearen arabera, "erreferentziazko jaialdia" da Estatuko noir topaketen esparruan. Haren hitzetan, "Gijón, Getafe, Bartzelona eta Valentziako anaia nagusien parean jartzen ari da apurka, bertara doazen estatuko egile ospetsuak zein jendearen helmenera jartzen dituen proposamenen barietatea eta originaltasuna direla eta". Bost jardunalditan, Iruñea Beltzak literatura, zinema, gastronomia, antzerkia eta polizia-ikerketa bildu ditu genero beltzaren inguruan. Baluartez gain, hiriko beste bazter asko izan dira eszenatoki, besteak beste, Iruñeko planetarioa, Tres Reyes hotela, Elkar liburu-denda edota hiriko bi escape room aretoak.

Ikusi gehiago hemen: http://www.20minutos.es/noticia/2941649/0/pamplona-negra-cierra-su-tercera-edicion-con-balance-satisfactorio-notable-incremento-asistentes/#xtor=AD-15&xts=467263

**Aurrekontua**

4.566,39 €, BEZa barne. LOGICAL ESCAPE ROOM eta WAY OUT ROOM.

## MODA-DISEINUAREN LEHIAKETA

**Datak:** Abendua

Gazte-txartelak Moda Diseinuaren I. Lehiaketa antolatu du 2016an Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez. Gazteriaren Foru Legeari jarraikiz, 18 eta 30 urte bitarteko (biak barne) moda-diseinatzaile gazteak ikusgai jartzeko, ezagutzera emateko eta trebatzen laguntzeko plataforma da lehiaketa. Berrikuntza, sormena eta ikerlana sustatzen ditu programak Gazte-txartelaren jabe diren eta 2016ko Moda Diseinuaren Lehiaketan parte hartzen duten Nafarroako diseinatzaile gazteen artean.

Hartara, eta helburu horrekin, Moda Diseinuaren Lehiaketaren ekimena bultzatu du NKGIk, diseinatzaile gazteen bildumen desfilea barne hartzen duena. Gehienez ere zortzi diseinatzailek parte hartu dute aipatu desfilean, lehiaketara aurkeztutakoen artean epaileek hautatutakoek, hain zuzen.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroan izanen da 2016ko moda-lehiaketaren desfilea, Gazte-txartelaren programaren esparruan.

Bideo-grabaketa eta argazki-erreportajea ere izanen dira

Epaile bakoitzak 500 euro gordin jasoko ditu egindako lanagatik.

Lehiaketaren irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du.

Desfilea, bestalde, abenduaren 16an (ostirala) izanen da.

Amaia Artieda izan zen irabazlea, "Néboa" izeneko bildumarekin.

**Partaidetza**

| | |
|---|---|
| PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA | 6 diseinatzaile: 3 emakumezko (%50) eta 3 gizonezko (%50). |

## EKIPAMENDUA/MATERIALA

| | Aurrekontua |
|---|---|
| Gazte-txartelaren makinen mantentze-lana eta horien material suntsikorrak | 2.512,26 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren inprimatze-gunea garbitzeko eta doitzeko kita | 144,60 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren makinen material suntsikorrak eta 1.000 gazte-txartel gaztelaniaz | 1.016,40 €, BEZa barne<br>3.673,26 €, BEZa barne |

## PUBLIZITATEA ETA MERCHANDISING-A

| | Aurrekontua |
|---|---|
| 2.000 kamiseta pertsonalizatu, zuriak eta koloretakoak | 6.969,69 €, BEZa barne |
| 3.450 poltsa/bizkar-zorro Gazte-txartelaren serigrafiarekin | 4.299,74 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 2 roll up zorro | 393,85 €, BEZa barne |
| 600 horma-irudi eta 7.500 diptiko Gazte-txartelarentzat | 1.058,39 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren biniloak | 1.571,60 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren biniloa | 531,19 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 12.500 panfleto eta 3 horma-irudi | 823,26 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 2 panfleto, horma-irudi bat eta bi buletin elebidun | 943,80 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 7 olana, neurri ezberdinetakoak, gaztelaniaz | 777,83 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 7 olana, neurri ezberdinetakoak, euskaraz | 811,91 €, BEZa barne |
| Gazte-txartelaren 4.000 txartel-zorro + QR kodedun panfletoa aplikazioa deskargatzeko | 5.929 €, BEZa barne<br>24.110,26 €, BEZa barne |

## BISITAK BERTIZKO JAURERRIKO PARKERA

**Datak:** martxoa-apirila

Bertizko Jaurerriko Parke Naturalera lau bisita gidatu antolatu eta burutzea, bakoitza 50 lagunekin, Gazte-txartelaren titularrentzat.

Nafarroan aitortutako lehen parke naturala. Hala, Foru Komunitateko gune babestuen sarean sartu da. Bertiz eremu paregabea da, bai bere ezaugarri naturalak direla medio bai bere historia dela eta

**Norentzat:** 14 eta 30 urte bitarteko Gazte-txartelaren titularrentzat.

**Arduraduna:** CEDERNA GARALUR.

**Aurrekontua**

2.740 €, BEZa barne

## IRRATI-IRAGARKIAK ONDA CERO ETA EUROPA FM KATEETAN

**Datak:** ekaina

25 irrati-iragarkiko bi pakete kontratatzea Onda Cero eta Europa FM kateetan Gazte-txartelak sustatutako programak eta ekitaldiak ezagutzera emateko.

**Aurrekontua**

798,60 €, BEZa barne

## ASPACE-REN GIZARTE-INPLIKAZIOKO PROGRAMA

**Datak:** abenduaren 15etik 17ra

Aspace elkarteak prestakuntzako eta gizarte-inplikazioko programa eskaini die Nafarroako ikastetxeei 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat.

### Zer da?

Gazteei zuzendutako prestakuntza-programa da, biztanle-talde horrek aukera izan dezan desgaitasunak dituzten pertsonak eta beste errealitate batzuk ezagutzeko; parte-hartzaileengan enpatia piztea du helburu programak, baita beste gizarte-errealitate batzuk ezagutu eta horietan esku hartzea ere.

### Zer jarduera daude antolaturik?

Asteburua igarotzeko sei jarduera antolatu dira 2016-2017 ikasturtean Lekarozko gazteentzako aterpean.

Desgaitasunak dituzten pertsonengana hurbildu eta bizikidetza landuko da programan. Hainbat jarduera ludiko eginen dira taldeka Lekarozko eremuko ingurune normalizatu batean. Parte-hartzaileek lehen eskutik biziko dituzte desgaitasun ezberdinek eguneroko jardueretan berekin dituzten mugak.

### Nola bideratzen da?

Sei asteburutan garatuko da, ostiraleko 18:00etatik eta igandeko 18:00ak arte. Iruñetik irten eta hara itzultzen da. Adierazitako datak gutxi gorabeherakoak dira; parte hartu nahi duten ikastetxeekin adostuko dira.

Talde bakoitzeko hogeita lau parte-hartzaileen garraioa, gaua bertan ematea eta mantenu osoa sartzen dira, baita prestakuntza ere

### Nolakoa da prestakuntza-programa?

Bi ildotan oinarritzen da prestakuntza-programa:

- Zati teorikoa, desgaitasunak dituzten pertsonen arretan jarraitu beharreko urratsak ezagutze aldera.
  - Prestakuntza eta horren helburuak azaltzea
  - Desgaitasunean heztea
  - Jarraibideak arretan
- Zati praktikoa; ikasleek txandakako esperientziak biziko dituzte laurogeita zortzi orduko egonaldian.
  - Taldearen erdiak bere larruan biziko du desgaitasuna, hogei orduz, eta eguneroko jarduera guztiak egin beharko ditu.
  - Beste erdiak, berriz, desgaitasunak dituzten pertsonei behar bezalako arreta emanen die eguneroko bizitzako jarduerak egin ahal izan ditzaten

Nork parte hartzen du?

Taldean honako hauek egonen dira:

- 20 ikasle (ikastetxe edo prestakuntza-zentro batekoak ala ugarikoak)
- Desgaitasunen bat duten 2 pertsona
- 2 hezitzaile.

### Partaidetza

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GUZTIRA: 16 gazte: 13 emakumezko (%81,3) eta 3 gizonezko (%18,8).

### Aurrekontua

1.909 €, BEZa barne

## "ZURE ETXEAN EDO NIREAN" GIDA

**Datak:** abendua

Gazteen etxebizitzari eta emantzipazioari buruzko "Zure etxean edo nirean" gida idazteko kontratazioa.

Independentea izan nahi baduzu...

Aske izan... Zeure espazioa eduki... Zeure bizitzari ekin... Zeure etxean

Zeure bizi-proiektuari ekin nahi badiozu, modu autonomo eta arduratsuan bizitzeko, zeure etxean bizi beharko duzu ezer baino lehen, jabe edo errentari gisa.

Erabaki burujabe eta artatsua hartzeko, eskura dituzun aukera ezberdinei buruzko informazioa bildu beharko duzu, haietako bakoitzaren abantailak eta desabantailak ezagutzeko, bai eta baliatu ditzakezun diru-laguntzen berri izateko ere.

Edozein agiri edo kontratu sinatu baino lehen, gogoratu arretaz irakurtzea eta ulertzen ez duzun guztia galdetzea.

Laster arte... zure etxean edo nirean.

**Aurrekontua**

4.280 €, BEZa barne

Gazte txartela
Carné joven

## PARTAIDETZA-DATUAK

| | PARTAIDETZA | | | EHUNEKOAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| PROGRAMA | E | G | GUZTIRA | E | G |
| Lekarozko Aste Berdea | | | | %51,0 | %49,0 |
| Larunbatak jolasean - Irunberri | 69 | 29 | 98 | %70,4 | %29,6 |
| Larunbatak jolasean - Lezaun | 31 | 27 | 58 | %53,4 | %46,6 |
| Larunbatak jolasean - Zarautz | 120 | 69 | 189 | %63,5 | %36,5 |
| Bertsolaritza | 10 | 9 | 19 | %52,6 | %47,4 |
| Baztan Abentura Park | 15 | 13 | 28 | %53,6 | %46,4 |
| Ogi-lantegia | 15 | 13 | 28 | %53,6 | %46,4 |
| Irrisarri Land | 100 | 50 | 150 | %66,7 | %33,3 |
| 30 sarrera Santaspascuas ekitaldirako | 18 | 12 | 30 | %60,0 | %40,0 |
| San Urbano film laburren lantegia | 6 | 6 | 12 | %50,0 | %50,0 |
| 65 dortsal Zubiri-Iruñea lasterketarako | | | | %11,4 | %88,6 |
| Flashmob | 345 | 42 | 387 | %89,1 | %10,9 |
| Gurutze Gorriko boluntarioak | 26 | 17 | 43 | %60,5 | %39,5 |
| Sormenezko idazketa-lantegia | 8 | 5 | 13 | %61,5 | %38,5 |
| Moda Diseinuaren lehiaketa | 3 | 3 | 6 | %50,0 | %50,0 |
| ASPACEren Inplikazio Programa | 13 | 3 | 16 | %81,3 | %18,8 |
| | | | | E | G |
| PARTAIDETZAREN BATEZ BESTEKOA EHUNEKOTAN SEXUAREN ARABERA | | | | %58,0 | %42,0 |

## EKINTZEN ETA AURREKONTUAREN LABURPENA

| JARDUERA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| Aste Berdea (CEDERNA) | 7.260 € |
| "Ellas abren la muralla" zikloa (Baluarte) | 4.840 € |
| Gazte-txartelaren sare sozialak eta mugikorrerako aplikazioak kudeatzea | 7.260 € |
| Europako EYCA / Gazte-txartelaren Europako Elkartearen informazioa webean eta sare sozialetan kudeatzea | 7.260 € |
| Larunbatak jolasean – Irunberriko arroila baltsa pneumatikoan jaistea eta ureko gymkanak (Nattura Navarra, SL) | 5.662,80 € |
| Larunbatak jolasean – Eskalada eta piraguismoa Lezaunen (Escur, SL) | 5.662,80 € |
| Larunbatak jolasean – Surfa Zarautzen (Moor Surf Eskola) | 4.114 € |
| Udako jardueretarako autobusak (La Burundesa) | 6.235 € |
| Flamenco on fire | 7.260 € |
| ACTUA jaialdia | 3.630 € |
| TRES SESENTA jaialdia | 7.260 € |
| San Fermineko 40 Principales Kontzertua | 3.630 € |
| EDP San Fermín Marathon | 7.265,64 € |
| Bertsolaritza | 3.950 € |
| Gazte-txartelaren bidaia-asegurua (modalitate klasikoa) | 923,41 € |
| Baztan Abentura Park (BKZ) | 5.799,20 € |
| Ogi-lantegia Edorta Salvadoren eskutik (Pan Baker) | 2.500 € |
| Jarduera anitz Igantziko Irisarri Land-en + Onieva autobusak | 9.690 € |
| Bideo-jokoen eta entretenimendu digitalaren I. "YOUWIN16" azoka Baluarten | 6.043,95 € |
| Santaspascuas jaialdia | 7.260 € |
| Paisaia-esperientziak – "San Urbano es para mí…" film laburren lantegia eta lehiaketa | 5.929 € |
| Zubiri-Iruñeko maratoi erdia | 1.430 € |
| Gazte-txartelaren flashmob + bideo-grabaketa | 8.651 € |
| Gurutze Gorriko boluntarioak | 4.200 € |
| Sormenezko idazketa-lantegia | 850 € |
| Escape room erronka | 4.566,39 € |
| Moda Diseinuaren lehiaketa | 20.207 € |
| Ekipamendua / Materiala | 3.673,26 € |
| Publizitatea eta merchandising-a | 24.110,26 € |
| Bertizko Jaurerriko Parkera bisitak | 2.740 € |
| Irrati-iragarkiak Onda Cero eta Europa FM kateetan | 798,60 € |
| ASPACEren Gizarte Inplikazioko programa | 1.909 € |
| "Zure etxean edo nirean" gida | 4.280 € |
| ZENBATEKOA, GUZTIRA | 197.819,31 € |

## EKINTZEN ETA AURREKONTUAREN LABURPENA

| Erreserbak | Esleitutako diru-kopurua |
|---|---|
| Publizitatea eta merchandising-a | 10.000 € |
| Sarrerak eta deskontuak | 25.000 € |
| Ikastaroak eta lantegiak | 5.000 € |
| Etxebizitza-gida | 5.000 € |
| Gazte-txartelaren kudeaketa | 14.520 € |
| Jarduerak | 88.220 € |
| Moda-desfilea | 22.000 € |
| Informatika | 10.000 € |
| Bestelakoak | 7.820 € |
| GUZTIRA | 187.560 € |

# TXARTELAK

| GENEROAGATIKO GUZTIKO HARAGIAK | |
|---|---|
| Gizonezkoak | 875 |
| Emakumezkoak | 1261 |
| GUZTIRA | 2136 |




| TXARTELAK (2016) | |
|---|---|
| Gazte-txartela, mutilak | 529 |
| Gazte-txartela, neskak | 739 |
| ISIC txartela, mutilak | 256 |
| ISIC txartela, neskak | 402 |
| Aterpekide-agiria, mutilak | 90 |
| Aterpekide-agiria, neskak | 120 |
| GUZTIRA | **2136** |



| INFORMAZIO TELEFONOGUNEAN ETA AURREZ AURRE | |
|---|---|
| Txartelei buruzko aholkularitza | 662 |
| Garraio-txartela | 141 |
| Gizarte Segurantza, Og... | 260 |
| Turismoko telefonotegiko fotokopiak | 74 |
| Ordenagailuetan sartzea | 70 |
| Zer egiten duzue hemen | 112 |
| Programak eta bekak, jarduerak, topaketak | 458 |
| Udazkeneko jarduerak | 187 |
| GUZTIRA | 1964 |




**GAZTERIA eta GAZTE-TXARTELAREN kontuek Facebook eta Twitter-en dituzten jarraitzaile kopurua:**

| | |
|---|---|
| @Juventud_na | 3896 jarraitzaile |
| facebook.com/Subdirección-de-Juventud-de-Navarra | 808 jarraitzaile |
| @CarneJoven_na | 1603 jarraitzaile |
| facebook.com/carnejovennavarra | 2791 jarraitzaile |

# ARTE GAZTEAREN TOPAKETAK

encuEntros arte joven

## Arte Gaztearen Topaketen agenda 2016ko irailaren 5etik 10era

| DATA | ORDUA | ZIUDADELA | MODALITATEA | DESKRIBAPENA | NORENTZAT |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 5** | 10:00 | Mistoen pabiloia Armen Aretoa (beheko sol.) | Arte plastikoak eta ikusizkoak Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Arte plastikoen eta ikusizkoen eta ikus-entzunezkoen ekoizpenaren muntaketa/ erakusketa | Artistak |
| | 19:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Ikus-entzunezkoen ekoizpena. Finalisten erakusketaren inaugurazioa | Herritar guztientzat irekita |
| | 20:30 | Nafarroako Antzerki Eskola | Arte eszenikoak | Distopiaren "Gaur ez da inoiz" lanaren antzezpena | Herritar guztientzat irekita |
| | 21:45 | | | Elkarketa lasaia ostatuan | |
| **Irailak 6** | 10:00-14:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | **Workshopa** dokumentuak sortzeko, Oskar Alegríaren eskutik | Arte Gaztearen Topaketen modalitate guztietako artistak |
| **Irailak 7** | 16:00-20:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Bideo esperimentaleko **workshopa**, Verónica Eguarasen eskutik | Arte Gaztearen Topaketen modalitate guztietako artistak |
| | 18:00 | Mistoen pabiloia | Arte plastikoak eta ikusizkoak | Hautatu ez diren artistek aukera izanen dute beren obrak defendatzeko | Arte plastikoetan eta ikusizkoetan aukeratu ez diren artistak |
| | 19:00-21:00 | | | Bilera | |
| | 20:30 | Nafarroako Antzerki Eskola | Arte eszenikoak | Poética Kiribilaren "Acción Matriohska" lanaren antzezpena | Herritar guztientzat irekita |
| | 21:45 | | | Elkarketa lasaia ostatuan | |
| **Irailak 8** | 10:00-14:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Sormen zinematografikoko **workshopa**, Iker Insaustiren eskutik | Arte Gaztearen Topaketen modalitate guztietako artistak |
| | 10:00 | Mistoen pabiloia | Arte plastikoak eta ikusizkoak | Proiektu finalisten aurkezpena | Arte plastikoetan eta ikusizkoetan aukeratu diren artistak |
| | 12:30 | | | Mahai-ingurua | |
| | 13:30 | | | Luncha | |
| | 18:00-21:00 | Mistoen pabiloia | Arte plastikoak eta ikusizkoak | **Testuinguruak**: Arte Gazte alternatiboa ekoizteko, erakusteko eta sortzeko espazioen erakusketa (esku-hartzeak 30 minuturo – Inmersiones Gasteiz, Espacio Trapecio Madril, Reflex Espazioa Donostia, Espai Colona Bartzelona, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa, Iruñeko Ziudadela, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua1) | Herritar guztientzat irekita |

| DATA | ORDUA | ZIUDADELA | MODALITATEA | DESKRIBAPENA | NORENTZAT |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 9** | 10:00-12:00 | Mistoen pabiloia | Arte plastikoak eta ikusizkoak | **Programak**: Arte Gaztearen programekin lotutako artista ezagunen aurkezpena (esku-hartzeak 20 minuturo – Oier Gil, Ro Caminal, Miguel Ayesa, José Jurado2) | Kultura-programatzaileak, topaketetako komisario eta artistak, arte-zentroetako arduradunak eta jendea, oro har |
| | 12:00 | | | Mahai-ingurua | |
| | 12:20 | | | Luncha | |
| | 13:00-15:00 | | | Uharteko Arte Garaikideko Zentrora bisita | |
| | 16:00-19:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Proiektuen aurkezpena: Oskar Alegría (16:00), Joan Jordi Miralles (17:00), Andrés Vial (18:00) | Herritar guztientzat irekita |
| | 18:00-21:00 | Armen Areto ondoko agertokia | Musikak | Topaketen Musikak modalitateko talde finalisten kontzertuak | Herritar guztientzat irekita |
| | 20:30 | Nafarroako Antzerki Eskola | Arte eszenikoak | Mobatiren "Sin voz" lanaren antzezpena | Hautatutako artistak, epaimahaia eta jendea, oro har |
| | 21:00 | | | Otro Mundoren "Azul" lanaren antzezpena | |
| | 22:15 | | | Elkarketa lasaia ostatuan | |
| **Irailak 10** | 10:00-13:00 | Mistoen pabiloia | Arte plastikoak eta ikusizkoak | **No, Future:** Hitzaldiak: Bilboarte – Juan Zapater, Embarrat – Jesús Villamajó, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa – Nerea De Diego, David G. Torres | Herritar guztientzat irekita |
| | 13:00 | | | Mahai-ingurua | |
| | 14:30 | | | Bazkari instituzionala | Hizlariak, lantegiak eman dituztenak, epaimahaiak, deialdia egin duten erakundeak... |
| | 16:00-18:00 | Armen Aretoa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Ikus-entzunezkoen ekoizpena. Proiektu finalisten aurkezpena eta defentsa | Ikus-entzunezkoen ekoizpena. Hautatutako artistak |
| | 18:00-21:00 | Armen Areto ondoko agertokia | Musikak | Topaketen Musikak modalitateko talde finalisten kontzertuak | Herritar guztientzat irekita |
| | 19:00 | Mistoen pabiloia<br>Armen Aretoa<br>(beheko sol.) | Arte plastikoak eta ikusizkoak<br>Ikus-entzunezkoen ekoizpena | Amaierako festa eta sari-banaketa | Herritar guztientzat irekita |

Arte Gaztearen Topaketak programaren helburuak dira iritziak agertzea eta eztabaidatzea arte-jardunaren eta artea ekoizteko espazioen gainean, eta esperientziak, prozesuak eta ikaskuntzak partekatzea arte-lanaren inguruan. Erkidego artistikoaren sarea josten laguntzea, partaideek elkarri eragin diezaioten eta beren proiektu eta ideiak truka ditzaten.

2016ko ekitaldian itxaropen berri bat sortu zen, iritziaren, ideien eta pentsamenduaren eragile. Diseinatu diren estrategia berrien arabera, adituen lantegiak, mahai-inguruak eta eztabaidak eginen dira, eta aurkezten diren arte-proiektuak jendaurrean defendatu eta aurkeztuko dira. Gisa hartara, errazagoa izanen da sorkuntzaren eta arte-ekoizpenaren ikuspegia bistaratzea eta aztertzea, eta arte garaikidearen etorkizunari itxura hartzea bere molde eta alderdi guztietan.

2016ko Topaketetan, lortu nahi da diziplina anitzeko arte-topaketa baten zabalkunde eta dinamizaziorako espazioa, integrazioa eta kohesioa bilatzen dituena erabilitako teknika desberdinen artean eta formatu eta mintzaira desberdinen artean.

Laburbilduz, artearen eta gizartearen arteko lotura hobea bilatzea.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak urtez urte bultzatzen du "Arte Gaztearen topaketak" programa. Horren helburuak dira iritziak agertzea eta eztabaidatzea arte-jardunaren eta artea ekoizteko espazioen gainean, eta esperientziak, prozesuak eta ikaskuntzak partekatzea arte-lanaren inguruan. Erkidego artistikoaren sarea josten laguntzea, partaideek elkarri eragin diezaioten eta beren proiektu eta ideiak truka ditzaten.

2016ko ekitaldian itxaropen berri bat sortu zen, iritziaren, ideien eta pentsamenduaren eragile. Diseinatu diren estrategia berrien arabera, adituen lantegiak, mahai-inguruak eta eztabaidak eginen dira, eta aurkezten diren arte-proiektuak jendaurrean defendatu eta aurkeztuko dira. Gisa hartara, errazagoa izanen da sorkuntzaren eta arte-ekoizpenaren ikuspegia bistaratzea eta aztertzea, eta arte garaikidearen etorkizunari itxura hartzea bere molde eta alderdi guztietan.

2016ko Topaketetan, lortu nahi da diziplina anitzeko arte-topaketa baten zabalkunde eta dinamizaziorako espazioa, integrazioa eta kohesioa bilatzen dituena erabilitako teknika desberdinen artean eta formatu eta mintzaira desberdinen artean.

Laburbilduz, artearen eta gizartearen arteko lotura hobea bilatzea.

**Noiz eta non**

Irailaren 5etik 11ra, modalitate hauetan: Arte plastiko eta ikusizkoak, Ikus-entzunezko ekoizpena, Musikak eta Arte eszenikoak.

Antzezpenak Iruñeko **ZIUDADELAN**: Armen Aretoko beheko solairua, Mistoen pabiloia, modalitate hauetan: Arte plastiko eta ikusizkoak, Ikus-entzunezko ekoizpena eta Musikak. Arte eszenikoak, berriz, Nafarroako Antzerki Eskolan (NAE) izanen dira

## *Arte plastikoak eta ikusizkoak*

**29 lan aurkeztuta.**

Arte plastiko eta ikusizkoen modalitatean, azpimarratzekoa da aurkeztutako proposamenen maila handia; izan ere, nazioarteko artista ospetsuen proposamenak ere badaude, besteak beste. Izaera erlazional, politiko eta kontzeptualeko proiektuak topa ditzakegu proposamenen artean, bai eta marrazki hedatuaren proposamenak eta arte garaikideko beste praktika batzuk ere.

Sariaren aldi berean diseinatutako topaketan, non mahai-inguruak, proiektuen aurkezpenak eta lan-bilerak eginen baitira, Euskadi-Nafarroako, Kataluniako eta Madrilgo eragin-eremuko profesional ugari elkartu dira, besteak beste: Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendari berriak, INMERSIONES Gasteiz, Madrilgo Espacio Trapecioko zuzendarikide Miriam Estrada, Donostiko Espacio Reflex eta arte gaztearen proiektuei lotutako artistak, hala nola José Jurado, Oier Gil, Ro Caminal edo Miguel Ayesa.

**"Realidad frente al espejo", egilea: A. ALEXANDER (Laura Arive) Olio-pintura.**

Genero-indarkeriari buruzko ikusizko kritika. Errealitate baten gaineko hausnarketa. Ispiluaren aurrean isla hutsa dirudien errealitatea, alegia.

**"El Zócalo, espacio ambiguo", egilea: Alberto Odériz Diziplina anitzeko proiektua hirietan.**

"EL ZÓCALO" delakoa "LOS ESPACIOS AMBIGUOS" deritzon diziplina anitzeko proiektu handiago baten zati da, hirietako igarobideak jorratzen dituena. Igarobide izanik duen erabileraren eta formaren arteko harremana abiapuntu hartuta.

**"Paisaje roto", egilea: Alejandro González Oses**

Egilearen esperientzia plastikoaren inguruko ikerketa da "Paisaje roto", artistaren eta haren inguruaren arteko jolasa, sortzaile plastiko bihurtu arteko bidearen bilakaera baino ez.

**50 "HOT DOGS", egilea: Álvaro Gil**

Helburua da ikusleak, formaren aldetik berdinak diren baina akabera plastiko ezberdinak dituzten piezei erreparatzean, erosoen sentiarazten duen saltxitxa-ogitarteko txikia hauta dezan, bere interes estetikoek bultzatuta. Ispiluarena egin dezaten. Denak berdinak baina, aldi berean, desberdinak.

**"Peccato minuto", egilea: Amaia Izcue**

Edertasun finaren erretratua, aldi berean indartsua dena. Arima kutsatua duen edertasun nahasia, debekua eta bekatua nagusi direnekoa.

**"Nociones de habitabilidad", egilea: Amaia Molinet**

Nafarroako erriberatik igarotzean Ebroren ibaiertzetan kokaturiko ingurune naturala habitatzeko, markatzeko eta mugatzeko bestelako moduak konnotatzeko gogoan du sorburua "Nociones de habitabilidad" lana.

**"Que difícil es ser Ana Holmes", egilea: Ana Holmes**

Collage, grunge eta pop estilodun margolana, barnekoa eta emozioen kontrastea adierazteko eta askatzeko, egoa, amorrua edo grina, adibidez.

**"Natura Allegoria", egilea: Beatriz Tainta Ausejo**

Land Art, primitibismoa eta aspaldiko kulturak ditu abiaburu naturaren alegoriaden diziplina anitzeko instalazio honek.

**"Diferentes perspectivas de un cuerpo de mujer", egilea: Carlota Vidán**

Lau argazkik osatutako seriea, emakumearen gorputza ohiko ikuspuntua alde batera utzita erakustea helburu duena.

**"El Caballero de la Mano en el Pecho", egilea: Diego Escribano**

"Año Greco 2014" erakusketari egindako omenaldia, teknika batekin: live painting / tinta eta lixiba.

**"The Secrets I found", egilea: Elvira Palazuelos**

Lan honen xedea da ezustekoz beteriko azalera eskaintzea, ikusizko ibilbidea eta forma, hutsune, gainezarpen eta xehetasunekiko interakzioa bultzatzen dituena



**Sin título, egilea: Esther Echeverría**

Soiltasun hutsaren handitasuna nabarmentzea helburu duen lana. Berehalakotasuna eta biribiltasuna direla eta lantzen ditu esmalteak, barruko konexioari bide emanez, purutasuna eta hurrentasuna gailentzen diren egintza paregabeko batean.

**"Es maravilloso estar aquí pero es maravilloso estar donde sea", egilea: Fermín Jiménez Landa**

Gizakiak mundua sistematizatzeko eta neurtzeko joera duela uste da, eta bisitariak arreta eskultoriko eta espazial berezia eskaintzen diola lurrari. Gutxienekoaren eta gehienekoaren eta ikus daitekeenaren eta neurtezinaren arteko kontrastea; kartografia, ageriko ostertza eta egunerokoa ulertzeko modua berriz pentsatzea. Eskultura minimalistarekin loturiko formak nagusi diren ikusizko emaitza sinpleak kilometro, zailtasun, kalkulu trigonometriko, mapa eta berun-hari ugariren deribak ezkutatzen ditu.

Izenburua Keith Richards artistak munduko biran zegoela esandako esaldi baten itzulpen zehaztugabea da, une hartan zeuden tokiari buruzkoa.

**"Espacios des habitados", egilea: Gabriel Coca**

Gune publikoa beti izan da ezagutza trukatzeko tokia, kulturaren, harremanen, jolasen, adierazpenen eta, nola ez, boterearen lekua.

**"El Norte", egilea: Ignacio Navas**

Identitate nazionalen eraikuntza prozesu guratsua da. Mugimendu politiko eta ekonomikoek helburuen arabera sortu eta moldatzen dituzte konstruktuok, besteak beste: aldi historikoei azken ematea, etorkizunerako prestatzea nahiz nazioarteko eszenan beren jarrera berriz zehaztea.

**"Ocaso Bosque", egilea: Joana Soldevilla**

Pintura kostunbrista kolore-deskonposizio biziarekin.

**"Paisaje domesticado", egilea: Jorge Tellechea**

Lekuaren miaketa subjektiboa da. Gizakia, ingurune naturalean txertatuta, naturari atzea emanda bizi da hasiera-hasieratik.

Kanten arabera, naturan eta horren irudikapenean dago edertasunaren kontzeptua.

"Etxekotu" diren eszenatoki ezezagunek osatzen dute honako serie hau. Agertokiok

ez dute, berez, giza presentzia fisikorik, baina gizakiak espazioan izandako eraginaren aztarnak erakusten dituzte.

**"Selfportrait/In memoriam", egilea: Laura Delgado**

Instalazioa. Kristal grisa argazkiaren gainean. Ikusleak, gelan dagoela, apurtutako kristal beltza baino ezin du ikusi; gerturatzean, ordea, artistaren aurpegia antzeman dezake, garrasika, eta ahoaren parean, hain zuzen ere, hausten da kristala.

**"Teilor", egilea: María Azcona**

Plastikotasunaren apologia, purutasunaren, argitasunaren eta soiltasunaren alde apustu eginez.

**"Reminiscencias", egilea: María Hernández**

10 argazki analogiko, eskaneatuta eta modu digitalean editatuta, grisen eskalara bihurtzeko. Familiaren albuma erakusten da argazkiotan, bere historiarekin; izan ere, inguruabar sozial eta politikoak direla eta identitate-krisia joera den garai honetan, garrantzitsua da atzera begiratu eta hausnartzea, gure aurreko niarekin berriz topo egiteko.

**"300 Nassau", egilea: Marina Lameiro**

Ikus-entzunezko pieza honek pertsonen barne-barnealdera darama ikuslea, beren etxetzat jotzen duten estutasun-sentipena agerian jarriz, testigantzak eta historiak aurrera egin ahala.

Suntsitutako eremuan sakontzen du 300 Nassau lanak, hauskortasuna eta giza izaeraren mugak erakusgai jarrita.

**"Wifirrupción", egilea: Marta Murugorri**

YouTube estetika eta errealizazio "eskasa" ditu gogoko, baita exekuzio eta komunikazio dinamiko eta zuzena ere, luzapen handirik gabea. Unean-unean eskuragarri dauden baliabideak oinarri dituen errealizazioa; hausnarketa umoristikoaren eta eguneroko ekintzen berezko naturaltasunean sorburu duen lana.

**"1935-2015", egilea: Paula Carralero**

Irudiari eta horren irudikapenari buruzko ikerketa filosofiko eta materiala du ardatz, batez ere irudiaren euskarria, inprimatze-euskarri ezberdinak aldatuz, harri litografikoak, kasurako.

**"Práctica VI", egilea: Rafa Munárriz**

Práctica VI proiektu baten ekintza-multzoaren zati da, non hiri-zirkulazioaren gaineko auziei heldu baitzitzaien 25 labirintutan; mintzagai zuen, besteak beste, bidea, egun ulertzen dugun bezala, erraztasuna izateari utzi eta oztopoak metatzearen emaitza bihurtu dela eta bere mugak berak eguneroko ohikeria sortzen duela.

**"Dónde surgió la vida", egilea: Roberto Freire**

Kontsumo-gizartea da bere lanen gai nagusia. Aski ezagunak badira ere, larritzat hartzen ez diren arazoei eta errealitateari buruzko kritika egiten du, hainbat material erabilita.

Instalatzeko piezak, gunera erabat moldatzeaz gain hausnarketarako eta ikusminerako giroa sortzen dutenak, non ekologismoa eta kontsumismoaren aurkako izaera gailentzen diren.

**"Entre el arte y la ciencia", egilea: Sioba Grande**

Argazki zientifikoan zentzu estetikoa bilatzeari buruzkoa da proiektua. Arkeo-paleontologiaren unibertso zirraragarrian barneraturik, esperimentatzeko aukera paregabearekin.

**"Subsistence", egilea: Víctor Manzanal**

Iraunkortasuna eta gabezia jorratzen ditu. Aztarna, desagerpen fisikoa gainditzen duen elementu gisa. Silikonarekin eta pigmentuarekin lantzen du teknika.

**"Frustum", egilea: Xabier Barrios**

Frustum "puska" terminoaren latinezko hitza da, mozten duten bi plano paraleloren artean dagoen zatia, alegia. Bideo-jokoen eta ordenagailu bidezko animazioaren industrian erabili ohi da termino hori, pantailan ikus daitekeen mundu birtualaren zatia adierazteko. Fotografiari egiten dio aipu terminoak kasu honetan, objektiboak hartzen duen imajinarioa azaltzeko.

**"Arqueología", egilea: Yeray Paz**

Konkor biribileko eskultura, harria zizelkatuz landua; aurpegi neurritsuaren irudipena antzeman daiteke, inspirazio organikoaren gisara. Buruak inguruneari buruz egiten duen proiekzio birtuala irudikatzen du piezak, hura pertsonifikatuz eta izaera emanez.

## *Ikus-entzunezkoen ekoizpena*

**12 lan aurkeztuta**

Kalitate handiko lanak, askotariko gaiei buruzkoak: aldarrikapen sozial eta historikoak, existentzialismoa errealitatea eta giza esperientzia bilatzean, genero-indarkeriaren gaineko kritika...

Gonbidatutako epaileek eta profesionalek proiektuen garapenaren segimendua eginen dute, eta profesionalizatzeko zirkuituetan erantsiko dira proiektuok.

**"131", egilea: Amaia Molinet**

Frankismoaren garaia amaituta, eta demokraziarako trantsizioan, auzokideen arteko isiltasuna apurtzen hasi zen leunki; pixkanaka, 1936ko gertaera lazgarriei buruz hitz egiten hasi ziren.

Egile ezezaguneko bideo-dokumentu bateko zenbait irudi erakusten dira, biktimak aitortzeko eta duin egiteko hiletan laburbiltzen dituena gertakizunok.

**"Cuando un hombre cae", egilea: David Asín Montes**

Gizakiaren etengabeko borroka errealizaturik sentitzeko dituen beldurren aurka.

**"Eta, zu, zeren beldur zara?", egilea: Egoitz Cobo Pacheco**

Egungo gizartean sortzen diren —eta jende gehienak hautematen ez dituen— mikromatxismoak ezagutzera ematea helburu duen film laburra.

**"Cenizo", egilea: Jon Mikel Caballero Lorea**

Etxegabetzeen arazoari ekin nahi izan genion, alegoria eta satira abiapuntu hartuta. Neskato baten begi xaloak eta fantasia etxea galtzearen bidegabekeria ikaragarria irudikatzeko.

**"24/07", egilea: Ione Atenea Lameiro Garayoa**

Bizitza eta heriotza ziklo baten parte izateari buruzko proiektua. Zerbait amaitzen denean, beste zerbait hasten da. Jatorrira, hots, lurrera itzultzea da hiltzea. Bitartean, aurrera doa bizitza. Argazkigintza eta heriotza beti egon dira erlazionaturik.

**"Volando pero no", egilea: Marina Lameiro Garayoa**

Gurutzatuz doazen bi egunkari. Bi zinemagileren bizitza elkarri azalduta. Eta nahi duenari. Bi zinemagile gazteren esperientziak, hausnarketak eta emozioak.

**"Recicla en colores", egilea: OTTSTUFF**

Minutu bateko film laburra/iragarkia birziklapenari buruz. Jasangarritasuna - "sehaskatik hilobira" eta "sehaskatik sehaskara" aurrez aurre.

**"ALABA", egilea: Raúl García Egüés**

Zinema esperimentala. Alzheimerra duen pertsona baten burura garamatza piezak. Ahaztutako bere alabaren gomutapena bizi ditu ikusleak pertsonaiaren ikuspuntu subjektibotik.

**"Cuestión de suerte", egilea: Soñar es gratis Poducciones**

Giza naturan eta diruarekiko harremanean sakontzen du film laburrak, historia pertsonal bat tartean dela.

**"Condenada Justicia", egilea: Speculum Vitae**

Minari, lotsari eta erruduntasunari buruzko gogoeta bortxaketa gertatzen denean, bai eta gure sistema judiziala arautzen duten legei buruzkoa ere.

**"Ave Fénix", egilea: Ubriel**

Emaztea hiltzean etengabeko gainbeheran hasten den gizon zahar baten istorioaren protagonista da Félix, parkinson eta alzheimer hastapenak pairatzen dituena. Bere familiak anparatzen badu ere, inoiz baino bakarrago eta hutsago sentitzen da Félix.

Felix gizon zahar

**"Sí va con nosotros", egilea: Unai Ricarte Tabar**

Gazteak genero-indarkeriari buruz jabetu daitezen saiatzen den maisu baten istorioa azaltzen du.

## Musikak

**16 lan aurkeztuta.**

Kontzertuak Ziudadelan; epaileen eta ekoizpen eta sustapeneko adituen aholkularitza izanen dute.

**ARIMA**

Emakumeen soul-talde bakarra Nafarroan. Ibilbide luzeko soul musika beltza.

**Daniel Guillén.**

Metal, pop eta rock.

**Duo Almira.**

Musikari gazte Isabel González eta Paula Jiménezek, ganbera-musikarekiko duten maitasunak bultzatuta, beren ibilbide profesionalari ekitea erabaki zuten; ez bat eta ez bi Duo Almira sortu zuten.

Euskal Herriko goi-mailako musika-ikastegi Musikenen ditu sustraiak taldeak, bertan ikasiak baitira interpretatzaile biak. Garai hartan, piano-jotzaile eta konpositore Gabriel Loidiren eskolak jaso zituzten; hark, hain zuzen ere, ezagutarazi zizkien ganbera-musikaren mundua eta horrek eskain zitzakeen aukera guztiak.

**Hushlaw.**

Rock klasikoa, heavy, blues, country, jazz eta metalaren beste aldaera batzuk. Estilo hauen zertzeladak beste batzuenak baino lodiagoak eta sakonagoak direnez, country metaltzat jo liteke azken generoa.

**Impacto**

Rock-and-roll bete-betean, generoaren aldaera ezberdinak eta berezko ukitua uztartzen dituztenak bereizten dituen estiloa sortzeko. Beren emanaldietan presentzia eta jarrera dira nagusi agertokian, baita doinu gogoraerrazak eta riff sinestezinak ere. Airbourne, The Hellacopters, Baron Rojo eta abarren eraginak ditu taldeak.

**Keral.**

Rock purua eta indie antzeko joerak.

**Me Against The World**

"Breakdown" ugariren eta melodia malenkoniatsuen bidezko musika erritmikoa; eztarriko ahotsekin egindako bertsoek laguntzen dituzte leloak eta koruak.

**Mosh**

Hard core metal estiloa.

**New Txok Team**

Underground, metal eta rock.

**Proyecto Pez**

Rock zintzo, bizi eta zuzena, entzuleekin konektatzeko gai dena.

**Somos Trinidad**

Somos Trinidad hiru izarrek bat egitean sortu zen; Marte eta Artizarra lerrokatu egin ziren 3500 urtetik behingoz, eta Iruñea argitu zuten.

**The Broken Horizon**

Xede duten musika-estiloak metalcore eta deathcore generoko nazioarteko taldeetan du oinarri, Suicide Silence, Parkway Drive eta Asking Alexandria, esate baterako.

**Ubriel**

Estilo pertsonal eta norberak ikastekoa.

**Virenque**

2011n sortu zen rock hirukotea, Iruñean ezarritakoa; hainbat taldetan aski ibiliak dira taldeko musikariak.

**We Lost An Angel**

Parte hartu duten talde desberdinen musikarien proiektua, hainbat estilotakoa.

**Zerrojo**

Aldarrikapenezko musika-proiektua da Zerrojo, punk-rock erritmoa eta gizarte-gaiei buruzko hitzak dituena, Reincidentes, Boikot edo Kaotiko bezalako taldeen antzekoak.

## *Arte eszenikoak*

**8 lan aurkeztuta.**

Proposamen eraberritzaile eta ausartak, bertsio klasikoak... guztiak ere oso landuak eta kalitate handikoak. Antzerkia, dantza, balleta, performances, etab.

Lantegiak eginen dituzte NAEn, eta aukera izanen dute beren proiektuak zirkuitu profesionaletan txertatzeko.

**"Gaur ez da inoiz", egilea: Distopia antzerki galdara**

Ia garaikidea den mundu baten errealitate bitxia proposatzen du, egungo gizartearen eta proposatzen den gizarte indibidualista, itxi eta aseptikoaren arteko paralelismo argia abiapuntu hartuta

**"Acercarse al límite", egilea: Itsaso Iribarren Muñoz**

Diziplina anitzeko lana garatzen du, gorputza edukiak sortzeko tresna gisa erabiltzean oinarrituta. Gaur egun artea ikertzen dihardu ezagutza sortzeko praktika bailitzan, praktika eta hausnarketa teorikoa bateratzean oinarrituta.

**"Exilio", egilea: mimi.com**

Erbesteratzeak eraginda, nahita edo behartuta, pertsona bat berezko tokitik (hiri zein estatu) urrun egotea da, zio politikoak direla medio batez ere itzultzeko berariazko baimenik ez duenean, espetxe- edo heriotza-mehatxuak tartean direla.

**"Sin Voz", egilea: Mobati**

Dantza-ballet proposamena.

Itxuraz zoriontsu den aurpegi baten atzean beldurrak, segurtasun-gabezia eta autoestimu txikia daude, barrutik mina eta sufrimendua ez beste sentipenik ez dagoelarik, askotariko inguruabarrak direla eta.

**"Azul", egilea: "Otro Mundo" konpainia**

Konpainia zeharo eraldatuko duen lana, inongo zalantzarik gabe; zuzendariak egindako lana, bere bizipenak eta Cesar Bríeren Frágil obran oinarritutakoak ardatz dituena.

Hauskortasuna, arbuioa, porrota, eskola-jazarpena, pertsona maiteen heriotza, norbere buruaz beste egitea...

Nerabe baten burura garamatza Azul-ek; bihotz hauskorra dugu protagonista, Lucíarena, alegia, beste edozein umerena bezalakoa, adin horretan biziz, zalantzaz eta beldurrez beterik dagoena. Guztia eta ezereza aldi berean

**"Acción Matrioshka", egilea: Poética Kiribila: (Zona Creatica Kultura Elkartea).**

"Maitasun erromantikoa", elkarrizketa sortzeko premia bizia eta artea gizarte-tresna bezala erabiltzea berrikuntza artistikoarekin bateragarri delako uste sendoa. Hala, norberaren hizkuntzari buruz ikertzeko gogoz, guztiz eraberritzea erabakitzen dute. Oraingo honetan, dantza, poesia, zuzeneko musika eta antzerkia dira parte.

**"Parpadeo",egilea: Speculum Vitae**

Denok ezagutzen dugu mendebaldearen eta ekialdearen arteko gatazka; hala ere, badira oraindik ere entzungor egiten ditugun itzal asko, zeinen egia bazter uzten dugun. Hau da agerian jartzeko unea, begiak kliskatzeari uzteko mementoa, intimitate-abagune horiek zer ezkutatzen duten ikusteko.

**"Dios, una adaptación de la comedia de Woody Allen", egilea: Teatro La Madeja**

Antzerki-komedia. Antzinako greko bi, egilea bata eta aktorea bestea, eztabaidan aritzen dira antzerki-lehiaketan aurkeztu behar duten lanerako amaiera topatu nahian. Hori da Allenen argumentua bere obsesio bereziak isurtzeko: Jainkoa, erlijioa, heriotza, sexua, komunikazioa... Kaotikoa bada ere, uste baino zentzu handiagoz harilduz doan matazaren antzekoa da lan hau.

## Sarituak

Lehen sarien irabazleak: Ignacio Navas eta Álvaro Gil, arte plastiko eta ikusizkoen kategorian; Otro Mundo taldea arte eszenikoen kategorian; Ione Atenea Lameiro ikus-entzunezkoen ekoizpenaren kategorian eta Virenque taldea musiken kategorian.

Amaiera-jaialdian jakinarazi dira Arte Gaztearen Topaketen sariak; sari-banaketa, bestalde, arratsalde honetan izan da, Iruñeko Ziudadelaren Armen Aretoan. Lehenbiziko aldiz, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren programa Iruñeko Udalaren Kultura arloarekin elkarlanean egin da, ahaleginak, baliabideak eta bitartekoak elkartzeko asmoz.

Aste eszenikoen kategorian Otro Mundo taldeak jaso du lehen saria, "Azul" proposamenarekin; bigarren saria Poética Kiribilak erdietsi du, "Acción Matrioshka" lana defendatuz; hirugarrena, berriz, Distopía taldearentzat izan da, "Antzerki Galdara" lanarekin, eta Kobatik jaso du laugarren saria, "Sin luz" antzezlana dela eta.

Arte plastiko eta ikusizkoen kategorian, epai-mahaiak Ignacio Navas Garijoren "El norte" lanari eta Álvaro Gil Soldevillaren "Cómo construir tu propio T-Rex party" sorkuntzari eman die lehen saria, *ex aequo*. Bigarren saria Paula Carralero Bierzynskarentzat izan da, "1935-2015" lana dela eta; hirugarrena, bestalde, Amaia Molinet Drondak jaso du, "Nociones de habitabilidad V" izeneko proposamenarekin, eta laugarren saria Alberto Odériz Martínezen "El zócalo" lanak eraman du.

Ikus-entzunezkoen ekoizpenaren modalitatean, Ione Atenea Lameiroren "24/7" lanak lortu du lehen saria; bigarren saria David Asinek erdietsi du, "Cuando un hombre cae" proposamenarekin. Hirugarren saria Marina Lameirok eta Uriel Gartziak jaso dute *ex aequo*, "Volando pero no" eta "Félix" lanengatik, hurrenez hurren; laugarren saria, beste alde batetik, Raúl García Egüésen "Álava" lanarentzat izan da. Kategoria honetako sariak ere Maitena Muruzábalek eman ditu. Amaitzeko, Virenque taldeak jaso du musiken modalitateko lehen saria. Impacto, Arima eta Proyecto Pez taldeek lortu dute bigarren, hirugarren eta laugarren saria, hurrenez hurren.

Lau modalitateetako bakoitzean 2.500 euroko lehen saria, 1.500 euroko bigarrena, 1.000 euroko hirugarrena eta 500 euroko laugarren saria eman dira.

Joan den irailaren 2rako, lau modalitateetan saria irabaz zezaketen proiektuak hautatu zituzten Arte Gaztearen Topaketen epaileek; pasa den aste osoan zehar, bestalde, Topaketetekin loturiko jarduera ezberdinak izan dira Ziudadelako pabiloietan, bai eta Nafarroako Antzerki Eskolan ere. Horiei esker, jendeak aukera izan du artista parte-hartzaileen proposamenen berri izateko; izan ere, etorkizuneko sortze-lanetan lagungarri izan dakizkiokeen ideia eta estrategiak ezagutu ahal izan ditu jendeak, artearen munduko adituek emandako hitzaldi eta lantegien bitartez.

# GAZTE-ATERPETXEAK ETA ATERPEAK

## Instalazioak

**Gazteen zerbitzura.**

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak bide ematen die herritarrei, oro har, eta gazteei, bereziki, Nafarroako geografiaren herri ezberdinetako aterpetxeak, aterpeak eta egoitzak erabiltzeko.

2016an, 11.539 pertsonak, batik bat gazteek, hartu zuten ostatu instalazio horietan, 49.253 gautan orotara.

Aterpetxeen kokalekuak aukera ematen die gazteei, besteak beste, aisialdiaz gozatzeko, lan-jardunaldiak antolatzeko eta lagunekin bizitzeko.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak eskaintzen dituen instalazioen artean azpimarratzekoak dira:

Getadarko gazteen aterpea

- Getadarko gazteen aterpea, natura barrutik bizitzeko eremu pribilegiatu batean kokaturiko monumentu historiko bat. Ecojarlim Sangüesa enpresak kudeatzen du aterpe hori, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak esleituta. Gazteentzako eta, eskuarki, erabiltzaileentzako, kalitatezko zerbitzu bat emateko egiten dute lan enpresa horretan.
- Doneztebeko "Belvieretxea" gazte-aterpeak Nafarroa iparraldeko berezko lasaitasuna eskaintzen du, berezitasun batekin: elkarteek edo 15 laguneko edo gehiagoko taldeek baino ezin dute erreserbatu babeslekua, osorik erabiltzeko, hau da, inoiz ez beste talde edo elkarte batzuekin batera.

"Belvieretxea" gazte-aterpea

- Lekarozko Aterpetxeak, Nafarroako Aspace Fundazioak kudeatutakoak, eremu ugari ditu; hango langile adeitsuek, desgaituak gehienbat, zerbitzu ona ematen dute bertan. Aspace Fundazioari egindako esleipenak bide ematen die desgaitasunak eta, aldi berean, lan egiteko gogo biziak dituzten pertsonei laneratzeko; hala bada, kalitatezko zerbitzua ematen dute langile prestuek.

• Altsasuko "Otadiko Kristo Santua" gazteen egoitza funtzioaniztunak taldeko jarduerak egiteko aukera ematen du lasaitasuna nagusi den giro batean.

*"Otadiko Kristo Santua" gazteen egoitza*

• Iruñeko "Printzearen Gotorlekua" gazteen egoitzan, ikasle eta kirolari gazteek ostatu har dezakete merke-merke ikasturtean zehar. Halaber, bete gabeko tokiak badaude, edozein motatako talde, elkargo, federazio edota aterpekideak ere gera daitezke bertan.

Institutuaren aterpetxe eta aterpeetan askotariko jarduerak egin dituzte 282 taldek, besteak beste: kirol-federazioak, kirol-taldeak, gazte-elkarteak, haur eta helduentzako hizkuntza-ikastaroak, jarduerak pertsona desgaituekin, ikastaroak, kultura-jardunaldiak eta eskolako kanpainak.

**Ordaintzetiko salbuespena gazteen zentroetan erreserba egiteagatik**

2016an Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren Erregistroan izena eman duten gazte-elkarteek aukera izan dute Altsasuko "Otadiko Santo Kristo" gazte-aterpetxea eta Doneztebeko "Belvieretxea" gazte-aterpea erabiltzeko, erabat doan, irizpide hauei jarraikiz:

Gehienez ere bi erreserba urtean gazte-elkarte bakoitzak eskainitako bi instalazioetan; gehienez 4 gau igaro ahal izanen dituzte doako bi txandetako bakoitzean, haietarako eskubidea baitute. Taldeen erreserba gauzatzeko, 15 lagun izan beharko dituzte gutxienez.

*2016KO GAZTEEN ZENTROEN ERABILTZAILE KOPURUA GUZTIRA*

| | Getadar | Lekaroz | Doneztebe | Printzearen Gotorlekua | Altsasu | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | 0 | 267 | 60 | 58 | 7 | 392 |
| Otsaila | 30 | 343 | 32 | 122 | 222 | 749 |
| Martxoa | 138 | 667 | 139 | 164 | 239 | 1.347 |
| Apirila | 140 | 606 | 112 | 168 | 211 | 1.237 |
| Maiatza | 91 | 645 | 68 | 181 | 176 | 1.161 |
| Ekaina | 226 | 503 | 79 | 218 | 156 | 1.182 |
| Uztaila | 141 | 627 | 34 | 249 | 223 | 1.274 |
| Abuztua | 94 | 308 | 59 | 202 | 184 | 847 |
| Iraila | 197 | 434 | 112 | 200 | 58 | 1.001 |
| Urria | 137 | 354 | 32 | 178 | 320 | 1.021 |
| Azaroa | 152 | 110 | 99 | 122 | 213 | 696 |
| Abendua | 139 | 157 | 178 | 72 | 86 | 632 |
| GUZTIRA | 1.485 | 5.021 | 1.004 | 1.934 | 2.095 | 11.539 |

*2016KO GAZTEEN ZENTROEN GAU-IGAROTZE KOPURUA GUZTIRA*

**2016ko taldeen gau-igarotze kopurua guztira**

| | Getadar | Lekaroz | Doneztebe | Printzearen Gotorlekua | Altsasu | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | 0 | 962 | 120 | 1.314 | 7 | 2.403 |
| Otsaila | 30 | 1.118 | 64 | 1.489 | 471 | 3.172 |
| Martxoa | 188 | 1.771 | 310 | 1.819 | 741 | 4.829 |
| Apirila | 421 | 1.755 | 224 | 1.828 | 373 | 4.601 |
| Maiatza | 182 | 1.853 | 148 | 1.728 | 342 | 4.253 |
| Ekaina | 1.208 | 1.431 | 158 | 1.292 | 535 | 4.624 |
| Uztaila | 1.410 | 2.658 | 952 | 1.295 | 897 | 7.212 |
| Abuztua | 1.034 | 1.013 | 513 | 1.475 | 1.324 | 5.359 |
| Iraila | 94 | 1.208 | 139 | 1.587 | 78 | 3.106 |
| Urria | 235 | 769 | 64 | 1.995 | 657 | 3.720 |
| Azaroa | 184 | 280 | 164 | 1.855 | 295 | 2.778 |
| Abendua | 607 | 554 | 360 | 1.386 | 289 | 3.196 |
| GUZTIRA | 5.593 | 15.372 | 3.216 | 19.063 | 6.009 | 49.253 |

| Gazteen zentroak | Talde kopurua |
|---|---|
| Getadarko gazteen aterpea | 31 |
| "Baztan" gazteen aterpetxea | 109 |
| "Belvieretxea" gazteen aterpea, Donezteben | 39 |
| "Printzearen Gotorlekua" gazteen egoitza | 45 |
| "Otadiko Kristo Santua" gazteen aterpetxea | 58 |
| GUZTIRA | 282 |

## *Inbertsioak gazteen zentroetan*

2016an honako inbertsio hauek egin dira gazteen zentroetan:

- **Iruñeko "Printzearen Gotorlekua" gazteen egoitza:**
  Bi gelatako altzariak ordezkatzea. Kostua: 5.408,52 € (BEZa barne).

- **Aterpetxeak eta aterpeak**
  - Getadarko gazteen aterpea, Sabaiza onibarrean. Tel.: 619718013
  - "Belvieretxea" gazteen aterpea, Donezteben. Tel.: 948 29 12 06
  - "Baztan" gazteen aterpetxea, Lekarozen. Tel.: 948 58 18 04
  - "Printzearen Gotorlekua" gazteen egoitza, Iruñean. Tel.: 948 29 12 06
  - "Otadiko Santo Kristo" gazteen aterpetxea, Altsasun. Tel.: 948 56 48 14

# EUROPAKO PROGRAMA: ERASMUS + GAZTEAK EKINEAN

**Erasmus+** hezkuntzaren, prestakuntzaren, gazteriaren eta kirolaren arloko Europar Batasunaren programa da. 2014-2020 aldia hartzen du mugikortasuna eta Europako eta nazioarteko hezkuntza-lankidetza diseinatzeko ikuspuntu berriak irekitzeko.

**Erasmus+ programaren gazteriari buruzko atalak** laguntza ematen die gazte guztiei hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan. Programaren bitartez, beren garapen pertsonal eta profesionalerako oinarrizko gaitasunak lortu behar dituzte gazteek. Europako gazteek berebiziko garrantzia dute Europar Batasuneko etorkizuneko partaidetzan.

## *Ekintzak*

Gazteriaren arloan, Erasmus+ programak honako ekintza hauek hartzen ditu aintzat, Espainiako Agentzia Nazionalak kudeatuta:

**1. ekintza gakoa- Pertsonen mugikortasuna ikasketak direla eta.**

**Pertsonen mugikortasuna hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloan.**

- **Gazteen arteko trukeak:** aukera ematen diete gazteei beren gaitasunak garatzeko, kultura-arteko esperientziak bizitzeko, ezagutza-molde berriak ezagutzeko eta Europako gizarteari eta lankidetzari buruz ikasteko.
- **Europako Boluntarioen Zerbitzua:** irabazi-asmorik gabeko proiektu batean parte har dezakete gazteek atzerrian, ideia, ikuspuntu eta esperientzia berriak erdiesteko aukera paregabea.
- **Langileen mugikortasuna gazteriaren arloan:** gazteekin egindako lanaren kalitatea hobetzeko.

**2. ekintza gakoa. Berrikuntzarako eta jardunbide egokien trukerako lankidetza.**

- **Elkarte estrategikoak hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloan:** proiektu berritzaileetarako formatu irekia, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren kalitatea hobetzeko helburuz (ekimen transnazionalak barne).

**3. ekintza gakoa- Politiken erreformetan laguntzea.**

- **Elkarrizketa egituratua: Harremanak gazteen eta gazteriaren arloan erabakiak hartzeaz arduratzen direnen artean:** gazteen eta gazteria-politiken arduradunen arteko topaketak sustatzen ditu, baita Europako bizitza demokratikoan parte-hartzea ere.

## 1. EKINTZA GAKOA: GAZTEEN ARTEKO TRUKEAK

### GAZTEAK BESTE HERRIALDE BATZUETARA BIDALTZEKO PROIEKTUAK

Jarraian, Erasmus + Gazteak Ekinean programaren baitan beste herrialde batzuetan nazioarteko topaketetan parte hartu duten Nafarroako gazte-taldeak jasotzen dira. Finantzaketak honako hauek hartzen ditu barnean: ostatua, programa (topaketa osoan zehar) eta bidaiaren zati bat.

- **Corellako Udalak** bi gazte-talderen partaidetza bultzatu du:
  - Txekiar Errepublika (Ostrava) Fridek-Mistek eta Praga, 6 gazte eta begirale bat, 16 eta 19 urte bitartekoak, uztailaren 18tik 27ra. Gaia: "United in diversity, together agains ignorance"; bost herrialdek hartu dute parte.

- Italia - Comune di Verona- Lago di Garda, 7 gazte eta begirale bat, 15 eta 19 urte bitartekoak eta lider bat, uztailaren 21etik 30era. Gaia: "Together without frontiers-a way towards intercultural education"-"We have flown the air like birds an swum the sea like fishes, but have yet to learn the simple act of walking the earth like brothers". (Martin Luther King Jr)"; sei herrialdek hartu dute parte.
- Belgika, Brusela eta Graide, 5 gazte eta begirale bat, 16 eta 20 urte bitartekoak, uztailaren 2tik 9ra. Gaia: "Europe: shaken Not Stirred"; bost herrialdek hartu dute parte.

• **Batean Federazioa:**

- Alemania (Bremerhaven), 14 eta 17 urte bitarteko 10 gazte eta bi begirale, uztailaren 23tik abuztuaren 2ra. Gaia: Ingurumena.

• **Lizarrako Udala:**

- Alemania (Edersse-Frankfurt), 18 eta 21 urte bitarteko 9 gazte eta begirale bat, uztailaren 24tik abuztuaren 3ra; 9 herrialde. Gaia: "Europaren eta kirolaren etorkizuna"

• **Uharteko Ekhi gazte-elkartea:**

- De Weere, Holanda, 18 eta 19 urte bitarteko 10 gazte eta bi begirale, uztailaren 27tik abuztuaren 6ra; lau herrialde. Gaia: Crossing Borders. Finantzaketa
- Alemania (Bochum), 14 eta 25 urte bitarteko 10 gazte eta bi begirale, uztailaren 12tik 23ra. Hiru herrialde. Gaia: DIVERCITY: Rap, hip hop, graffiti.

15 eta 20 urte bitarteko 7 gazte-talde eta beren begiraleak atzerrira joan dira E+ Gazteak ekinean programaren baitan; **65 gaztek** hartu dute parte. Topaketa hauek uztailean eta abuztuan izan dira, bederatzi eta hamabi egun bitartekoak. Finantzaketa **33.150 euro** ingurukoa da (bidaiak: 170 x 65 + ostatua eta programa 34 x 10 x 65).

Gazteek modu aktiboan parte hartu behar dute proiektuotan; gazteak gizarte- eta kultura-errealitate ezberdinei buruz jabetzeko diseinatuta daude, batak bestearengandik ikas dezan. Aukera ematen diete atzerrira joateko, beste herrialde batzuetako gazteak ezagutzeko eta elkarrengandik ikasteko, denontzat interesgarriak izan daitezkeen baterako jardueretan parte hartuz. Proiektua amaitutakoan, gazteek Europako Youthpass ziurtagiria jasotzen dute, hezkuntza ez-formalaren esparruan garatutako gaitasunak biltzen dituena.

## 2016KO GAZTEAK NAFARROAN HARTZEKO PROIEKTUAK

Finantzaketak ostatuaren, mantenuaren eta programaren zati bat estaltzen du proiektuak iraun bitartean, baita atzerriko taldeak Nafarroaraino egin beharreko bidaiaren parte bat ere.

- Batean Federazioak alderdi anitzeko truke bat jarri du abian, lau herrialdetakoa, "Todo por el arte" deritzona, 14 eta 17 urte bitarteko **48 gazterekin**, abuztuaren 1etik 12ra. **Finantzaketa: 25.512 euro**.
- Batean Federazioak, bestalde, alderdi anitzeko beste truke bat ere antolatu du, lau herrialdetakoa, "Demorado" deritzona, 14 eta 17 urte bitarteko **50 gazterekin**, irailaren 2tik 11ra. **Finantzaketa: 25.000 euro.**
- Lizarrako Udaleko gazteriaren etxeak truke bat jarri du martxan, "North & South. The view of European Youth" izenekoa, 18 eta 21 urte bitarteko Alemaniako **24 gazterekin,** abuztuaren 12tik 21era. **Finantzaketa: 10.030 euro.**
- Uharteko Ekhi gazte-elkarteak topaketa bat antolatu du Letoniarekin uztailaren 15etik 31ra, "Work Hard Dream Big" izenekoa. **24 pertsonarentzako** proiektua. **Finantzaketa: 13.032 euro.**
- Corellako Udalak, Anfasekin elkarlanean, "Eres un Tecnoadicto" topaketa antolatu zuen abuztuaren 7tik 15era lau herrialderekin: tokiko taldea, Italia, Txekiar Errepublika eta Belgika. **39 pertsonarentzako** proiektua. **Finantzatutako zenbatekoa: 16.740 euro.**

Bost proiektuotan **185** pertsona **gaztek** hartu dute parte, eta **90.314 euroko** Europako **diru-laguntza** jaso zuten.

## 1. EKINTZA GAKOA: EUROPAKO BOLUNTARIOEN ZERBITZUA

Proiektu hauek bi aukera ematen dituzte. Batetik, beste herrialde batzuetako gazteek boluntario-zerbitzua egin dezakete Nafarroan, tokiko erkidegoen eta harrera-erakundeen mesederako (harrera-proiektuak). Bestetik, Nafarroako gazteak beste herrialde batzuetara joan daitezke jarduera solidario batean parte hartzeko, gutxienez hiru hilabetez eta gehienez ere urtebetez. Proiektuok gazteen arteko solidaritatea sustatzen dute, eta ikaskuntza-zerbitzu ezin hobea da hezkuntza ez-formalaren baitan. Proiektua bukatutakoan, gazteek Europako "Youthpass" ziurtagiria jasotzen dute, programaren herrialde guztietan balio duena.

### 1. 2016AN NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK NAFARROAN HARTZEKO PROIEKTUAK:

- Batean Federazioa
- Tuterako Gurutze Gorria.
- Gizakia Herritar Fundazioa
- SETEM
- GEN Europa eta Arterra Bizimoduz

| Boluntarioa | Sorterria | Datak | Finantzaketa guztira | 2016ko finantzaketa |
|---|---|---|---|---|
| BATEAN FEDERAZIOA | | | | |
| Olesksandra Kustarnykova | Ukraina | 2015/09/01 - 2016/05/31 | 9.797,83 | 3.498 |
| Gerdes Sophia | Alemania | 2016/05/01 - 2016/09/30 | 3.513,50 | 3.513,50 |
| Taras Ben | Ukraina | 2016/09/01 - 2017/05/31 | 6.138 | 2.728 |
| TUTERAKO GURUTZE GORRIA | | | | |
| Sophie Kentschke | Alemania | 2014/08/01 - 2016/07/31 | 13.589 | 6.794 |
| Alejandra | Errumania | 2014/08/01 - 2016/07/31 | | |
| Lea Marburger | Alemania | 2016/09/05 - 2017/07/05 | 13.504,00 | 5.400 |
| Lena Wôss | Austria | 2016/09/05 - 2017/07/05 | | |
| GIZAKIA HERRITAR FUNDAZIOA | | | | |
| Giuseppe Cappiello | Italia | 2015/03/01 - 2016/02/28 | 20.130 | 3.355 |
| Tiziana Pinto | Italia | 2015/03/01 - 2016/02/28 | | |
| Anca Gacea | Errumania | 2015/03/01 - 2016/02/28 | | |
| Erika Lantos | Italia | 2016/10/01 - 2017/08/31 | 22.586,00 | 5.019 |
| Emmanuela Marcon | Italia | 2016/10/01 - 2017/08/31 | | |
| Lucía Stant | Errumania | 2016/11/12 - 2017/12/31 | | |
| SETEM | | | | |
| Laura Doublet | Belgika | 2015/09/01 - 2016-07-01 | 6.752 | 4.052 |
| Marcos Pasqua | Italia | 2016/09/01 - 2017-07-01 | 6.752 | 2.700 |
| GEN EUROPA GLOBAL ECOVILLAGE NETWORK OF EUROPE | | | | |
| Mickael Norlen | Suedia | 2016/09/07 - 2017/03/07 | 12150 | 6.750 |
| Martina Tomasin | Italia | 2016/09/14 - 2017/03/14 | | |
| Domenico Larobina | Italia | 2016/10/14 - 2017/04/14 | | |
| GUZTIRA | | | | **43.809,5** |

Europako boluntarioak Nafarroan hartzeko 2016an Espainiako Agentzia Nazionalak onartutako proiektuen finantzaketa osoa: **43.809,5 euro 18 boluntario** hartzeko.

**Nafarroako gazteek Europako hainbat proiektutan parte hartzeko proiektuak,** kasuan kasuko herrialdeetan onartuta eta **eurotan**.

| | | |
|---|---|---|
| **Nafarroako Unibertsitate Publikoak bidalita:** | | |
| Raquel Azanza Álvarez | Irlanda. | 7.890 euro |
| Laura Lacabe Saralegui | Estonia | 7.890 euro |
| Alberto Echeverría Armendáriz | Eslovakia | 7.890 euro |
| María García Castaño | Erresuma Batua | 7.890 euro |
| Ion Eslava Núñez | Txekiar Errepublika | 7.890 euro |
| Andrea Díaz Jiménez | Austria | 7.255 euro |
| María Rosón Ordoyo | Polonia | 5.985 euro |
| David Celigueta Ruiz de Galarreta | Erresuma Batua | 7.890 euro |
| Manuel Ortiz Zaldibar | Irlanda | 6.620 euro |
| **Hezitzaile Eskola, INDICOT (Tenerife)** | | |
| Amaia Vergara | Errumania | 6.620 euro |
| **Nuevo Futuro Mundus (Bartzelona)** | | |
| Sara Moleres | Errumania | 6.620 euro |
| | | **80.440 euro** |

**Hamaika gazte**, 2016ri dagokion finantzaketa: **40.220 euro**

Finantzaketak bidaia, ostatua, mantenua, prestakuntza eta aseguruak estaltzen ditu.

Programaren Agentzia Nazionalak prestakuntza-ikastaro bat ematen die gazte hauei guztiei beren sorterritik irtetean, prestakuntza-ikastaro bat Espainiara heldutakoan eta tarteko ebaluazio-mintegi bat autonomia-erkidegoren batean burutzen duten proiektuaren erdialdean. Erakunde bakoitzak, gainera, berariazko prestakuntza eta hizkuntza-prestakuntza ematen dizkie gazteei, eta nazioarteko Youthpass ziurtagiria egonaldia amaitutakoanz.

## 1. EKINTZA GAKOA: LANGILEEN MUGIKORTASUNA GAZTERIAREN ARLOAN

Prestakuntza-proiektuak eta gazteriaren arloko langileen garapen profesionalean laguntzeko sareak sortzea jarduerak eginez, hala nola mintegi transnazionalak edo nazioartekoak, prestakuntza-ikastaroak, harremanetan hasteko ekitaldiak edota ikastegien bisitak, baita ikaskuntza-aldiak ere atzerrian gazteriaren arloko erakunde aktibo batean.

Kaednai elkarteak Celebrating together 20 years of EVS proiektua aurkeztu du, hamaika herrialdetako gazte-dinamizatzaileen nazioarteko topaketa. Iruñean izanen da martxoaren 16tik 20ra, eta Donostian urrian, Donostia 2016 Europako Kultura-hiriburuaren esparruan egindako jardueren barne. Finantzaketa: **35.000 euro** (bi jarduera)

## 2. EKINTZA GAKOA: BERRIKUNTZARAKO ETA JARDUNBIDE EGOKIEN TRUKERAKO LANKIDETZA

**2. ekintza gakoa-. Elkarte estrategikoak hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloan:** Formatu irekia hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren kalitatea hobetzen duten proiektu berritzaileetarako.

- Tafallako Udala, proiektuaren izenburua: "This is a Green ' s World". Proiektua egiteko datak: 2015/09/01 eta 2017/09/01 bitartean. Emandako diru-laguntza: 87.780 euro.
- Batean Federazioa, proiektuaren izenburua: "European Emotional Education" 2016/09/01 eta 2018/06/30 bitartean. Emandako diru-laguntza: **52.800 euro.**

## INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

### NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUA

- **2 prestakuntza-ikastaro iristean** Nafarroako Gobernuaren eskutik, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bidez, Erasmus+ Gazteriaren arloko Espainiako Agentzia Nazionalarekin lankidetzan, autonomia-erkidego ezberdinetan elkarlanean diharduten herrialde desberdinetako boluntario gazteei laguntzeko asmoz. Europako Boluntarioen Zerbitzuaren prestakuntza-zikloaren baitan dago ikastaroa. Iruñean eta Altsasun egin zen apirilean eta uztailean, 19 herrialdetako 50 parte-hartzailerentzat, Gazteriaren arloko hezkuntza ez-formalaren metodologiari jarraikiz. Ikastaroetarako onartutako aurrekontua: **25.189 euro**
- **Europako Boluntarioen Zerbitzuaren 20. urteurrena** dela eta, informazio-jardunaldiak antolatu ziren martxotik irailera Iruñean, Tuteran, Tafallan, Altsasun, Burlatan, Corellan eta Azkoienen; Nafarroako erakundeek eta 750 gaztek hartu zuten parte. Horien helburua zen, batetik, Erasmus+ programa Gazteriaren arloan hedatzea eta, bestetik, EBZren aukerei buruzko informazioa ematea; askotariko hizlariak izan ziren bertan, baita gazte boluntarioak ere. Guztira, **3.452 euroko** finantzaketa izan zuten jardunaldiok.
- Prestakuntza-ikastaroa **Europako Boluntarioen Zerbitzuari buruz, gazte interesdunei EBZren proiektuetan parte hartzeko aukeren berri emateko Erasmus+ Gazteriaren esparruan,** azaroaren 17tik 20ra, 18 parte-hartzailerekin. **4.410 euro**
- Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak Sports as a tool for education and inclusion nazioarteko ikastaroa hartu zuen apirilaren 25etik 30era, EBko herrialde ezberdinetako gazteentzako proiektuen arduradun eta begiraleei zuzenduta, 15.328 euroko finantzaketarekin.

### Laburpen ekonomikoa

**ERASMUS+ Gazteria 2015.** Nafarroako gazteek eta erakundeek programa honetan parte hartzeko finantzaketa:

| ERASMUS + GAZTERIA | PARTE-HARTZAILEAK | FINANTZAKETA |
|---|---|---|
| K1 ekintza. Trukeak Nafarroan | 185 | 90.314 |
| K1 ekintza. Trukeak beste herrialde batzuetan | 65 | 33.150 |
| K1 ekintza. Nafarroan hartutako EBZ | 18 | 43.809,50 |
| Nafartarren EBZ beste herrialde batzuetan | 11 | 40,220 |
| K1 ekintza. Begiraleen mugikortasuna | 30 | 10.000 |
| K2 ekintza. Elkarte estrategikoak | 2 proiektu | 88.000 |
| Prestakuntza Nafarroan (NKGI eta NLA) | 4 proiektu | 48.379 |
| GUZTIRA | | 353.872,50 € |

# Garapen Estrategikoaren, Azpiegituren eta Baliabide Kudeaketaren Zuzendariordetza


*AZPIEGITURAK KUDEATZEKO ATALA*

2016KO KRONOLOGIA 147
2016KO LAGUNTZA-KONTRATUAK 153
ERROLDA ETA TRACASA 155
SEGURTASUNA 156
BIDEAK ETA MENDI FEDERAZIOA 156
KIROL-AZPIEGITUREN PLANA 157
IGERILEKUEN DEKRETUA 157
LARRABIDE FUTBOL-ZELAIA 2016 158
2016AN BEREZKO ZENTROETAN EGINDAKO BERRITZE-LANAK 160
UDALENTZAKO AHOLKULARITZA 161
KIROL FEDERAZIOENTZAKO AHOLKULARITZA 161
NAFARROAKO KIROLAREN KONTSEILUA 161
OSASUNA 161
BESTELAKOAK 161
NAVARRA ARENA PABILOIA 162

*ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ATALA*

2016KO EKITALDIKO EKINTZA NABARMENAK 166

# AZPIEGITURAK KUDEATZEKO ATALA

## *2016ko kronologia*

**2016-3-14** *209/2016 Ebazpena, martxoaren 14*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari Kirolaren Etxea garbitzeko, mantentzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko laguntza-kontratua esleitzea.

**2016-3-16** *214/2016 Ebazpena, martxoaren 15*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFK zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko otsailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016-3-23***234/2016 Ebazpena, martxoaren 21*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.931,74 (zortzi mila bederatziehun eta hogeita hamaika koma hirurogeita hamalau) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko otsailean Kirolaren Etxeko bulegoan Nafarroako Kirol Federazioei laguntza-kontratuaren esparruan emandako zerbitzuengatik, besteak beste, garbiketa-zerbitzua, mantentze-lanak, irekiera eta itxiera, kudeaketa, erabiltzaileen sarbidea egiaztatzea, administrazio-zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak.

**2016-3-23** *241/2016 Ebazpena, martxoaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko otsailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016-3-23** *242/2016 Ebazpena, martxoaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SL enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko otsailean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016-4-14** *283/2016 Ebazpena, apirilaren 13*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFK zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 26.778,16 (hogeita sei mila zazpiehun eta hirurogeita hamazortzi koma hamasei) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko martxoan Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016-4-27***296/2016 Ebazpena, apirilaren 25*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.931,74 (zortzi mila bederatziehun eta hogeita hamaika koma hirurogeita hamalau) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko martxoan Kirolaren Etxeko bulegoan Nafarroako Kirol Federazioei laguntza-kontratuaren esparruan emandako zerbitzuengatik, besteak beste, garbiketa-zerbitzua, mantentze-lanak, irekiera eta itxiera, kudeaketa, erabiltzaileen sarbidea egiaztatzea, administrazio-zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak.

**2016-4-27** *304/2016 Ebazpena, apirilaren 26*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko martxoan Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016-4-29** *312/2016 Ebazpena, apirilaren 28*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SL enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko martxoan Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016-5-16** *334/2016 Ebazpena, maiatzaren 11*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeari 35.000,00 eurora arteko diru-laguntza ematea zuzenean, 2016an zehar GR deritzen Nafarroako mendi-bideen mantentze-lanak egiteko eta horien osagarri diren bideak berreskuratu, markatu, homologatu eta hobetzeko; xede horretarako, diru-laguntzak oinarri duen hitzarmenaren testua onartzen da, bai eta dagokion gastua baimendu ere.

**2016-5-18** *343/2016 Ebazpena, maiatzaren 16*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFK zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko apirilean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016-5-19** *344/2016 Ebazpena, maiatzaren 17*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen da Waagner Biro erakundeko langileek Iruñeko Printzearen Gotorlekua egoitzan ostatu har dezaten 2016ko maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean, Navarra Arena Pabiloiko harmailak eta plataformak erabiltzeari buruzko ikastaroan parte hartzeko helburuz.

**2016-5-27** Navarra Arena Pabiloiko harmailak eta plataformak erabiltzeari buruzko prestakuntza-ikastaroa Waagner Biro erakundearen eskutik, maiatzaren 23tik 30era; Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko eta NICDO enpresa publikoko langileek parte hartu dute.

**2016-5-27** *362/2016 Ebazpena, maiatzaren 26*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SL enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko apirilean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016-6-10** *403/2016 Ebazpena, ekainaren 10*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko maiatzean Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**2016-6-14** Reyno de Navarra Fase II ABEEri jazoeren-bermeen egoerari buruzko txostena helaraztea posta ziurtatu bidez.

**2016-6-16** *Kirolaren Etxean kokaturiko kirol-federazioei 5/2016 eta 57/2016 Ebazpenak ematea, urtarrilaren 20koa eta martxoaren 3*koa, hurrenez hurren. Horien bidez Kirolaren Etxearen erabilera lagatzen zaie.

**2016-6-16** *411/2016 Ebazpena, ekainaren 14*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez proposatzen da Auzien Epaitegiaren gordailuan eta zainpean jartzeko kontuan 2.541 euro sartzea, Administrazioko Auzietarako Bi zenbakiko Epaitegiak izendatutako Ignacio Azcárate Seminario aditu judizialari ordaintzeko helburuz, 412/2015 Ebazpenaren 281/2015 Prozedura Arrunta dela eta. Horren bitartez, Reyno de Navarra Waagner Biro m-40 ABEEren alde ematen da kontratuzko arduraren irizpena, 284.006,09 eurotan, FCC Construcciones SA y Obras Especiales de Navarra SA enpresaren aurka, Navarra Arena Pabiloiaren lanetan izandako atzerapenak direla eta.

**2016-7-16** *466/2016 Ebazpena, uztailaren 5*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko maiatzean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio

termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016-7-18** *468/2016 Ebazpena, uztailaren 5*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko maiatzean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016-7-18** *473/2016 Ebazpena, uztailaren 5*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez gaitzetsi egiten da José Antonio Carriles García jaunak, "FASE II PABELLÓN REYNO DE NAVARRA UTE" enpresaren ordezkari gisa, aurkeztutako kontratuzko erantzukizuneko erreklamazioa, non 3.934.389,06 euroko kalte-ordainak eskatzen baitzituen abenduaren 30eko 275/2011 Ebazpenak, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandakoak, eragindako ustezko kalteengatik; horren bitartez, "FASE II PABELLÓN REYNO DE NAVARRA UTE" enpresarekiko kontratuaren aldaketa onesten zen, ZNO-1 Iruñeko XXIII. unitate bateratuaren hirigintza-proiektuen lanak gauzatzeko eta "Reyno de Navarra Arena" erabilera anitzeko pabiloiaren II. fasearen eraikuntza-proiektua garatzeko

**2016-7-20** *483/2016 Ebazpena, uztailaren 19*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen zaio Nafarroako Txirrindularitza Federazioari XXX. Iruñeko Txirrindularitza Itzulian parte hartzen dutenei Altsasuko "Otadiko Santo Kristo" gazteen aterpetxean eta Iruñeko Printzearen Gotorlekua egoitzan ostatu emateko, 2016ko abuztuaren 3tik 6ra.

**2016-7-21** *504/2016 Ebazpena, uztailaren 20*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFZ zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari ematea Navarra Arena Pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanen kontratua, 7.132,83 eurotan, BEZa gabe (8.630,72 euro BEZa barne), kontratua gauzatzen den hurrengo egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte.

**2016-7-26** *506/2016 Ebazpena, uztailaren 21*ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko ekainean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016-7-26** *524/2016 Ebazpena, uztailaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko maiatzean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016-7-26** *525/2016 Ebazpena, uztailaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko ekainean Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**2016/8/4** *531/2016 Ebazpena, uztailaren 29*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko ekainean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016/8/4** *534/2016 Ebazpena, abuztuaren 3*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren

Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko ekainean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016/9/5** *581/2016 Ebazpena, irailaren 1*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko uztailean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016/9/5** *582/2016 Ebazpena, irailaren 1*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko uztailean Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**2016/9/8** *588/2016 Ebazpena, irailaren 7*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko abuztuan Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**2016/9/12** *593/2016 Ebazpena, irailaren 12*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen zaio Osasuna Klub Atletikoari Sadar futbol-zelaian askotariko lanak egiteko.

**2016/9/15** *603/2016 Ebazpena, irailaren 13*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko uztailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016/9/15** *604/2016 Ebazpena, irailaren 13*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko uztailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016/9/20** *613/2016 Ebazpena, irailaren 19*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko abuztuan Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016/9/22** *631/2016 Ebazpena, irailaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-83179416 IFZ zenbakidun SPORT EQUIPALIA, SL enpresari Larrabide Estadio-Kirol Teknifikazioaren Zentroaren belar artifizialeko futbol-zelaia berritzeko lan-kontratua esleitzea,154.614,14 euroren truke, BEZ gabe (187.083,11 euro BEZa barne).

**2016/9/23** *635/2016 Ebazpena, irailaren 23*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko abuztuan Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**2016/9/28** *633/2016 Ebazpena, irailaren 23*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen zaio Nafarroako Pilota Federazioari 2016ko irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an berorren eta Bartzelonako Nafarren Etxeko Pilota Eskolaren artean izanen den euskal pilotako trukean parte hartzen dutenei Iruñeko Printzearen Gotorlekua egoitzan ostatu emateko aipatu egunetan.

**2016/10/6** *658/2016 Ebazpena, urriaren 4*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez Javier Larumbe Odériz jaunari esleitzen zaizkio Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroaren belar artifizialeko futbol zelaia eraberritzeko obraren zuzendaritza-lanak.

**2016/10/11** *668/2016 Ebazpena, urriaren 10e*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen zaio Nafarroako Triatloi Federazioari azaroaren 4tik 6ra bitartean izanen den 2016ko Triatloiko Teknifikazio Zentroko kontzentrazioan parte hartzen dutenei Iruñeko Printzearen Gotorlekua egoitzan ostatu emateko aipatu egunetan.

**2016/10/14** *677/2016 Ebazpena, urriaren 13*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko irailean Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**2016/10/14** *678/2016 Ebazpena, urriaren 13*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko abuztuan Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016/10/18** *696/2016 Ebazpena, urriaren 17*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da Larrabide Estadio eta Kirol Teknifikazioaren Zentroaren belar artifizialeko futbol zelaia eraberritzeko obren segurtasun- eta osasun-plana.

**2016/10/18** *698/2016 Ebazpena, urriaren 17*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko irailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**2016/10/19** *708/2016 Ebazpena, urriaren 19*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko irailean Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**2016/10/24** *717/2016 Ebazpena, urriaren 21e*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 1.484,49 euro ordaintzea (BEZa barne), Navarra Arena Pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanengatik; FVR201618015427 zenbakidun fakturan azaltzen dira 1. multzoko lan horiek.

**2016/10/26** *730/2016 Ebazpena, urriaren 25e*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko irailean Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**16/11/11** *748/2016 Ebazpena, azaroaren 9*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen da Larrabide Estadio eta Kirol Teknifikazioaren Zentroaren futbol-zelaia berritzeko lan-kontratua gauzatzeko epea zabaltzeko.

**16/11/11** *759/2016 Ebazpena, azaroaren 10*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresarekin sinatutako zerbitzu-kontratuaren lehen luzapena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko.

**16/11/21** *766/2016 Ebazpena, azaroaren 17*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko urrian Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**16/11/22** *775/2016 Ebazpena, azaroaren 21*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko urrian Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**16/11/22** *776/2016 Ebazpena, azaroaren 21*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko urrian Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

**16/11/25** *785/2016 Ebazpena, azaroaren 24*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da 2017an Kirolaren Etxea garbitzeko, mantentzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena.

**16/11/25** *786/2016 Ebazpena, azaroaren 24*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresarekin sinatutako zerbitzu-kontratuaren bigarren luzapena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko.

**16/12/12** *801/2016 Ebazpena, abenduaren 7*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 2.814,70 (bi mila zortziehun eta hamalau koma hirurogeita hamar) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko urrian Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxikitako zentro eta egoitzetan instalazio termikoak, igogailuak eta eskailera-igogailuak, suteen aurkako babes-elementuak eta goi- eta behe-tentsioko elementuak mantentzeko zerbitzu teknikoagatik.

**16/11/11** *809/2016 Ebazpena, abenduaren 12*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen da Larrabide Estadio eta Kirol Teknifikazioaren Zentroaren futbol-zelaia berritzeko lan-kontratua gauzatzeko epea bigarren aldiz luzatzeko, 2016ko azaroaren 28tik abenduaren 7ra.

**16/12/20** *849/2016 Ebazpena, abenduaren 16*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresari 8.175,86 (zortzi mila ehun eta hirurogeita hamabost koma laurogeita sei) euro ordaintzea, 2016ko azaroan Kirolaren Etxean egindako garbiketa, mantentze-lan eta kudeaketa zerbitzuengatik, laguntza-zerbitzuko kontratuaren laguntza teknikoa dela eta.

**16/12/28** *871/2016 Ebazpena, abenduaren 22*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez baimena ematen zaio Osasuna Klub Atletikoari Sadar futbol-zelaian eta Taxoareko instalazioetan askotariko lanak egiteko.

**16/1/3** *885/2016 Ebazpena, abenduaren 27*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren

Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da Q-3116650-G IFK zenbakidun Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeari maiatzaren 11ko 334/2016 Ebazpenaren bitartez onetsitako 35.000,00 euroak ordaintzea, 2016an zehar GR deritzen Nafarroako mendi-bideen mantentze-lanak egiteko eta horien osagarri diren bideak berreskuratu, markatu, homologatu eta hobetzeko.

**16/1/3** *886/2016 Ebazpena, abenduaren 27*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da ACCIONA FACILITY SERVICES, SA enpresari 22.978,35 euro ordaintzea, 2016ko azaroan Guelbenzu Jolaslekuan egindako garbiketa, mantentze-lan, sorospen, sarbide-kontrol eta fitness gelako teknikariaren zerbitzuengatik.

**16/1/3** *887/2016 Ebazpena, abenduaren 27*koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31613599 IFZ zenbakidun INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL enpresari 28.353,93 (hogeita zortzi mila hirurehun eta berrogeita hamahiru koma laurogeita hamahiru) euro ordaintzea (BEZa barne), 2016ko azaroan Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak, Gazteriaren Zuzendariordetzaren Egoitza, Larrabide Estadioa-Kirol Teknifikazioaren Zentroa, Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa eta Printzearen Gotorlekua gazteen egoitza garbitzeko kontratuaren esparruan laguntza teknikoa emateagatik.

## *2016ko laguntza-kontratuak*

### KIROLAREN ETXEA

Kontratua abian da, eta 2019ra arte luza daiteke

- 785/2016 Ebazpena, azaroaren 24koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-31235492 IFZ zenbakidun SEDENA, SL enpresarekin 2017an Kirolaren Etxea garbitzeko, mantentzeko eta kudeatzeko sinatutako zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena.

**Zenbatekoa:** 98.110,37 euro, BEZa barne.

- 5/2016 Ebazpena, urtarrilaren 20koa, martxoaren 3ko 57/2016 Ebazpenak aldatutakoa, Aurrekontuaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautu da, administrazioa oinarri hartuta, Kirolaren Etxea egun erabiltzen duten kirol-federazio eta -erakundeek hango lokalak erabiltzeko doako lagapena.

### KIROLAREN ETA GAZTERIAREN ZENTROEN MANTENTZE-LANAK

Kontratua abian da, eta 2019ra arte luza daiteke

- 759/2016 Ebazpena, azaroaren 10ekoa, kontratuaren lehen luzapena onesten duena 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

**Zenbatekoa:** 33.776,52 euro, %21eko BEZa barne

**Enpresa:** VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU.

## KIROLAREN ETA GAZTERIAREN ZENTROEN GARBIKETA

Kontratua abian da, eta 2018ra arte luza daiteke.

- 786/2016 Ebazpena, azaroaren 24koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da kontratuaren lehen luzapena 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

**Zenbatekoa:** 340.247,28 €

**Enpresa:** INTEGRACIÓN DE SERVICIOS NUEVOS, SL.

## KLIMATIZAZIO, ERAUZKETA, ITURGINTZA, SANEAMENDU ETA SUTEEN AURKAKO BABES ELEMENTUEN MANTENTZE-LANAK NAVARRA ARENA PABILOIAN 2016AN ZEHAR

- 504/2016 Ebazpena, uztailaren 20koa. Honen bidez onesten da A-15208408 IFZ zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari ematea Navarra Arena Pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanen kontratua, 7.132,83 eurotan, BEZa gabe (8.630,72 euro BEZa barne), kontratua gauzatzen den hurrengo egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte.

- 717/2016 Ebazpena, urriaren 21ekoa, FVR201618015427 zenbakidun fakturari dagozkion 1.484,49 euroak (BEZa barne) ordaintzea onesten duena, 1. multzotik egindako lanen adierazle.



- 906/2016 Ebazpena, abenduaren 30ekoa, FVR201618015427 zenbakidun fakturari dagozkion 7.146,23 euroak (BEZa barne) ordaintzea onesten duena, 2., 3. eta 4. multzotik egindako lanen adierazle.

### GUELBENZU JOLASLEKUAREN KUDEAKETA

2018ra arte luza daiteke kontratua

- 846/2015 Ebazpena, abenduaren 22koa, lehen luzapena onesten duena

**Zenbatekoa:** 275.740,18 euro

**Enpresa:** ACCIONA FACILITY SERVICES

## *Errolda eta TRACASA*

### KIROL-INSTALAZIOEN ERROLDA

- TRACASA.-1.916,01 euro ordaindu zaizkio TRACASA enpresari Nafarroako Instalazioen Erroldaren webgunea mantentzeagatik eta ostatatzeagatik

Nafarroako Gobernuaren Departamentuetako Informazio Sistemen Zerbitzuaren baimena

- ERROLDA EGUNERATZEA.- Aurrekontu-falta dela eta, 2016an ez dira erroldako webguneak eguneratu.

Hauek dira 2011ko datuak:

1.480 kirol-instalazio, 3.749 kirol-gune

- GRUPO-CAMPUS ENPRESAREN PROPOSAMENA: Nafarroako kirol-instalazioen erroldarako funtzionaltasun berriakPROPUESTA DE LA EMPRESA GRUPO-CAMPUS: Nuevas funcionalidades para el Censo de II DD de Navarra

## Segurtasuna

### SEGURTASUNA KIROL-INSTALAZIO ETA -EKIPAMENDUETAN

#### INSTALAZIOEN SEGURTASUN-AKTAK

| | |
|---|---|
| IZAPIDETUTAKO AKTAK | 374 |
| BALIOZKOTUTAKO AKTAK | 294 |
| EZABATUTAKO AKTAK | 55 |
| ZURIA | 25 |
| DATUAK ALDATZEKO ESKAERAK | 101 |
| BAJA-ESKAERA | 2 |
| ALTA-ESKAERA | 3 |

#### GERTAKARIRIK ADIERAZGARRIENAK

ARANTZA:

Navarra Navarra

SUCESOS

**Un menor herido por la caída de una canasta de baloncesto en el colegio de Arantza**

## Bideak eta Mendi Federazioa

### MANTENTZE-LANETARAKO HITZARMENA

- 334/2016 Ebazpena, maiatzaren 11koa. Honen bidez onesten da Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeari 35.000,00 eurora arteko diru-laguntza ematea zuzenean, 2016an zehar GR deritzen Nafarroako mendi-bideen mantentze-lanak egiteko eta horien osagarri diren bideak berreskuratu, markatu, homologatu eta hobetzeko; xede horretarako, diru-laguntzak oinarri duen hitzarmenaren testua onartzen da, bai eta dagokion gastua baimendu ere.
- 885/2016 Ebazpena, abenduaren 28koa, Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeari maiatzaren 11ko 334/2016 Ebazpenaren bitartez onetsitako 35.000,00 euroak ordaintzea onesten duena

### HOMOLOGAZIOA

Honako bide hauek homologatu dira:

| URTEA | SUSTATZAILEA | BIDEAREN IZENA |
|---|---|---|
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | GR 11 - PIRINIOETAKO BIDEA |
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | GR 12 - EUSKAL HERRIKO BIDEA |
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | GR 20 - ARALAR ZEHARREKO ITZULIA |
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | GR 220 - IRUÑEKO IBARREAN ZEHARREKO ITZULIA |

MEKNF; honako bide hauek homologatu dira:

| URTEA | SUSTATZAILEA | HERRIA | BIDEAREN IZENA |
|---|---|---|---|
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | | E.GR 11-GR 12 BIDASOAKO TREKKINGA (63,17 km) |
| 2016 | NAFARROAKO GOBERNUA | | GTR5 KULUNKA BIDEA T-formako batasuna Frantziako GR10 eta GR 11 bitartean (28,35 km) |

### HOMOLOGATZEKO BIDEAN

Ezkabarteko Udalak honako bide hauen homologazioa eskatu du:

- IGANTZUKO DORREA.
- SORAURENGO GUDUA

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak bide honen homologazioa eskatu du:

- GR 225 – EZKABATIK IHESA-1938.

## *Kirol-azpiegituren plana*

Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren adostasunaren zain, Kirol Azpiegituren Batzorde espezifikoa eratu da, KIROL-INSTALAZIOAK OPTIMIZATZEKO ETA BERRITZEKO PLANA garatzeko lantalde gisa.

Bi lan-saio egin dira: ekainaren 21ean eta azaroaren 23an.

Honako helbide honetan bada batzordeak egindako edo erabilitako lan-saio eta dokumentuei buruzko informazioa:

http://intranet.infolocal.admon-cfnavarra.es/colaboracion/INDJ/CONSEJONAVARRODEPORTE/Optimizacion/default.aspx

## *Igerilekuen dekretua*

NLOIk egindako Igerilekuen Dekretuaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzko txostena.

Nafarroako kirol-instalazio guztietara zabal litekeen igerileku seguru eta osasungarrien autokontrolerako software-proposamenari buruzko txostena.

## Larrabide futbol-zelaia 2016

### LIZITAZIOA

Lizitazio-iragarkia kontratazio-atarian: 2016ko urriak 8

**Lizitazioaren zenbatekoak:**

| | BEZ GABE | BEZ-AREKIN |
|---|---|---|
| LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA | 187.760,16 € | 227.189,79 € |
| ERRESERBA, UNITATEEN ALDAKETA (Kultur Ondarearen Foru Legearen 106. eta 108. art.) – %10 | 18.776,02 € | 22.718,98 € |
| **KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA** | **206.536,18 €** | **249.908,77 €** |

**Lehiaketan parte hartzen duten enpresak:**

- Obras y pavimentos especiales, SA
- FieldTurf Poligras.
- Mondo Iberica, SA
- Carlos Martínez Ugarte – CM10.
- Sport Equipalia, SL

### ESLEITUTAKOA

631/2016 EBAZPENA, irailaren 22koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da B-83179416 IFZ zenbakidun SPORT EQUIPALIA, SL enpresari Larrabide Estadio eta Kirol Teknifikazioaren Zentroaren belar artifizialeko futbol-zelaia berritzeko lan-kontratua esleitzea,154.614,14 euroren truke, BEZ gabe (187.083,11 euro BEZa barne).

### GAUZATZE-LANAK

**Helbidea:** Javier Larumbe Odériz. Arkitekto Teknikoa, NKGI

**Segurtasun eta Osasuneko koordinazioa:** Hodei Lujambio Apezetxea eta Iñaki Peregrina Rey, CFP PREVENCIÓN enpresakoak.

2016ko urriaren 17an zuinketa-akta sinatu zen, eta obrak hasi ziren. 2016ko abenduaren 19an kontratuaren xede diren obrak jaso zituen NKGIk

Azkenik, 2016ko abenduaren 21ean, Sport Equipalia, SL enpresak dokumentazio hau aurkeztu zuen NKGIren Erregistroan (Dok. 2016/696470), besteak beste: F30888 faktura eta lehen eta azken ziurtagiriak, zergen aurreko zenbatekoarekin: 170.075,07 euro.

## OBREN KOSTUA

ZELAIA ETA LAN OSAGARRIAK

| | | |
|---|---|---|
| **ESPALOIA** | **JIM SPORTS** | 10.630,16 |
| | %21EKO BEZ-A | 2.232,33 |
| | GUZTIRA | **12.862,49** |
| | **COTEDE** | 5.145,00 |
| | %21EKO BEZ-A | 1.080,45 |
| | GUZTIRA | **6.225,45** |
| | **ARGIZTAPENA - COTEDE** | 2.121,82 |
| | %21EKO BEZ-A | 445,58 |
| | GUZTIRA | **2.567,40** |
| **SAREAK** | **JIM SPORTS** | 4.820,28 |
| | %21EKO BEZ-A | 1.012,26 |
| | GUZTIRA | **5.832,54** |
| | **LINEALA** | 500,00 |
| | %21EKO BEZ-A | 105,00 |
| | GUZTIRA | **605,00** |
| **ELEKTRIZITATEA** | **NAVESA** | 1.470,00 |
| | %21EKO BEZ-A | 308,70 |
| | GUZTIRA | **1.778,70** |
| **LANA ESLEITUTA** | GAUZATZE MATERIALA | 191.236,65 |
| | %8 GO eta IE | 15.298,93 |
| | KONTRATA | 206.535,58 |
| | AZPITIK | %17,65 |
| | KONTRATA AZPITIK | 170.075,06 |
| | %21EKO BEZ-A | 35.715,76 |
| | GUZTIRA | **205.790,83** |
| INBERTSIOA, GUZTIRA | | **235.662,41** |

## ORAINGO EGOERAREN ARGAZKIAK

ALDATUTA

## 2016an berezko zentroetan egindako berritze-lanak

| ZENTROA | OBRA | ENPRESA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|
| Larrabide | Zoladura ordeztea atletismoko gimnasioan | Innomat | 9.969,55 |
| Larrabide | Komunak ordeztea atletismoko bainugeletan | Zulaga | 5.468,76 |
| Larrabide | Atletismoko harmailen estalkia ordeztea | Cubiertas Pagola | 14.007,98 |
| Larrabide | Euri-urak biltzea aparkalekuan | Royo hermanos | 26.657,47 |
| Larrabide | Atletismo-pistaren gurutzetaren zoladura ordeztea | Mondo* | 18.871,04 |
| Larrabide | Zolata eta trinketera sartzeko maila egitea | Zulaga | 17.494,91 |
| Larrabide | Aparkalekuko asfaltoa | Asfaltos de Biurrun | 34.962,70 |
| Larrabide | Atletismoko aldagelen sabai aizuna ordeztea | Aislamientos San Fermin | 3.690,26 |
| KAIMZ | Beheko solairua margotzea | Pinturas los Arcos | 3.358,57 |
| Printzearen Gotorlekua | Eraikin berriaren teilatu-hegala konpontzea | Pinturas los Arcos | 13.368,31 |
| Printzearen Gotorlekua | Eraikin berriaren lehen solairua margotzea | Pinturas los Arcos | 18.447,47 |
| Guelbenzu | Ez labaintzeko tratamendua zeramikazko zoladuran | Pequinsa | 5.811,24 |
| Guelbenzu | Galdaren gelako kontsola ordezkatzea | Veolia | 6.525,35 |
| Guelbenzu | Frontoia eta igerilekua banatzeko hesi artifiziala jartzea | Maderplay | 2.243,12 |
| Kirolaren etxea | Larrialdietako argiak ordezkatzea | Electricidad Navesa | 4.810,96 |
| NKGI | Bainugela egokitzea elbarriek erabil dezaten | Zulaga | 17.315,11 |
| Gazteria | Koadro elektrikoa aldatzea eta argiak ordezkatzea | Electricidad Navesa | 3.273,17 |
| Doneztebe | Galdaren gela gas naturalerako egokitzea | Instalaciones Saskaitz | 9.185,88 |
| **GUZTIRA** | | | 215.461,85 |

## Udalentzako aholkularitza

| UDALA | AHOLKULARITZA |
|---|---|
| Andosilla | Eszenatokia |
| Agoitz | Futbol-zelaia berritzea |
| Arbizu | Gazteria |
| Basaburua / Imotz | Eurovelo |
| Bera | Belar artifizialeko futbol-zelaia |
| Burlata | Beisbol-zelaia |
| Etxarri Aranatz | Kirol-instalazioen plana |
| Los Arcos | Kirol-instalazioen plana |
| Luzaide | Igerileku estalia |
| Otsagabia Salazar | Eski-zentroa |
| Gares | Kirol-instalazioak |
| Beriain | Igerileku estalia |
| Tutera | Pabiloia eta instalazioen plana |
| Uharte Arakil | Pilotalekua |
| Lodosa | Pilotalekuaren lurzorua |
| Betelu | Betelu-Tolosako tunelak |

## Kirol federazioentzako aholkularitza

- Ebazpen bidezko arauketa Kirolaren Etxeko guneak federazioei lagatzeko.
- Ebazpen bidezko arauketa Larrabideko gunea Nafarroako Atletismo Federazioari lagatzeko.
- Xake Federazioa. Kirola egiteko litezkeen guneak aztertzea.

## Nafarroako kirolaren kontseilua

- Instalazioen Batzordearen eraketa.
- Batzordeko 2 bilera.

## Osasuna

- 593/2016 Ebazpena, irailaren 12koa, Sadar zelaian askotariko lanak egitea baimentzen duena.
- 871/2016 Ebazpena, abenduaren 22koa, Sadar eta Taxoare zelaietan askotariko lanak egitea baimentzen duena.
- Hitzarmena prestatzea Taxoare zelaiko instalazioak erabiltzeko irizpideak eta tasak zehazteko.

## Bestelakoak

### ITOIZ. NAFARROAKO UBIDEA

2 bilera eta txosten bat Nagoreko urtegiaren proiektuan aurreikusitako kirol-instalazioetako jarduerei buruz.

### 2017-2019 PLAN ESTRATEGIKOA

Azpiegituren fitxak.

### KKGREN ARGITALPENA

"Kirol Azpiegituren Kudeaketaren plangintza".

Poctefa. Belaguako "Angel Olorón" aterpea berreskuratzeko proiektuaren txostena

## Navarra Arena Pabiloia

### NAVARRA ARENA PABILOIARI BURUZKO DATU GARRANTZITSUENAK

### BISITEN ERREGISTROA

2016an informazio-bisitak antolatu dira eraikinera:

- CENIFER.
- UPNA (ingeniaritza elektrikoa).
- Nafarroako Enplegu Zerbitzua.
- CEIM.
- Informazio-bisitak sektoreko enpresetara

### MANTENTZE-LANAK ETA KONPONKETAK:

**38 enpresak** mantentze-lanak garatu eta aparteko gorabeherak konpondu dituzte urtean zehar:

| | |
|---|---|
| ADISGRUP | GL EVENTS |
| FCC INDUSTRIAL | PREMOSA |
| CIMESA | SIEMENS |
| WAAGNER BIRO | Sernatec |
| ALISMOBILE | EXTINIRUÑA |
| ECHARTE | GRUPO NORTE |
| VENCLIMER | LINEAL |
| VALDIZARBE | VEOLIA |
| IFAR | Navimper |
| ALUVAN | DOEPA |
| Marboré protección en altura | GLOBALPIN |
| SERCOIN | ECA |
| IEP geotermia | LIMPIEZAS IROTZ |
| CLIMATIZE | Tecresa |
| DESOL | JESLAR |
| KONEVA | COTENOR |
| OBENASA | Cottes |
| DELINEAL | |
| CARMAN | |
| INNOMAT | |
| CIRAUQUI | |

## MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO-KOSTUAK

| | |
|---|---|
| Segurtasuna | 0,00<br>(98.844 euro 2015ean) |
| Elektrizitatea | 88.330,91<br>(118.707 euro 2015ean) |
| Ura | 3.776,37 |
| Gasa | 9.496,80 |
| Gasolioa | 0,00 |
| Garbiketa | 5.467,99 |

| | |
|---|---|
| Alarma-abisuak jasotzeko zentrala eta alarmak mantentzeko kontratuak (Sercoin, Nasertic) | 4.833,96 |
| Unitate berriak mantentzeko kontratua (Veolia) | 8.630,72 |
| Harmailen bideoa | 2.014,00 |
| Aditu judiziala | 2.541,00 |
| Bestelakoak | 2.047,08 |
| MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO-KOSTUAK GUZTIRA | 127.138,83 |
| ZENBATEKOA JAITSI EGIN DA: | 129.221 EURO |



## ANTZEMANDAKO GORABEHERAK

2016an 73 gorabehera berri antzeman ziren, 1516tik 1589ra bitarteko gorabeherak, hain zuzen ere; haietako 31 konpondu dira, eta 42 geratzen dira konpontzeke.

## PABILOIKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA GARRANTZITSUENAK

1. BSP Consultores enpresaren ikuskaritza pabiloiaren energia-ziurtagiriari buruz
2. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara bidali dira ondorioak, 296/2014 prozedura arrunta dela eta.
3. Aholkularitza juridikoak bidali du demanda formalizatzeko dokumentazioa, 281/15 prozedura arrunta dela eta.
4. 30/1016 Ebazpena, otsailaren 8koa, Aurrekontuaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez esleitzen dira 1., 2. eta 3. multzoen ondoriozko kontratuak energia elektrikoaren hornigaia kontratatzeko esparru-hitzarmenaren baitan, Foru Komunitatearen Administrazioa jabe den kontsumo-puntuak helburu dituena, 2016ko ekainaren 1etik 2017 abenduaren 31ra bitartean.
5. 062/2016 Epaia (aldekoa), Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 295/2015 prozedura arruntari emana abuztuaren 3ko 553/2015 Ebazpenaren aurka. Honen bidez, 84.538,74 € eskatzen zaizkio Udalari uztailaren 2ko 331/2014 Epaia dela eta.
6. Ogasuneko diru-bilketako zerbitzuak Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziari helarazitako mezua, 35.561,73 euroko zorrari dagokionez.
7. Apelazioa ebazten duen 201/2016 epaia, maiatzaren 4koa, aldekoa, 65/2015 prozedura dela eta, berandutze-interesei buruz.
8. Hitzaldirako txostena, Nafarroak Navarra Arena Pabiloiari dagokionez duen zorra dela eta
9. NKGIren zuzendari kudeatzaileak Nasuvinsari helarazitako eskaera, Obenasa FCC aldi baterako eraikuntzako enpresa-elkarteak 2015eko abenduan eskatutako demandaren iritzi teknikoari buruzko lehen txostena dela eta.
10. 346/2016 Ebazpena, maiatzaren 19koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da merkatuaren aurretiko kontsulta egiteko deialdia, helburu izanik Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia kudeatzeko eta ustiatzeko konponbideak bilatzea.
11. Prestakuntza-ikastaroa Navarra Arena Pabiloiko plataformak eta harmailak erabiltzeari buruz Waagner Biroren eskutik, maiatzaren 23tik 30era; NKGIko eta NICDO enpresa publikoko langileek parte hartu dute bertan.
12. Pabiloia jaso eta 3 urtera jazotako gorabeherei buruzko jakinarazpena.
13. Pabiloiko argi-kontratuaren aldaketa.
14. 411/2016 Ebazpena, ekainaren 14koa, NKGIko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez proposatzen da Auzien Epaitegiaren gordailuan eta zainpean jartzeko kontuan 2,541 euro sartzea, aditu judizialari ordaintzeko helburuz, 412/2015 Ebazpenaren 281/2015 Prozedura Arrunta dela eta. Horren bitartez, Reyno de Navarra Waagner Biro m-40 ABEEren alde ematen da kontratuzko arduraren irizpena, 284.006,09 eurotan, FCC Construcciones SA y Obras Especiales de Navarra SA enpresaren aurka, pabiloiaren lanetan izandako atzerapenak direla eta. Waagner Biroren kalte-ordainaren eragina.
15. Waagner Biroren 2016ko mantentze-lanetako txostena plataformei eta harmailei buruz.
16. Reyno de Navarra Fase II aldi baterako enpresa-elkarteari bidalitako txostena gorabeheren/bermeen egoerari buruz.
17. Berandutze-interesei buruzko epaia. Administrazioko Auzietarako Hiru zenbakiko Epaitegiaren ofizioa berandutze-interesei buruz (65/2015 Prozedura Arrunta).
18. 801.000 euroko abala (8813G0913959) ezeztatzeko eta Reyno de Navarra Waagner Biro-Alis M40 aldi baterako enpresa-elkarteari itzultzeko izapidea.
19. 473/2016 Ebazpena, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez gaitzetsi egiten da José Antonio Carriles García jaunak, "FASE II PABELLÓN REYNO DE NAVARRA UTE" enpresaren ordezkari gisa, aurkeztutako kontratuzko erantzukizuneko erreklamazioa, non 3.934.389,06 euroko kalte-ordainak eskatzen baitzituen abenduaren 30eko 275/2011 Ebazpenak, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Insti-

tutuko zuzendari kudeatzaileak emandakoak, eragindako ustezko kalteengatik; horren bitartez, "FASE II PABELLÓN REYNO DE NAVARRA UTE" enpresarekiko kontratuaren aldaketa onesten zen, ZNO-1 Iruñeko XXIII. unitate bateratuaren hirigintza-proiektuen lanak gauzatzeko eta "Reyno de Navarra Arena" erabilera anitzeko pabiloiaren II. fasearen eraikuntza-proiektua garatzeko.

20. 504/2016 Ebazpena, uztailaren 20koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFZ zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari ematea Navarra Arena Pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanen kontratua, 7.132,83 eurotan, BEZa gabe (8.630,72 euro BEZa barne), kontratua gauzatzen den hurrengo egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte.
21. Gora jotzeko errekurtsoa, Fase II Pabellón Reyno de Navarra aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztua, uztailaren 5eko Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 473/2016 Ebazpenaren aurka. Honen bidez atzera botatzen da "FASE II PABELLÓN REYNO DE NAVARRA UTE" enpresak aurkeztutako kontratu-erantzukizuneko erreklamazioa.
22. Abuztuaren 12an ofizioa helarazi zitzaion aldi baterako enpresa-elkarteari, uztailaren 4an berak bidalitakoari erantzuteko eta gorabeheren zuzenketa 2016ko urriaren 31ra partzialki luzatzeko.
23. Merkatuaren aurretiko kontsulta egiteko deialdian parte hartzeko eskaerak onestea, helburu izanik Navarra Arena erabilera anitzeko pabiloia kudeatzeko eta ustiatzeko konponbideak bilatzea 4 enpresarentzat. (Irailaren 12ko ebazpenak).
24. 717/2016 Ebazpena, urriaren 21ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 1.484,49 euro ordaintzea (BEZa barne), Navarra Arena pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanengatik; FVR201618015427 zenbakidun fakturan azaltzen dira 1. multzoko lan horiek.
25. FCC Construcción OBENASAren idazlana "Reyno de Navarra Arena" erabilera anitzeko pabiloiaren II. fasean izandako gorabeherei buruz.
26. 83/2016 Foru Agindua, azaroaren 18koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana. Honen bidez atzera botatzen da José Antonio Carriles García jaunak, Fase II Pabellón Reyno de Navarra UTE enpresaren ordezkari gisa, uztailaren 5eko 473/2016 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa, 3,9 milioi euroko erreklamazioa dela eta.
27. "Pabiloiaren irekiera eta kudeaketa-ereduak" txostena.
28. 906/2016 Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da A-15208408 IFK zenbakidun VEOLIA SERVICIOS NORTE, SAU enpresari 7.146,23 euro ordaintzea (BEZa barne), Navarra Arena pabiloiko klimatizazio, erauzketa, iturgintza, saneamendu eta suteen aurkako babeseko elementuen mantentze-lanengatik, 2., 3. eta 4. multzoko lanen adierazle.

# ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ATALA

## 2016ko ekitaldiko ekintza nabarmenak

**1. LANEKO PLANGINTZAREN HELBURUA DA BULEGO NAGUSIEK, BI ERAIKIN INDEPENDENTETAN KOKATURIK DAUDENEK, ETA KIROLAREN ETA GAZTERIAREN BEREZKO ZENTROEK EKIPAMENDU EGOKIAK IZAN DITZATEN ETA HORIEK, ERA BEREAN, INDARREAN DAGOEN ARAUDIARI HEL DIEZAIOTEN EGOKITASUNARI, SEGURTASUNARI ETA ARRISKUEN PREBENTZIOARI DAGOKIENEZ.**

- Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko bulego nagusiak etengabe eta apurka hornitzen ari gara, ohiko baliabideei, ekipamenduari eta material informatikoari, altzariei, bulegoko materialari eta bulegoak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den ekipamendu orokorrari dagokienez; tresna informatiko guztiak, bestalde, Windows 7 sistema eragilera aldatu dira eta, beraz, eragiketa amaitutzat eman daiteke. Ekitaldi ekonomiko honetan, aintzat hartuta aurrekontu bateratuaren saila murriztu dela, honako erosketa hauek izapidetu dira:
  - IBM SP SS lizentziak berritzea.
  - 9 OMI-AP lizentzia berritzea.
  - Guelbenzu Jolaslekuko bazkideak kudeatzeko aplikazio informatikoaren lizentzia berritzea.
  - Ordenagailu eramangarri bat (HP Elite Book 850)
  - Ordenagailu bakoitzerako 2 GB RAMeko 3 zabalkuntza.
  - 1 TBko disko gogor ateragarri bat.
  - Dymo etiketen inprimagailu termiko bat.
- Erakundearen funtzionamenduaren ondoren diren ekintza orokorrak koordinatzea eta kontrolatzea, bai gastu orokorrari bai hornigaiei dagokienez, araua izan da gure eguneroko jardueretan; jarduketa-plana erabili da tresnatzat, non edozein erosketaren nahiz hornikuntzaren gastua baimentzeko agiria finkatu den behin betiko. Gastuen II. eta VI. kapituluetan xedatzen dira batik bat gastuok, gastuaren kudeatzailearen eskaerarekin. Bestalde, gehienezko fakturei dagozkien baimenen sinadurak berrikusi behar dira; izan ere, 5.000 €-ra arte (BEZa kanpo) zuzendariordeek baino ez dute sinatu behar, eta 6.000 €-ra arteko gastuetan (BEZa kanpo), berriz, zuzendari kudeatzailearen sinadura ere agertu behar da.
- Jarduketen kudeaketa zein zerbitzu-arrazoiengatik egindako lekualdaketa ofizialen kontrolak.
- NKGIri atxikitako ibilgailuen gastuaren segimendua eta kontrola, flota sendotu delarik NKGIren parkea finkatu ondoren; hala bada, 4 ibilgailu geratu dira egitekoa burutzeko, eta horiek nahikoak dira kontuan izanik ez dela bidaiarik egiten gidaridun auto ofizialetan.
- Erakunde autonomoari atxikitako langileentzako diren ikastaro, bilera eta mintegiei dagokienez, zeinak prestakuntzaren eta funtzionamendu eraginkorraren mesederako diren, berebiziko garrantzia izan dute, berriz ere, askotariko zerbitzuen langileei zuzendutakoek; horien helburuak dira, batez ere, arriskuak prebenitzea eta etengabeko prestakuntza ematea burutzen dituzten ekintzetan.
- Egoitza nagusiko segurtasun, lan-osasun eta arrisku-prebentzioko planak antolatzea eta garatzea eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren berezko zentroekiko koordinazioa ere oso garrantzizkoak izan dira; izan ere, erakunde aitzindari gara Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren arloan, kirol- eta gazteria-zentroak erantsi baititugu plan berrian. Gazteriaren arlokoek bat egin dute berriz kirol-arlokoekin.
- - Askotariko jarduketak Erregistro Orokorrean langile publikoen lan-kalitatea hobetzeko eta herritarren eskaerak hobeto izapidetzeko; horretarako, Registr@, erregistro telematikoa eta Fakturen Erregistro Elektronikoa ezarri dira.

## 2. NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUAREN JARDUKETAK BABESTEA ORO HAR.

### 2.1.- URTEAN ZEHAR GARATUTAKO EKINTZA, JARDUERA ETA GERTAKIZUN GARRANTZITSUENAK:

- 2016ko jarduketa-plana
- Fitxategi-sistema eguneratzeko batzordea
- NKGIren artxiboak kudeatzea
- Bulegoko materiala erostea eta egoitza nagusiak eta zentroak mantentzea
- ABE edo lan-istripuengatiko baja medikoak izapidetzea (35)
- 2016ko zirkularrak eta jarraibideak (1)
- NKGIren ziurtagiriak (64)
- Errendimendu-kirolaren ziurtagiriak (69)
- Lan-arriskuen prebentziorako batzordea (3 saio)
- Estatistika departamentu-batzordea (1 saio)
- Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren idazkaritza:
  Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren bilera (2 saio)
- Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen idazkaritza
  17 saio 20 espediente aztertzeko
- Erakundearen berezko ebazpenak langile, logistika eta barne-araudiaren alorrean:
- Espedienteak langileen alorrean: esleipena, kargutik kentzea, izendapena, lanaldi murriztua, norberaren aferak. (9)
- Hileroko ordainketa-espedienteak gastu aldakorrak direla eta: kilometrajea eta zerbitzuak indemnizatzea, jaiegunetan eta gauean lan egitea (36)
- Aplikazioak eta ekipamendu informatikoa erosteari loturiko espedienteak (4)
- Ekonomia- eta administrazio-arloko txostenak eta ebazpenak: Aurrekontuaren 31 doikuntza, ibilgailuen gastuen 3 ordainketa, NKJBren 2 dieta (36)
- Administrazio-ekintzen jakinarazpenak (NKGIren 910 ebazpenenak, 8.500 jakinarazpenekin guztira)
- Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren ekonomia-, administrazio- eta kontularitza-prozesuak (5.834 ordainketa-kontabilizazio)
- NKGIren 2016ko aurrekontuen aurreproiektua egitean koordinatzea eta laguntza ematea
- NKGIk kudeatutako espedienteen txosten juridikoak (138 ekintza)
- NKGIri atxikitako ibilgailuen gastuaren segimendua eta kontrola
- Aholkularitza administrazio- eta ekonomia-prozedura arloan, administrazio-ekintzak prestatzean eta izaera juridiko eta kirol-alorreko gaietan.
- Bilerak Funtzio Publikoarekin (1 saio), IOTrekin (2 saio).

### 2.2.- HARREMANAK BESTE ERAKUNDE, ERKIDEGO EDO ERAKUNDEEKIN:

- Toki Araubideko Foru Batzordea
- Kirol Kontseilu Nagusia – Araubide Juridikoaren Zuzendariordetza
- Kirolaren Administrazio Auzitegia – Kirol-diziplinarako Batzorde Autonomikoak

### 2.3.-2015EAN IZAPIDETUTAKO ARAU-XEDAPEN GARRANTZITSUENAK:

#### ADMINISTRAZIO-ARLOA

– 112/2016 FORU DEKRETUA, azaroaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Merituaren 2016. urteko Zilarrezko Dominak ematen dituena (**231. NAO - 2016ko azaroaren 30ekoa)**

- 84/2016 FORU AGINDUA, azaroaren 24koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Esteban Imaz Vacas jauna Nafarroako Kirolaren Kontseiluko idazkari izendatzen duena (**232. NAO - 2016ko abenduaren 1ekoa)**

- 751/2015 EBAZPENA, azaroaren 19koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Andoni Irujo Pérez de Eulate jauna Kirol Jokoen Bulegoko buru izendatzen duena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Kirola Sustatzeko Atalari atxikirik (19. NAO - 2016ko urtarrilaren 29koa)

- 752/2015 EBAZPENA, azaroaren 19koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Begoña Echeverría Beroiz andrea Kirola Sustatzeko Ataleko buru izendatzen duena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Kirolaren Zuzendariordetzari atxikirik (19. NAO - 2016ko urtarrilaren 29koa).

- 17/2016 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendariordeen eta atalburuen ordezkapenak ezartzen dituena (**32. NAO - 2016ko otsailaren 17koa)**

- 528/2016 EBAZPENA, uztailaren 27koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, María Jesús Goiburu Imaz andrea Administrazio eta Kudeaketa Ataleko buru izendatzen duena, Garapen Estrategikoaren, Azpiegituren eta Baliabide Kudeaketaren Zuzendariordetzari atxikirik (**156. NAO - 2016ko abuztuaren 12koa)**

- 585/2016 EBAZPENA, irailaren 2koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Esteban Imaz Vacas jauna Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeko idazkari izendatzen duena (**175. NAO - 2016ko irailaren 9koa)**

- 694/2016 EBAZPENA, urriaren 17koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Juan Tomás Apecechea Aizpuru jauna Kirol Erakunde eta Errendimenduaren Ataleko buru izendatzen duena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Kirolaren Zuzendariordetzari atxikirik (**204. NAO - 2016ko urriaren 21ekoa)**

- 695/2016 EBAZPENA, urriaren 17koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Idoia Pérez Huici andrea Kluben eta Kirol Errendimenduaren Bulegoko buru izendatzen duena, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Kirolaren Zuzendariordetzari atxikirik (**204. NAO - 2016ko urriaren 21ekoa)**

## KIROL-ARLOA

- 36/2016 FORU AGINDUA, maiatzaren 10ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana. Honen bidez onesten da Osasun- eta kirol-zientzietako graduko tituludunentzako prestakuntza beka baterako deialdia, kirol- entrenamenduaren eta jarduera fisikoaren oinarri zientifikoekin zerikusia duten ezagutza teoriko eta praktikoak lor ditzaten, osasunarekin duten loturari dagokionez. Prestakuntza hori Nafarroako Gobernuaren Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan eginen da (**97. NAO - 2016ko maiatzaren 20koa)**

- 335/2016 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako kirolarien behin betiko zerrenda onesten duena (**108. NAO - 2016ko ekainaren 6koa)**

- 346/2016 EBAZPENA, maiatzaren 19koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da merkatuaren aurretiko kontsulta egiteko deialdia, helburu izanik Navarra Arena erabilera anitzeko

kiroldegia kudeatzeko eta ustiatzeko konponbideak bilatzea (**107. NAO - 2016ko ekainaren 3koa)**

- 380/2016 EBAZPENA, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, kirolean hasteko prestatzaile diploma lortzeko prestakuntza ikastaroetan matrikulatzeko prezio publikoen araubidea ezartzen duena (**117. NAO - 2016ko ekainaren 17koa)**

- 429/2016 EBAZPENA, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez honako hauek onesten diren: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren "Printzearen Gotorlekua" kirol-egoitzako kirolari egoiliarren plazak betetzeko deialdiaren oinarriak, plaza esleitzen den egunetik 2017ko uztailaren 31ra arteko eperako, eta aipatu epean "Printzearen Gotorlekua" kirol-egoitzan dauden kirolarientzako barne funtzionamendurako erregelamendua ( **128. NAO - 2016ko uztailaren 4koa).** Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 31ko 578/2016 Ebazpenaren eta irailaren 26ko 639/2016 Ebazpenaren bidez **onetsita**

- 461/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez onesten da Osasun- eta kirol-zientzietako graduko tituludunentzako prestakuntza beka baterako deialdia, kirol- entrenamenduaren eta jarduera fisikoaren oinarri zientifikoekin zerikusia duten ezagutza teoriko eta praktikoak lor ditzaten, osasunarekin duten loturari dagokionez. Prestakuntza hori Nafarroako Gobernuaren Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan eginen da (**152. NAO - 2016ko abuztuaren 8koa)**

- 564/2016 EBAZPENA, abuztuaren 25ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako XXIX. Kirol Jokoetarako deialdia egin, lehiaketaren garapena eta kirol federazioekin hitzartu beharreko lankidetza hitzarmenen testua arautzen duten oinarrizko irizpideak onetsi, eta garatu beharreko jarduerari aurre egiteko gastua onesten duena (**170. NAO - 2016ko irailaren 2koa)**

- 607/2016 EBAZPENA, irailaren 14koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako XXX. Kirol Jokoetako Antolaketa Batzordeko kideak izendatzen dituena (**186. NAO - 2016ko irailaren 26koa)**

## GAZTERIA-ARLOA

- 49/2015 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, prestakuntza beka baten deialdia egiten duena Komunikazioko unibertsitate-gradua duten tituludunentzat, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuan aritzeko (**13. NAO - 2016ko urtarrilaren 21ekoa)**

- 56/2016 FORU AGINDUA, uztailaren 5ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko gazteriaren arloko golardoen 2016ko deialdia arautzeko oinarriak onesten dituena (**152. NAO - 2016ko abuztuaren 8koa)**

- 187/2016 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gazteriaren Departamentuarteko Batzordeko kideak izendatzen dituena (**62. NAO - 2016ko apirilaren 1ekoa)**

- 232/2016 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Soziologiako unibertsitateko tituludunentzako edo Soziologia Aplikatuko gradudunentzako prestakuntza beka esleitzen duena. Beka Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuan aritzeko da (**72. NAO - 2016ko apirilaren 15ekoa)**

## KIROL-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

- 13/2016 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako kirol-klubei eta kirol-klub filialei diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko 2016ko deialdia onesten duena, hain zuzen, 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean egiten diren Espainiako edo autonomia-erkidegoen arteko liga ofizial ez-profesionaletan parte hartzen duten taldeengatik (**41. NAO - 2016ko martxoaren 1ekoa)**

- 15/2016 FORU AGINDUA, otsailaren 18koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana. Honen bidez onesten da kirol-klubei eta kirol-klub filialei diru-laguntzak emateko deialdia, banakako ebaluazio-araubidean, baldin eta 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean parte hartzen badute nazioarteko, Espainiako edo autonomia-erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionaletan eta liga erregular ofizialetan, beste deialdi batzuetan jaso gabekoetan (**55. NAO - 2016ko martxoaren 21ekoa)**

- 22/2016 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako kirol-federazioei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena, 2016ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean kirol-errendimenduko programak gauzatzeko (**63. NAO - 2016ko apirilaren 4koa)**

- 24/2016 FORU AGINDUA, martxoaren 29koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako kirol-federazioei 2016an diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituena (**67. NAO - 2016ko apirilaren 8koa)**

- 26/2016 FORU AGINDUA, apirilaren 1ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, kirol-klubei, kirol-klub filialei eta kirola sustatzeko entitateei diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena, Nafarroako Foru Komunitatean kirol-ekitaldi eta -jarduerak antolatzeko 2015eko abenduaren 16tik 2016ko irailaren 30era bitartean (**73. NAO - 2016ko apirilaren 18koa)**

- 46/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 3koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, kirol-begirale edo -entrenatzaile gisa prestatzeko ikastaroetarako banakako ebaluazio-araubideko laguntzen deialdiaren oinarriak onesten dituena (**117. NAO - 2016ko ekainaren 17koa)**

- 61/2016 FORU AGINDUA, irailaren 2koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, 2016-2017 ikasturtean Eskola-umeentzako Kirol-programan parte hartzen duten unibertsitatez kanpoko ikasketa arautuetako ikastetxe publiko eta pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena, bai eta oinarri arautzaileak ere (**177. NAO - 2016ko irailaren 13koa)**

- 66/2016 FORU AGINDUA, apirilaren 22koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana. Honen bidez onesten dira Nafarroako tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak, 2016-2017 ikasturteko kirol-jardueretako programak sustatze aldera (**195. NAO - 2016ko urriaren 7koa)**

- 69/2016 FORU AGINDUA, urriaren 5ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, 1997. urtean jaioak diren Nafarroako kirol-federazioetako kirolarientzako diru-laguntzen deialdia onesten duena, 2016an osasun-azterketak egiteko (**203. NAO - 2016ko urriaren 20koa)**

- 77/2016 FORU AGINDUA, urriaren 28koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako kirol-federazioei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena, 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31 bitartean kirol-errendimenduko programak gauzatzeko (**218. NAO - 2016ko azaroaren 11koa)**

- 79/2016 FORU AGINDUA, azaroaren 9koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako kirol-federazioei 2017an diru-laguntzak emateko oinarri

arautzaileak onesten dituena (**228. NAO - 2016ko azaroaren 25ekoa)**

GAZTERIA-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

- 16/2016 FORU AGINDUA, otsailaren 25ekoa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Gazteen Entitateen Erroldan inskribaturik dauden gazte-elkarteei diru-laguntzak emateko 2015eko deialdiaren oinarriak onesten dituena (**55. NAO - 2016ko martxoaren 21ekoa)**
- BON23/2016 FORU AGINDUA, martxoaren 16koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena, 2016an gazteentzako programak egiteko (**67. NAO - 2016ko apirilaren 8koa)**

- 53/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 23koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, astialdiko begirale edo zuzendarientzako ikastaroak egiten dituzten gazteentzako laguntzen deialdiaren oinarriak onesten dituena. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak ofizialki onartutako Aisialdi Eskolek antolatzen eta ematen dituzte ikastaro horiek. (**141. NAO - 2016ko uztailaren 21ekoa)**

## 3. ERAKUNDE AUTONOMOAREN ORGANO ELKARGOKIDEEN JARDUEREN KOORDINAZIOA ETA GARAPENA, HONAKO EKINTZA ADIERAZGARRI HAUEKIN, BESTEAK BESTE:

- Alderdi administratibo, juridiko eta ekonomikoetan laguntzea, osoko bilkurari zein Batzorde Iraunkorrari dagokienez, Nafarroako Kirolaren Kontseiluari, Nafarroako Kirol Justiziaren Batzordeari eta NKGIren Gobernu Kontseiluari.
- Kirol Justiziaren Batzordea 2014an berritu zen bost urteko agintaldiarekin. Nafarroako Kirol Justiziaren Batzordearen barne-funtzionamendua eta prozedura-arauak finkatzean, prozesuak ere erraztu egin dira; horri esker, hobetu egin dira Batzordearen beraren funtzionamenduaren eraginkortasuna eta dinamizazioa.

## 4. KOORDINAZIOA NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN EBAZPEN ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK PRESTATZEKO:

### 4.1.- KUDEATZAILEEI KIROL-ARLOKO EKINTZA ADMINISTRATIBO KONPLEXUAK ONARTZEKO ETA EBAZTEKO AHOLKU EMATEA, BEREN ESPEZIFIKOTASUNA ETA IZAERA BERRIA AINTZAT HARTUTA.

- Foru Dekretuaren proiektua gauzatzea, gazteen eta gazteriarekin lotura duten eragileen partaidetzarako elkarrizketa egituratua arautzen duena.
- Gazte-elkarteei, tokiko erakundeei eta kirol-erakundeei diru-laguntzak emateko deialdien Foru Aginduak, Nafarroan gazteriaren eta kirolaren arloetako jarduerak sustatze aldera.
- Gazteen Informazio Zerbitzuen Sarea babestea eta bekak aisialdiko begirale edo zuzendari izateko ikastaroetarako.
- Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa babestea kirol-entrenatzaile edo -begirale izateko ikastaroetarako diru-laguntzen deialdia prestatzeko.

### 4.2.- BESTE EGINTZA ADMINISTRATIBO BATZUK:

- Fakturak ordaintzeko eta ordainketa-ebazpenen epea murrizteko prozedura ekonomikoa finkatzea eta fakturen Erregistro Elektronikoa abian jartzea.
- NKGIren ebazpen eta egintza administratibo ohikoenen testuak eta edukiak arautzea eta homogeneizatzea.
- NKGIren kontratu-espedienteetan eta hitzarmen administratiboetan jasotako dokumentazioaren segimendua egiteko eta hura kontrolatzeko prozedura arautzea.
- Enpresaren irudia agiri eta dokumentazio ofizialean erabiltzeko indarrean dagoen legedia betetzea eta ziurtagiri ofizialen tramitazioa koordinatzea.
- Egintza administratibo ofizialak modu eraginkorrean kontrolatu eta jakinaraztea.

## 5. NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ALDIZKAKO GASTUAK ORDAINTZEKO ERAGINKORTASUNA FINKATZEKO BIDEAN DAGO

- Ordaintzeke dauden jasotako aldizkako hornigaiak eta zerbitzuak antzemateko aukera emanen lukeen NGKIren kontrol-prozeduraren bitartez.
- Kontrol bakarra egokitzea eta garatzea gastuen fakturek eta egiaztagiriek legebaldintza guztiak bete ditzaten.
- Ezarritako prozedura bakarra garatzea eta NKGIren gastuen hornitzaileei ordaintzeko legeak ezarritako epeak betetzen direla bermatzea.
- Fakturen Erregistro Elektronikoa garatzea eta finkatzea.
- Ogasun Ministerioaren FACE plataformaren bidez helarazitako fakturak jaso eta kontabilizatzea.

## 6. ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESPEDIENTE ADMINISTRATIBOEN ERABILERA KONTROLATZEKO PROZEDURA BERRIKUSTEA ETA EGOKITZEA IZAN DA BESTE HELBURUETAKO BAT, HONAKO HAUEN BITARTEZ

- NKGIren Artxibo Orokorraren espediente administratiboen agiriak eskatzeko prozedura garatzea eta ezartzea, baita Nafarroako Artxibo Nagusirako ere, funtzionamendujarraibideak horrek ezarritako arauei egokituz.
- NKGIren espedienteak modu eraginkorrean eta etengabe kontrolatzea erregistroaren bidez; artxibatzeko prozesuan dauden espedienteen segimendua egitea eta, batez ere, horietako bakoitzean beharrezkoa den jatorrizko dokumentazioa kontrolatzea. Prozesu berriak aztertzen ari gara, Administrazioa Sinplifikatzeko Batzordea abian jarri baita, Europako Zuzentaraua, Administrazioaren arrazionalizazio eta gardentasunaren legea eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren araudia betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

# Parlamentuarekin eta Arartekoarekin dituen harremanak

# PARLAMENTUAREKIN ETA ARARTEKOAREKIN DITUEN HARREMANAK

| |
|---|
| 8 agerraldi. |
| 28 informazio-eskaera eta 4 galdera idatzita. |
| Ahozko 6 galdera Parlamentuaren osoko bilkuran. |
| 1 interpretazio jorratuta Parlamentuaren osoko bilkuran. |
| Arartekoaren kontsultari buruzko 4 erantzun helarazi zaizkio Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari. |